

JAKIN

JON SARASUA
EUSKARAZKO PRENTSAREN DIAGNOSTIKOA

SIADeco
EUSKARAZKO KULTUR KONTSUMOA

IÑAKI URIA
HEDAPENA, SUSTAPENA... ETA BESTELAKO PENAK

LUIS FERNANDEZ
EUSKAL KAZETARIAREN PROFILA

PELLO ZUBIRIA
EUSKAL PRENTSAREN DESAFIO BERRIAK

JEXUXMARI ZALAKAIN
PRINTZIPIO-ALORREKO DESAFIOAK

JOSU LANDA
KOMUNIKABIDE-MOTA BERRI BATEN ATARIAN

PELLO URZELAI
GENERO INFORMATIBOAREN GAINBEHERA

IÑIGO URRUTIA
PUBLIZITATE OFIZIALA JASOTZEKO ESKUBIDEA

JOXERRA GARZIA
IÑIGO ARANBARRI
IMANOL AGIRRE
LONTXO OIHARTZABAL
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN

96

IRAILA-URRIA 1996



JAKIN

96

IRAILA-URRIA 1996



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
---	----------------	---

G	AI NAGUSIA	
		11
	JON SARASUA	
	EUSKARAZKO PRENTSAREN DIAGNOSTIKOA	
		29
	SIADECO	
	EUSKALDUNAK ETA EUSKARAZKO KULTUR KONTSUMOA	
		43
	IÑAKI URIA	
	HEDAPENA, SUSTAPENA... ETA BESTELAKO PENAK	
		51
	LUIS FERNANDEZ	
	EUSKAL KAZETARIAREN PROFILA	
		63
	PELLO ZUBIRIA	
	EUSKAL-PRENTSAREN DESAFIO BERRIAK	
		71
	JEXUXMARI ZALAKAIN	
	PRINTZIPIO-ALORREKO DESAFIOAK	
		77
	JOSU LANDA	
	KOMUNIKABIDE-MOTA BERRI BATEN ATARIAN	
		81
	PELLO URZELAI	
	EUSKAL KOMUNIKABIDEETAKO	
	GENERO INFORMATIBOAREN GAINBEHERA	
		89
	IÑIGO URRUTIA	
	PUBLIZTATE OFIZIALA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA EUSKAL PRENTSA	
		107
	EUSKALKOM	
	PRENTSA JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK	

E	GUNEN GURPILEAN	
		113
	JOXERRA GARZIA	
	IÑIGO ARANBARRI	
	IMANOL AGIRRE	
	LONTXO OIHARTZABAL	
	KIKE AMONARRIZ	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1996ko PREZIOAK

<u>BARRUAN</u>	<u>HARPIDEDUNA</u>	<u>EZ HARPIDEDUNA</u>
Harpidetza	5.000 pta.	—
Ale arrunta	850 pta.	1.225 pta.
Ale bikoitza	1.050 pta.	1.500 pta.
<u>KANPOAN</u>		
Harpidetza	5.500 pta. (235 FF)	—
Ale arrunta	925 pta. (40 FF)	1.400 pta. (60 FF)
Ale bikoitza	1.150 pta. (50 FF)	1.725 pta. (74 FF)

SUMMARY

CONFERENCE ON THE PRESS IN THE BASQUE LANGUAGE

VARIOUS AUTHORS

The main theme of this new issue of *Jakin* is the analysis of the situation in which the Basque language press finds itself today. To this end we have compiled the main reports from the Conference on the Press organized by the Euskalkom collective, which was held in Donostia on May 31st. and June 1st 1996. In the first report Jon Sarasua makes a general appraisal of the sector. In the second work, the sociological research centre Siadeco reports on the results of its study on cultural consumption among Basque speakers. Iñaki Uria undertakes an analysis of the market in which the Basque language press competes. Luis Fernandez describes in his report the difficulties which the journalist working for Basque publications face. Pello Zubiria, Jesus Mari Zalakain and Josu Landa express their opinions with regard to the new challenges faced by the Basque press. The journalist Pello Urzelai assesses the development of the journalistic genre in the written means of communication. In the final report which we offer, the lawyer Iñigo Urrutia maintains that public institutions must give priority to the means of communication in the Basque language in the distribution of institutional publicity. We close the dossier with the conclusions reached in the course of the Euskalkom Conference.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This section gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we are closely following culture, entertainments, university, sociolinguistic and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joxerra Garzia, Imanol Agirre, Lontxo Oihartzabal, Kike Amonarriz and Iñigo Aranbarri.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 96. zenbakia da eta 1996ko bosgarrena.

Gai nagusia sailean euskarazko prentsaren gaur egungo egoeraren azterketa egiten duten bederatzi lan datoz. Joan den maiatzaren 31ean eta ekainaren 1ean Donostiako Miramar Jauregian egindako Prentsa Jardunaldietan irakurritako ponentzia eta komunikazioak dira.

Lehenengo ponentzian euskal prentsaren diagnostikoa egin du Jon Sarasuak: *Egunkaria*-ren, *Argia*-ren, gai-aldizkariaren eta herri-aldizkariaren egoera eta arazoak aztertu ondoren, sektoreari buruzko ondorio orokorrak atera eta etorkizun hurbilerako proposamenak egiten ditu.

Siadecok —jardunaldietan Kike Amonarrizek aurkeztu zuen ponentzia— euskaldunen kultur kontsumoari buruzko datuak ematen ditu hurrengo lanean. Iñaki Uria *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkariak, berriz, sustapenaren premiaz ohartaraz-

ten du. Luis Fernandezek kazetariak euskarazko hedabideetako kazetariak jasaten dituzten «presio ekonomikoa», «presio profesionala» eta «presio politikoa» ditu aipagai.

Hurrengo hiru komunikazio laburretan galdera berari erantzun diote Pello Zubiriak, Jexuxmari Zalakainek eta Josu Landak: Zein dira euskal prentsaren desafio berriak? «Geure Herrian bertan eraginkor izatea» nabarmendu du Zubiriak, besteak beste, erronka nagusien artean; desafio nagusiak printzipio-alorrekoak direla dio Zalakainek; eta teknologia berriek ekarriko dituzten aldakuntzez gogoeta egin du Landak.

Pello Urzelai kazetariak euskal komunikabideetan genero informatiboa alboratua dagoela ohartarazten du, berritzeko eta garatzeko gaitasunik gabe. Eta Iñigo Urrutia abokatuak, azken ponentzian, egungo legerian oinarrituz, instituzio publikoek publizitatearen banaketan euskarazko hedabideei lehentasunezko tratua eman beharko lieketela defendatzen du.

Jardunaldietako parte hartzaileek ateratako ondorio nagusiak argitaratzen ditugu dossierraren bukaeran.

Ohar bat, artikulua hauei guztiei buruz: hitzez aurkezteko idatzi zirenez, ahozko komunikazioari dagozkion zenbait esamolde eta egitura dituzte beren baitan. Bere horretan utzi ditugu.

Sail berri baten lehen emaitza dator ondoren: euskal kulturaren historia hurbilekoan protagonista izandako gizon-emakumeen testigantzak jasotzea da *Historia Bizia* izena eman diogun sailaren helburua. Piarres Xarriton aukeratu dugu oraingoan: 1930eko hamarkadatik gaur egunera arte Ipar Euskal Herrian gertaturikoen lekuko apartekoa ezezik protagonista ere bada Xarriton. Bere testigantza jasotzea merezi duelakoan egin dio Imanol Murua Uriak elkarrizketa luzea.

Egunen Gurpilean sailean ohiko idazleen artikulua dotoz: Joxerra Garzia, Iñigo Aranbarri, Imanol Agirre, Lontxo Oihartzabal eta Kike Amonarriz.

GAI NAGUSIA

JON SARASUA

EUSKARAZKO PRENTSAREN DIAGNOSTIKOA

SIADECO

EUSKALDUNAK ETA EUSKARAZKO KULTUR KONTSUMOA

IÑAKI URIA

HEDAPENA, SUSTAPENA... ETA BESTELAKO PENAK

LUIS FERNANDEZ

EUSKAL KAZETARIAREN PROFILA

PELLO ZUBIRIA

EUSKAL PRENTSAREN DESAFIO BERRIAK

JEXUXMARI ZALAKAIN

PRINTZIPIO-ALORREKO DESAFIOAK

JOSU LANDA

KOMUNIKABIDE-MOTA BERRI BATEN ATARIAN

PELLO URZELAI

EUSKAL KOMUNIKABIDEETAKO
GENERO INFORMATIBOAREN GAINBEHERA

IÑIGO URRUTIA

PUBLIZITATE OFIZIALA JASOTZEKO ESKUBIDEA
ETA EUSKAL PRENTSA

EUSKALKOM

PRENTSA JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

EUSKARAZKO PRENTSAREN DIAGNOSTIKOA

JON SARASUA

Lan honen helburua euskarazko prentsaren une honetako egoera aztertzea da, enpresa-egitura, langilea, zabalkundea, publizitatea, nahikundeak eta arazoak arakatuz. Egoeraren ildo nagusiak marraztea da xedea, euskal prentsaren proiektuetako protagonista nagusien hitzak batu eta beraien auto-diagnostikotik diagnostiko orokorrerako apunteak bilduz.

Honako metodoa erabili dugu:

- Lau tipologia bereiztu ditugu euskal prentsaren baitan: egunkaria, informazio orokorrerako astekaria, Euskal Herri mailako gai-aldizkariak, eta herri- edo eskualde-aldizkariak.

- Diagnostikoa ateratzeko galde-atalak zehaztu eta atal horiekin galdeketa-fitxa zabala prestatu du Siadeco-k.

- 10 agerkariko lagina hartu dugu, tipologia bakoitzeko egoera ordezka dezakeena: *Egunkaria*, *Argia*, *Jakin*, *Elhuyar*, *Aizu!*, *Bat*, *Arrasate Press*, *Irutxulo*, *Eraz*, *Ttipi-ttapa* eta *Bizarra Lepoan*. Galdetegia oinarri hartuz zuzeneko elkarrizketak egin ditugu agerkarietako arduradunekin. Herri-aldizkariekin eztabaida-taldearen teknika erabili dugu.

Bildutako datu- eta iritzi-kopurua handia da ponentzia batean aurkezteko. Prentsako protagonisten auto-diagnostikoan amankomunak diren puntuak atera ditugu, eta aspektu nagusien inguruan diagnostiko laburtua osatu.

Hiru ataletan aurkeztuko ditugu emaitzok:

- Euskal prentsako enpresaren argazki robota.
- Lau tipologiak banan banan.
- Diagnostiko eta proposamen amankomunak.

EUSKAL PRENTSAKO ENPRESAREN ARGAZKI ROBOTA

ENPRESA-EGITURA

Enpresa

Euskal prentsako enpresez mintzatzean ez gara beti enpresez ari. Elkarte anonimo, eta elkarte mugatuak dira handienak. Baina bai Euskal Herri mailakoetan eta, batez ere, herri mailakoetan Kultur Elkarteak dira asko. Lehen aldiz, *Ttipi-ttapa* aldizkaria Fundazioaren aukera aztertzen ari da.

Ondarea

Euskal prentsako enpresa, normalean, lokal propiorik gabekoa da. Egoitza propiorik gabe ditugu egunkaria eta astekari nagusia, alokairuan. Egunkari bakarra, gainera, errotatiba propio barik ari da. Beste agerkarietan bakarren batek badu egoitza propioa. Herri-aldizkariak udalen lokaletan, utzitako lokaletan eta horrelako behin-behineko egoeretan daude. Maila

horretan ondare sendorik gabe aurkitzen da aztertzen ari garen enpresa.

Harremanak

Euskarazko kulturgintza eta herrigintzako ekimenen barruan eta berauei lotuta ageri da euskal prentsa. Ez da ekimen pribatu lukratibotik sortu. Ez eta ekimen publiko-instituzionaletik ere.

Egunkaria Sortzen proiektuak, euskal kulturgintzarekin harreman zabala du. Herri eta eskualde mailako agerkariak, nagusiki Euskara Elkarteen ekimenetik sortuak dira eta hauekin harreman formula desberdinak dituzte (Elkartea agerkariaren akzionista nagusi; bien arteko lotura organikoa; organikorik gabe lokal-lagatzea edo bultzatzaile papera). *Argia*-k bere inguruan azpiegitura- eta zerbitzu-enpresak sortu ditu eta berauekin harreman estua du. Ikuspegi- eta estrategia-gaitasun hori izan duen bakarretakoa da.

Atal honetako edukia laburbilduz, aztertzen ari garen erakundea ondare propio eskaseko enpresa edo kultur elkartea da, euskal kulturgintzako gizarte-ekimenari lotua.

PERTSONALA

- 200 langiletik gora enplegatzen ditu euskal prentsak zuzenean. Horietatik gehienak kazetariak dira.

- Finkoen kopurua oro har % 50 inguruan dabil.

- 18-34 urtera bitartekoak dira gehienak. Gazteak beraz.

- Lan-baldintza berezietan daude, inguruneko mailatik behera. Kontrataziotan alde aipagarriak daude. Langile asko kontratu gabe daude, gizarte-segurantzarik gabe, nola-hala kontratuz. Ondoan daudenak gaur egungo lan merkatuko soldata normal samarrera iristen dira.

Arlo honetan euskal prentsako puntu beroetako bat aurkitzen dugu: prentsa idatziko kazetariaren batezbesteko soldata ez da iristen ikus-entzunezko kazetariaren soldataren erditik

oso gora (jakina, EITB apustu publikoa sektore horretan da-goelako). Amildegia nabarmena da.

Egoera desorekatu honek hainbat inplikazio ditu:

- Enpresa gehienek aipatzen dute lan-egoera hobetu beharra, beti ere hobetze ekonomiko balizko bati lotua.
- Herri-aldizkari batzuetan aipatzen da finkotasun faltak eta soldata/ordu *ratio* eskasak jendea aldegitara bultzatzen duela, beste aukera bat duen lehenengoan. Honek produktua-ren finkatze eta kalitatean negatiboki eragiten du.
- Arlo komentzial eta enpresarialean jende ona erakartzea oso garrantzitsua da *Egunkaria* bezalako enpresentzat, baina lan-baldintza horietan oso zail gertatzen da.

DIRULAGUNTZAK

Hiru kalifikatibo jasotzen dituzte erakundeen dirulaguntzek: eskasa, behar bezala arautugabea, arlo batzuk ahazten dituenena. Honetan bat datoz *Egunkaria*-tik hasi, Euskal Herri mailako prentsatik segi eta herri mailako prentsarainokoak.

Oro har denei, eta batez ere *Egunkaria* bezalako proiektu giltzarriei nola-hala irauteko adinako laguntza ematen zaie:

- ez bere potentzialtasuna eta hizkuntz komunitatean duten funtzioa garatzeko adina,
- ez presentzia sozialean apustu sendoak egiteko,
- ez enpresa eta proiektu bezala finkatzeko.

Euskal Herri mailako aldizkariak beren urteko aurrekontuen erdia baino gutxixeago jasotzen dute dirulaguntza moduan, gehienbat Jaurlaritzatik, ondoren Aldundietatik eta batek edo bestek Madrilgo Ministeriotik edo Kutxetatik. Herri-aldizkariak hiru iturri izan dituzte urte batzuetan: Jaurlaritza, Aldundiak eta tokian tokiko Udalak. Hauek beren aurrekontuen erdia eta herenaren artean jasotzen dute dirulaguntzetatik. Jaurlaritzatik herri-aldizkarietarako diru-murrizketa datorrela aipatzen da, eta gutxiago banatzeko gero eta aldizkari gehiago sortzen ari dira gainera.

Gai honetan *Argia*-ren kasua berezia da. Beste agerkarien baldintzatan askoz diru gehiago legokioke, baina berarentzat bereziki tope bat jarrita dauka Eusko Jaurlaritzak. Jasotzen duena halako bi behar luke, eta tokatu ere hala tokatzen zaio besteen baldintzetan. Astekari nazionala besteen neurrian ez dela bultzatu nahi dirudi.

Dirulaguntza-sistemara diagnosis nahiko koinzidentea da:

- Gutxi da euskal prentsaren sendotze-desafioari erantzuteko.
- Uneko borondatearen gora-beherei lotuegia dago.
- Aldagai batzuk kontuan hartzen badira ere, lotuegi dago defizitari, eta honek ez du optimizazioa bultzatzen.

Honen aurrean honelako laguntza proposatzen da:

- Arautua, finkatua. Jokoko erregelak markatu eta bakoitzaren ahaleginei aurrerantz tirako diena.
- Produkzioko defizitak estaltzera mugatu ordez, beste bide batzuk ere urratuko dituen:

— Inbertsioetarako laguntza, enpresak sendotzeko eta autosufizienteago izateko emandako pausoak sarituz.

— Merkaturatzeko, sustapenerako laguntza.

IRAKURLEAK

Irakurleen gaian ikuspegi desberdinak ageri dira lau multzoen arabera.

Egunkaria-n irakurleen perfila honelatsu marrazten da:

- Irakurleko gaztea, ikastoletatik irtendako lehen belaunaldiak.
- Ikasiak, inongo egunkaritan baino perfil ikasiagoa.
- Gizarte-eragileak, pertsona aktiboak (hau irudi-moduan hustiagai izan daiteke).

Euskal Herri mailako aldizkarietan ere berresten da euskal prentsara irakurlea edo harpideduna euskaltzale eta kulturzale ikasia dela. Baina argi gorri bat piztu da: zer gertatzen da ikastoletatik datozen belaunaldi gazteekin? Teorian euskal prentsaren olatu berri eta oparoena izan behar duenarekin?

Bi aurpegi ditu kezka honek: batetik gazteengan interes falta ikusten da, ez dira lehen bezala sartzen euskal prentsa-
ra. Bestetik horretaz datu falta dago, azterketa egiteko bitar-
teko falta.

Hartzaile zabal batengana iristen dena herri mailako prent-
sa da. Euskaraz irakurtzen ez zuen jende asko jartzen du eus-
karaz leitzen, eta ez da topikoa, datuek erakusten duten erre-
alitatea baizik. Herri askotan, irakurle potentzialetatik ira-
kurle errealerako tartea oso txikia da. Hori lorpen handia da (ba-
dira salbuespenak, hiri mailako aldizkarietan). Gertatzen de-
na da, herri mailako prentsa Euskal Herri mailakoaren ira-
kurle-sortzaile edo harrobi izatea espero zela. Eta hori berre-
sten duen daturik ez dago. Mito hutsa den inpresioa dago he-
rri-aldizkarietan. Zerbaitek huts egin du hor, balizko zubi ho-
rrek.

Hartzailearen gaian, zera da Euskal Herri mailako euskal
prentsaren angustia: ezin hazi «gorputzak» eskatzen dion neu-
rrian.

SUSTAPENA

Aipatu dugun euskal prentsaren angustia nagusiaren aurpe-
gia dugu hau: sustapenaren beharra. «Sustapena, sustapena,
sustapena», *Jakin*-ekoez dioten moduan. Sustapenaren behar
gorria eta aldi berean egin ezina, gure prentsaren egoera eko-
nomikoaren ispilurik argienetakoa da.

Sustapen formularik erabilienean truke-tratua da. Ondoren
produktu osagarriak eta festak datoz.

Ahalegin eskerga eskatzen du sustapenak bizi garen mezu-
-oihanean, presentzia etengabea. Gakoa da, baina asko behar
da. Dauden baliabideetarako, gehiegi. Bereziki gazteengana
iritsi ezina aipatzen da.

Batetik, elkar sustatzeko elkarlana urratu beharreko bidea
da. Bestetik, sustapena lagun liteke, lagundu behar da: EITB-
tik eta Administrazioetik, adibidez. Merkatua sortzea oso serio
hartu beharreko lana da.

BANAKETA

Harpidetza da Euskal Herri mailako euskal prentsaren giltzarri bat, gure unibertsoaren potentzialitate garrantzitsu bat.

Egunkaria Euskal Herri mailan liderra da harpidetza-portzentaian, eta oraindik bide horretan aurrera jotzeko asmoa du. Euskal Herri mailako aldizkarietan ere, astekaritik hasita, harpidetza funtsezkoa da, banaketa-sistema ia erabatekoa.

Aitzitik, kioskoa leku zaila da euskal prentsarentzat, oso zaila. Euskarazko aldizkariak ez daukate egoki lehiatzerik gaztelarazko 100 produktu espezializaturen aurrean. Bestalde, kioskoetan bidea urratzeko presentzia izate hutsa ere garestia da zenbait produktuentzat.

Harpidetza, beraz, euskal prentsaren halabeharra da eta aldi berean bere abantaila. Herri-prentsak, jakina, beste sistema bat erabiltzen du oro har: doaneko harpidetzarena, bere mailan emaitza onak eman dizkiona. Halaber, harpidetza ordainduaren bidea ere urratzen ari da herri mailako prentsa.

PUBLIZITATEA

Pauso handiak eman ditu euskal prentsak publizitatearen gaian, nahiko lur birjina zenez. Ahalegin handia egin da. Ahalegin horren berritasuna ere nabari da: komentzial onen falta, eta euskal produktuak eskaintzeko esperientzia falta. Lortzen den publizitatean, txikizkakoak presentzia portzentual handiegia du, handizkakoak gutxi sartzen da, eta publizitate instituzionalak produktu euskaldunak serio bultzatu gabe jarraitzen du. Ondorioa argia da. Prentsaren bideragarritasuneko egoera ikusita, lortzen den publizitatea ez da nahikoa. Hiru gako, argi piska bat ikusteko:

1) Elkarlan-aukerak. Euskal audientzia batera sal liteke. Bestela ezin da iritsi Madrilera, enpresa handietara...

2) Administrazioak irizpide finkoak behar ditu. Diskriminazio positiboa, publizitate arautua. Publizitate-politika egoki bat eskatu behar zaio Administrazioari.

Kontuan izan behar da, gainera, Administrazioa iragarle sartzek beste publizitate-mota bat ere erraztu dezakeela, eta gainera zenbait mezuren publizitaleku egokiena euskal prentsa dela.

3) Euskaraz eros-sal-irakur triangelua bultzatu behar da. Euskarazko proiektuek duten inplikazio afektiboaren kualitate-botasuna publizitarioki saltzen asmatu. Euskarazko unibertsoaren kontsumo-presioa artikulatu. Hau, jakina, bide luzea da.

Honetan guztian, herri-prentsa milderok ere bat egiten dute Euskal Herri mailakoekin. Herrietako txikizkako publizitate laguntzailea funtsezkoa izan da herri-prentsa rentzat, baina proiektuak finkatu ahala publizitate txiki hori jaitsi egiten da. Enpresa handiagoetara jo behar da. Eta horretarako aski tainarik ez. Kontuan izatekoa da, ordea, denek batera hedapen handia, izugarria dutela eta hor alor bikaina dagoela, artikulatzen jakinez gero.

Argi ikusten da herri prentsan, liderra izateak daukan garrantzia. *Arrasate Press* eta *Ttipi-ttapa* beren esparruan liderrak dira ale-kopuruan, eta horrek abantaila handia ematen diete publizitatea lortzerakoan.

Horrez gain ideia osagarriak ere ageri dira: publizitateari euskarri berriak emateko ikertzea. Gehigarrien bidez eta abar, plan komentzial baten arabera produktuak eskaintzea *Argia*-k egiten duen moduan.

LAU TIPOLOGIAK

EGUNKARIA

«Iruteko adina eta garatzeko ezintasuna» bada euskal prentsa-ren egoera, *Egunkaria*-rena da horren islada argienetakoa. Egoera horrek hainbat aurpegi ditu *Egunkaria*-n:

Ondarea

Egoitza propiorik ez, errotatibarik ez.

Pertsonala

Lan baldintza bereziak, ingurunetik behera. Baldintza horietan lan egiteko jendea falta arlo komertzial eta enpresarialean.

Irakurleak

- Gazteak, ikastoletako lehen belaunaldiak.
- Ikasiak, inon baino ikasiagoak, eta oro har lanean.
- Gizarte-eragileak.

Potentzialerako aldea

- Plusa jarri beharra, produktua meharragoa.
- Gaitasun eta ohitura falta.
- Gazteak, irakurle potentzial, ez erosle.

Honek sustapen-politika sakon bat eskatzen du.

Sustapena

Ia erabat truke-tratuak, festa eta produktu osagarriak.

Ahalegin eskerga eskatzen du, presentzia etengabea. Gakoa da, asko behar da.

Sustapena lagun liteke, lagundu behar da: Administrazio-tik, EITB eta abarretatik sinergiak bultzatuz...

Dirulaguntzak

Eskasak dira, irauteko:

- ez presentzia sozialean apustu sendoak egiteko,
- ez enpresa eta proiektu bezala finkatzeko.

Publizitatea

Ahalegin handia egin da. Sorreratik % 100 igoz. % 9 instituzionala, % 35 txikizkakoa eta % 55 handizkakoa. Komertzial propio eta agentzien bidez. Ez da nahikoa. Hiru gako aipatzen dira *Egunkaria*-n, gorako argazki robotean aipatutako beretsuak:

- Elkarlan-aukerak. Euskal audientzia batera salduz.

- Administrazioak irizpide finakoak behar ditu.
- Euskaraz eros-sal-irakur triangelua bultzatu behar da.

Arazoak

- Irautea da lana. Potentzialitateak mugatuta daude (64 orri ateratzea, astelehenean ere argitaratzea...).
- Irakurle-eskaria falta da.
- Apustu instituzionala falta da, baldintza onetan irauteko, azpiegitura indartzeko, merkatua osatzeko, sustapena egiteko.

Errealitatea

Euskara komunikazio-hizkuntza bihurtzea lortzen du *Egun-karia*-k. Naziotasunaren irudi grafikoa da, egunerokoa. Hizkuntz komunitatearen sektorerik gaituena trinkotzen du, elkarrekin komunikazioan jartzen, muga guztien gainetik. Herri-ekimenaren eta militantzia-gaitasunaren lorpen bat da: produktu duina da eta arlo batzuetan liderra (zabaltasunean, euskal kultur gaietan).

Zentzu horretan, bere estrategikotasunaren aitortzea eskatu behar du, bai gizartearen aurrean, bai Administrazioaren aurrean. Eta publikitatean, bere kualitatibotasuna saltzen asmatu behar du.

ARGIA

Euskal Herri mailako astekarigintzaren desafiari urte luzeetan eutsi dion proiektua da *Argia Egunkaria* -ren sorreran bere kapitalik handienak hustu zituen eta orain, berriz ere bere esparrua sendotu nahian ari da: informazio orokorreko aste-karia.

Enpresa

Enpresa mailan ekarpen interesgarria dakar: azpiegiturak sortzeko izan duen estrategia, eta estrategia honen ondorioz azpiegitura-enpresekin duen lotura. Ikuspegi enpresariala jorratzen puntakoa dugu, eta ahalegin horretan beste guztientzat eredu.

Lan-baldintzak

Ondare eskasian, langileen lan-baldintza eskas samarretan eta pauso sendoak emateko bitarteko eskasian ohitua. Euskal prentsaren batezbestekoa baino egoera zailagoan egin eta egiten du lan.

Dirulaguntzak

Dirulaguntzen alorrean egoera berezi batean dago. Eusko Jaurlaritzak aldizkarigintzarako jarritako baldintzen arabera orain jasotzen duen doblea tokatzen zaio, eta behar du gainera. Hala ere Jaurlaritzak tope bat jarri du beretzako.

Hiru eskaera planteatzen dizkio Administrazioari:

- Hustiaketa berdintzeko laguntza.
- Inbertsioetarako laguntza.
- Publizitate-politika egokia.

Irakurleak

Harpidetza oinarri sendoa du. Harpidetza sendotzea du promozio-biderik indartsuena. Horretarako Harpidetza Saila dauka.

Sustapena

Sustapen-operazio handiak egiteko ere bitartekoak falta ditu. Hala ere, Komunikazio-Kabinetea osatua dauka.

Publizitatea

Publizitateari euskarri berriak sortzen saiatzen da, Plan Komertzial baten arabera produktuak eskainiz. Enpresa handietara jotzeko zailtasuna du. Zentzu honetan Administrazioaren jokaera-aldaketa gakoa izan daiteke.

Errealitatea

Iraganean egin dituen ekarpenez gain, une honetan ere euskal aldizkarigintzaren proiekturik garrantzitsuena da *Argia* euskaraz bizitzeko zerbitzua ematea eta hizkuntza nahiz herri honen garapena ditu helburu.

Ikuspegi enpresarialean aitzindari da, eta hainbat desafio markatu nahi ditu:

- Azpiegitura indartu.
- Lan komertzialean sakondu.
- Kostuak ondo administratu.
- Produktua hobetu, irakurleari zerbitzu ona eman: ildo horretatik kolorea erabat sartzeko apustuari heldera doaz.

Produktua eta langileen baldintza ekonomikoak hobetzeko beharra, ezintasunari lotuta ere badago. Zentzu honetan Administrazioari politika-aldaketa bat eskatzen dio: dirulaguntza indartzaileak, inbertsioetarako eta finkapenerako.

ALDIZKARI BEREZITUAK

Talde zabala eta askotarikoa da Euskal Herri mailako aldirikari berezituena. Halaber, finkapenaren, lan-baldintzen eta egoeraren aldetik ere alde handiak daude.

Dirulaguntzak

Erdia baino gutxiago laguntza publikotik jasotzera iristen dira. Hala ere, gastuak gora egiten duten bitartean, dirulaguntzak gelditu daude. Gakoa hemen ere da irauteko dirulaguntzak diru-erela. Ez duela betarik ematen hazteko, inbertsio ausartak egiteko. Askotan ez eta langileen egoera txukun samarrera iristeko ere.

Irakurleak

Irakurleen aldetik, belaunaldi berrietara iritsi ezinaren sententzia dago, eta sustapen-operazioak egiteko bitartekorik eza.

Harpidetza finkatuen bidez funtzionatzen da, kioskoetan sartzea oraingoz desafio zaila da. Gaztelarazko 100 produktu espezializatuenekin ez dago egoki lehiatzerik. % 10era ez da iristen kioskoetan saltzen dena.

Publizitatea

Talde honek publizitatean ez du bide handirik urratu. Sarrearen portzentaia oso txikia da publizitatea.

Errealitatea

Oro har, beren funtzio sozial bereziak betetzeko presentzia soziala areagotu beharra ikusten dute.

Kalitatea hobetu da, ahalegin handia egiten da, baina kontsumoa handitu ezinean dabilta. Irakurketa bultzatzeko bideak jarri behar dira. Sustapenerako bideak. Irakurle berriak sortu. Honek plangintza eta bitartekoak eskatzen ditu.

Plangintza kontsentsuatu baten beharra ikusten da, lehen-tasunak markatuz, dirulaguntzak errealitatera eta desafio-
tara egokituz.

HERRI- ETA ESKUALDE-ALDIZKARIAK

«Herri-aldizkari» kontzeptua akaso motz samar geratzen da errealitate hau izendatzeko. Izan ere, herri-aldizkariekin batera, eskualde zabaletan hedatzen diren aldizkariak ere hor bait ditugu: *Ttipi-ttapa-k*, adibidez, Nafarroako iparralde osoa harapatzen du, edo *Eraz-ek* Durangalde osoa.

Errealitate gazte bezain oparoa da, zalantzarik gabe, eta hau topikoen gainera. 43 aldizkari kontu litezke. Garrantzitsuenak, ordea, nahiko bide finkoa egin duten astekari, hamabostekari eta hilabetekarien multzoa da. Zortzi astekariren artean 33.000 aleko tirada osatzen dute, 100.000 irakurle inguru lortuz. Astekarioi hamabostekari eta hilabetekariak gehituz, 250.000 irakurle estimatzen dira.

Hala ere, errealitate oparo honek buztinezko hankak dituzten batzuetan. Ikusiko dugu aurrerago.

Egitura

Elkarte Mugatuak eta Kultur Elkartek dira, eta baten bat Fundazio bihurtzeko aukera aztertzen ere ari da, multimedia bultzatzeko.

Datu interesgarrietako bat, herrietako Euskara Elkarteekin duten lotura da. Herri-ekimenetik sortuak dira beraz gehienak, Udalarekin lotura zuzenik gabeak. Euskara Elkartearikiko

loturak formula desberdinak hartzen ditu: akzionista nagusizat izanez, bultzatzaile soila izanez baina funtzionamendu autonomoz, lotura organikoren batekin...

Lan-baldintzak

Alde handia dago beren artean, oro har denak baldintza kaskarretan badaude ere. Langile finkoak dituzte batzuk, eta beste muturrean gizarte-segurantzarik gabe nola-hala ko-bratzen ari direnak. Gehienek ezin dute lan-finkotasunik eskaini, eta honek herri-aldizkariak iraganbideko lantoki bihurtzen ditu, kalitatearen finkapenean negatiboki eraginez.

Dirulaguntzak

Jaurlaritza (edo Nafar Gobernu) eta Aldundietatik jasotakoaz gainera, Udaletatik jasotzen dute dirua. Hiru iturrietatik hartuz, beren aurrekontuen % 30-50 betetzen dute dirulaguntzekin.

Udaletakoak aparte utziz, Nafarroako Gobernuan geldi eta eskas daude dirulaguntzak. Jaurlaritzan ere murrizketa hot-sak entzuten dira, eta gainera diru gutxiago hori gero eta gehiagoren artean banatu behar da. Dirulaguntza-mota hau defizitari lotuegia dagoela aipatzen da, eta horrek optimizazioa gutxi inzentibatzen duela.

Irakurleak

Irakurleen gaian zentzu batean liderrak dira herri- eta eskualde-aldizkariak. Leku askotan, irakurle potentzialen xifratik (hau da, euskaldungo osotik) oso gertu daude irakurle errealak. % 80-90 inguruan Arrasaten eta Nafarroako Iparraldean. Honetarako hiru aspektu dira giltzarriak:

- Produktuaren doanekotasuna.
- Formularen hurbiltasuna.
- Maila horretako kompetentziarik eza, lidergoa.

Ez dugu, ordea, denean errealitate bera aurkitzen. Herri-aldizkariaren formularekin sortutako hiri-aldizkariak (*Irutxulo*) ez dute oraindik formula hirira egokitzen asmatu eta irakurle po-

tentzialen kopurutik urrun dabilta. Bitartekoen eta laguntzen eskasiaren beste aurpegi bat da: *Irutxulo*-k hasieratik milatik gora harpidagai zain dauzka, baina ezin du tirada hazi diru faltagatik. Beste hainbat herritan herri-informazioaren esparruan formula erdaldun edo elebidunak daude, eta horietan lan zailagoa dute gure herri-aldizkariak.

Banaketa

Askotariko formulak garatu ditu herri-aldizkarigintzak. Posta, buzoneo ordaindua, komertzioen bidezkoa, harpidetza ordaindua... Askotan formula desberdinen konbinaketa erabiltzen da.

Sustapena

Sustapenean herri mailako baliabideak erabiltzeko aukera dute: jaiak, kultur asteak, txoznak, inguruko ekitaldiekiko trukeak, herri mailako produktu osagarriak...

Publizitatea

Publizitatean ere bide-urratzaile dira herri-aldizkariak. Arlo hau gehiago mimatu eta serioago hartu beharra aipatzen da, izan ere, dirulaguntzekin batera, hau baita aurrekontuari eusten dion beste zutabea.

Publizitate txiki eta «laguntzailea» garrantzitsua da aldizkariaren lehen urteetan, baina finkatu ahala, publizitate mota hau jaisten hasi dela sumatzen dute. Hala, enpresa handietara jotzeko beharra aipatzen da. Bide hori urratzen hasia da.

Alde handia dago esparruko liderra izan edo ez izan. Herri-aldizkari askok beren esparruan gehien irakurtzen den produktua izatea lortzen dute eta horrek publizitaterako ateak irekitzen ditu. Hori lortzen ez dutenek zailtasun handiak dituzte. Banaketaren kopuruan dago gakoa.

Publizitatearen arloan elkarlanaren aukera azpimarratzen da behin eta berriz. Aldizkariak elkartzea lortuz gero eskaintza mamitsuak egin dakizkioke publizitate egileari.

Bestalde, publizitate elebidunaren formula auzitan dago, egokitasunaren eta eskain ditzakeen aukeren artean.

Errealitatea

Errealitate pozgarria da herri- eta eskualde-prentsa. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zuen jende asko jarri du hartan. Hizkera eta formula egokitu ditu. Produktua hobetuz doa eta irakurleen iritziz ona da, funtzionala. Akatsen artean, aseptikoe-gia, hutsalegia izatea leporatzen zaio, gai zailtan sartzeko bel-durra.

Hiri-aldizkarien formula egokiena oraindik aurkitu gabe dagoela dirudi.

Ekonomiaren justutasunean eta buru-belarri ibili behar direkin, norabideak ikusi eta apustuak egiteko ikuspegia galtzen ari dela aipatzen da. Ikuspegi horretan hainbat puntu landu behar dira:

- Enpresa-egitura eta enpresa-ikuspegia landu behar da. Buztinezko hankak baititu herri-prentsak. Dirulaguntzen iturria urritzen bada, nola lortu autofinantziaketa lantzea?
- Herri-ekimena lantzen segitzea da beste desafio bat.
- Elkarlan-aukerak lantzea da kontsigna izarra: publizitate-aukera oparoak sor ditzake batetik. Bestetik, horniketa, material eta horrelakoetan ere saia daiteke, eta inprenta bat elkarlanean sortzea aipatzen duenik ere bada.

DIAGNOSI ETA PROPOSAMEN AMANKOMUNAK

Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako hedadura eta lotura matentzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik, euskaraz bitzitzea posible egiten duen ezinbesteko elementua.

EGOERA

Irauteari begira jarrita daude energiari gehienak. Irautearekin eta produktua horretarako egokitze eta hobetzearekin asko egiten du euskal prentsak. Eta *iraun + ezinbesteko ho-*

bekuntza minimoak binomio hori gauzatzeko ere estuasunak ditu (adibidez, langileei lan-baldintza hobek eskaintzeko).

Pauso kualitatiboak emateko, azpiegitura indartzeko, gizarterako presentzia soziala benetan hazteko biderik ez du. Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezina. Izan litekeenera iritsi ezina.

LEHENTASUNAK

- Merkatua osatzeko pausoak eman behar dira. Irakurketa bultzatzeko modua eratu behar da. Irakurle berriak, batez ere gazte belaunaldiak euskal prentsara sartzeko. Honek sustapenean ahalegin handia eskatzen du.
- Euskal prentsaren Prestigiatze Plan bat jarri behar da martxan.
- Azpiegitura eta enpresa-ikuspegia indartu behar dira.

PRENTSAGILEEI DAGOKIEN ZEREGINAK

- Elkartzea, ikuspegia lantzeko, lehentasunak jarri eta estrategikotasuna aldarrikatzeko. Zentzu honetan, Jardunaldi hauetatik irtendako Lan Taldeak osatzea proposatzen da.
- Elkarlan-bideak urratzea da kontsigna nagusietakoa. Be-zeriki publizitatean enpresa handietara iristeko masa kritikoa-ren falta gakoa da. Elkarlanean masa kritiko handia lor liteke. Sustapenerako, horniketarako eta hainbat arlotarako ere elkarlana proposatzen da.
- Enpresa-ikuspegia lantzea, lan komertzialean energia gehiago jartzea.

ERAKUNDE PUBLIKOEI DAGOKIENA

Sektore honen garrantziaren araberako erantzuna ematea dagokie erakunde publikoei.

Orain arteko laguntza:

— eskasa izan da (horren erakusgarri dira prentsako lan-baldintzak, ikus-entzunezkoekin dagoen amildegia, eta inbertsiorik nahiz sustapenik egin ezina),

— uneoroko borontateari atxekia, gutxi arautua,

— hustiaketa-aren defizitaren zati bat estaltzera bideratua, beste arlo giltzarriak indartzera bideratu gabe.

Hiru aspektu negatibo horiek aldatu behar dira, aldaketa sakona eginez:

- Sektorearen garrantzi eta beharrei egokitutako laguntza.
- Laguntza arautua, jokuko erregelak finkatuta, optimizazioa bultzatuko duena.
- Azpiegitura indartzeko inbertsioetarako, sustapenerako, merkaturatzean laguntzeko laguntza ere bultzatu behar da, enpresak finkatu eta etorkizunean burujabeago izan daitezen.
- Publizitate-politika egokia, euskararen esparrurako publizitate instituzionala arautuko duena.

EUSKALDUNAK ETA EUSKARAZKO KULTUR KONTSUMOA

SIADECO

1996ko udaberrian, eta *Euskaldunon Egunkaria*-k eskaturik, egunkari honen inguruko merkatu-ikerketa zabal bat burutu zuen Siadeco ikerketa-taldeak Euskal Herrian zehar.

Unibertso bera oinarritzat harturik, AEK, Gabriel Aresti, Bilbo Zaharra, Hitzez, IKA, Ilazki, Maizpide, Ulibarri, Urrats eta Juan Mateo Zabala euskaltegiek eskaturik, helduen alfabetatzeari buruzko azterketa burutu zen.

Bi lan horietan, euskarazko kultur produktuen kontsumoari buruzko atal bat txertatu zen eta atal hori da hain zuzen ere, artikulu honetan jorratuko duguna.

UNIBERTSOA

Ikerketaren unibertsoa euskaldunak izan dira, alegia, euskaraz hitz egiten duten pertsonak. Badakigu ordea, maiz zail suertatzen dela mugak jartzea euskararen ezagupen-mailari dagokionez.

Inkestaren unibertsoa mugatzeko bi baldintza ezarri ziren. Biak bete behar ziren inkestari erantzun ahal izateko:

- Galdekizunari euskaraz erantzutea eta
- gutxienez, euskaraz ongi ulertu eta nekez hitz egiten zutela erantzutea.

Azterketen helburuak kontuan izanik, adina mugatu egin da, eta unibertsoa 20-39 urte bitarteko pertsonetara mugatu da.

Guztira: 211.630 euskaldun eta goimailako ia-euskaldun (nekez hitz egin eta ongi ulertzen dutenak).

Inkestaren konfidantza-maila % 95,5ekoa da eta erru marjinala % $\pm 3,6$ koa. Guztira 790 inkesta egin dira Euskal Herri osoan zehar. Azterketa honen unibertsoa eta datuen irakurketarako esparru geografikoa beraz, Euskal Herria da. Ez dago datuak herrialdeka irakurri ahal izateko behar adinako laginik. Herrialde bakoitzean egin beharreko inkesta-kopurua, bertako euskaldunen proportzioaren arabera finkatu da.

Datuak lortzeko erabili den metodoa, ibilbide-sistemarena izan da. Ausazko laginketaren bidez, udalerrri eta ibilbide batzuk aukeratu dira, inkestagile bakoitzak ibilbide bakoitzean 10 inkesta bete dituelarik, adin, sexu eta lan-egoera desberdinei zegozkien kuota batzuk errespetatuz.

ALFABETATU KONTZEPTUAREN INGURUAN

1991ko erroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarteko euskaldunen % 68 eta ia-euskaldunen % 64 alfabetatuak ziren, euskaldunen artean beren burua alfabetatugabetzat jotzen zutenak % 9 zirelarik.

Nafarroan datuak makurxeagoak dira: euskaldunen % 57 eta ia-euskaldunen % 39 alfabetatua eta euskaldunen % 16 alfabetatugabea.

Datu hauek nabarmen uzten dute «alfabetatu» kontzeptuaren anbiguotasuna:

- Alde batetik, harrigarria zaigu, horrenbeste euskaldun eta ia-euskaldun izatea euskaraz ongi irakurri eta idazteko gai.
- Bestetik ordea, ez da egia euskaldunen artean horrenbeste (% 9-16 artean) alfabetatugabe dagoenik (ez behintzat hitza gazteleraz edo frantsesez erabiltzen den zentzu berean); gaizki edo ondo, euskaldun horiek irakurtzen eta idazten bai baitakite.

Euskaraz eskolatu diren haur eta gazteak (baita euskara gai modura besterik izan ez dutenak ere), alfabetatutzat jo behar dira, inolako zalantzarik gabe. Haur eta gazte horiek euskaraz irakurri eta idatzi egiten dute, erabateko zuzentasun gramatikalez ez bada ere.

Badakigu bestalde, euskal gizartearen euskarazko alfabetatze-maila igo egin dela; beste gauza askoren artean, euskararen idatzizko presentzia publikoari eta komunikabideei esker. Euskaldunen artean (baita heldu eta zaharren artean ere), euskara irakurtzeko gaitasuna zabaldu eta zailtasunak murriztu egin dira (zenbat dira gaur egun «herria» idazteko esan eta hitz hori «h»rik gabe edo «r» kakotxdunarekin idatzizko luketen euskaldunak?).

Honekin guztiarekin zera esan nahi dugu:

- Euskaraz idatzi eta irakurtzeko gaitasuna nabarmen hedatu dela azken urteotan eta «alfabetatugabe integralik» ia ez dela geratzen Euskal Herrian.
- Gutxi direla hala ere, beren jarduera guztiak euskaraz (idatziz eta irakurriz) gara ditzaketen pertsonak.
- Eta beraz, neurria non jartzen den, alfabetatuen kopuruak asko alda daitezkeela.

Froga zuzenik egin ezean beraz, oso kontuz erabili beharko ditugu alfabetatze-mailari buruzko datuak, gertatzen baita

ezer gutxi dakienak, erdaraz alfabetatua delako euskaraz ere alfabetatua dela erantzutea, eta aitzitik, EGA titulua eskuratu duenak, oraindik ere asko ikasi behar duelakoan bere burua erdi-alfabetatutzat jotzea.

EUSKARAREN EZAGUPEN-MAILA

Inkesta erantzun dutenen artean honako mailaketa hau aurkitu dugu:

	<i>Hitz egin</i>	<i>Irakurri</i>	<i>Idatzi</i>
Ongi	83.3	79.0	66.2
Nekez	16.7	19.5	28.2
Batere ez	-	1.4	5.4
ED/EE	-	0.1	0.1

Beren burua euskalduntzat jo duten 20-39 urte bitarteko pertsonen artean, nahiz eta inkesta euskaraz erantzun, bada ongi hitz egitera iristen ez den % 17 bat. Hauek batez ere, ikasketa-prozesuaren azken mailatan daude, eta euskarazko kultur produktuen kontsumoaren aldetik duten garrantzi estratejikoak dela bide, sartu dira ikerketa honetan.

Taulan agertzen diren datuek ez dute zalantzarako biderik uzten: 20-39 urte bitarteko gazte-heldu euskaldun gehienak (hirutik bi) alfabetatuak dira.

Gaur egun euskaraz ongi hitz egiten dakiten 20-39 urteko euskaldunek, badakite euskaraz irakurtzen. Jauziak eta galerak ulertzetik hitz egitera eta irakurtzetik idaztera gertatzen dira.

Euskal Herrian gertatzen ari diren aldaketa soziolinguistikoan adibide modura aipa dezagun, inkestari euskaraz erantzun eta nekez hitz egiten dutela diotenen % 46.2k, euskaraz ongi irakurtzen duela esaten duela. Multzo hau berria da ikuspegi soziolinguistikotik, eta euskara irakaskuntza sisteman txertatu izanaren ondorio zuzena.

Euskaraz *ongi* hitz egiten duten inkestaren erantzunak bakarrik hartuta, portzentaia hauek lortzen ditugu:

- *Ongi irakurri*: % 85.6
- *Ongi idatzi*: % 75.1

Ezagupen-maila horiek zehazteko, galdera-galbahe bat aurkeztu zitzaizen inkestatuei, gutunak euskaraz irakurri eta idazteko zituzten zailtasunei buruz galdetuz (gutunak idazki-mota ezagunak eta sinple samarrak dira). Euskaraz ongi hitz egiten zutenen artean, % 65.7k batere zailtasunik ez zuela erantzun zuten.

Abiapuntuko galderan, ongi irakurtzen eta idazten duela aitortu duen % 75 hori beraz, % 66ra murriztuko litzaiguke, gutunena bezalako erreferentzia zehatza aurkezterakoan. Proporzioak murriztu egiten badira ere, gehiengoak ez duela arazorik aitortzen du.

Euskalkia vs. euskara batua ardatza ere aztertu da. Inkestatu gehienek (% 43) herriko euskalkia euskara batua baino hobeto menperatzen baldin badute ere, bestelako tipologia interesgarri hauek ere azaldu dira:

- Euskalkia eta batua era berean menperatzen dituztenak (% 16).
- Batuaz euskalkiaz baino errazago espresatzen direnak (% 20).
- Euskalkirik ez dakitenak (% 9).
- Euskara «nahasia» dutenak (% 10).

Tipologia hauek bi errealitate berri eskaintzen digute:

a) Euskararen normalizazio-prozesuak, jatorriz erdaldun zen pertsona asko erakarri du euskaldunen unibertsoa (unibertso honetan % 30 euskaldunberria da). Pertsona gazte-heldu horiek ikasketa-prozesu baten bitartez txertatu dira euskaldun-gora. Ikasketa prozesu horretan ordea, ez dira euskalkiaz baliatu, euskara batuaz baizik.

b) Familietan euskalkia ikasi duen jatorrizko euskaldun hainbatek gaur egun bere euskara «nahasitzat» jotzen du: berea ez omen da ez euskalkia, ez euskara batua, bien arteko nahasketa baizik.

Erantzunetan nabarmena da ikasketa kulturalaren eragina. Idazterakoan, ia bostetik hiru batuaz euskalkiaz baino hobere

to moldatzen den bitartean, % 16 besterik ez baita euskalkiaz batuaz baino hobeto idazten duena.

Errealitate bikoitz bat agerian geratzen zaigu: mintzamen-mailan euskalkia nagusitzen da eta idazmen-mailan berriz euskara batua.

EUSKARAZKO KULTUR PRODUKTUEN KONTSUMOA

Atal honetan artikulua den gai nagusia den euskarazko kultur produktuen kontsumoari helduko diogu.

Lehenik, produktu desberdinen kontsumo-mailari buruzko datuak eskainiko ditugu, ondoren, kontsumitzaileei buruzko hainbat datu eta hausnarketa azaltzeko.

LIBURUEN IRAKURKETA

Galdera: Eskolako lanekin zerikusirik ez duten zenbat liburu edo komiki irakurri dituzu aurten?

	Batere ez	5 baino gutxiago	5 edo gehiago
Euskaraz	36.2	45.6	18.2
Erdaraz	17.6	40.3	42.2

Oro har, ez dira bosten batera iristen batere libururik irakurtzen ez duten 20-39 urte bitarteko euskaldunak. Euskaldun gazte-heldu gehienek beraz, irakurtzen dute libururen bat urtean zehar.

Oro har, euskaldunek gehiago irakurtzen dute erdaraz euskaraz baino. Euskarazko batere libururik irakurtzen ez dutenak hirutik bat inguru dira. Datu honek ordea, errealitatearen aurpegi positiboagoa erakusten digu: euskaldunen bi herenek irakurtzen dute libururen bat euskaraz urtean zehar.

20-39 urte bitarteko ia bost euskaldunetatik batek bestalde, 5 liburu edo komiki baino gehiago irakurtzen ditu urtean euskaraz. Erdaraz liburu-kopuru hori irakurtzen dutenek bi-koiztu egiten dute proportzio hori.

Egoera hau modu argian laburbiltzeko honako hau esango genuke: 20-39 urte bitarteko euskaldunen artean euskaraz irakurtzeko ohitura zabala dela, baina orokorrean, oso noiz-behinkakoa.

MUSIKA-KONTSUMOA

Galdera: Disko edo zintarik eskuratu al duzu aurten?

	Batere ez	5 baino gutxiago	5 edo gehiago
Euskaraz	22.2	43.8	34.1
Erdaraz	28.9	40.1	31.0

Liburuekin gertatzen ez den bezala, musika-kontsumoan euskararen presentzia oso indartsua da. Irakurketaren aldean askoz ere kontsumitzaile-proporzio altuagoak aurkitzen ditugu disko eta kaseteen esparruan.

Datu hauen arabera gainera, gehixeago kontsumitzen da euskaraz erdaraz baino. Gaur egungo gazteen joera nagusiak ezagututa ordea, pentsa liteke erantzunetan erdara gaztelania eta frantsesarekin identifikatu dela, eta kasu gehienetan ingeleseko musikaren kontsumoa ez dela kontabilizatu.

Edonola ere, kontsumo-maila altu horiek musikak gaur egun duen garrantzi soziala agerian uzten dute berriro ere.

IRRATI-KONTSUMOA

Galdera: Astean zehar batezbeste, zenbat orduz entzuten duzu irratiak?

	Batere ez	5 baino gutxiago	5 edo gehiago
Euskaraz	18.1	47.0	34.9
Erdaraz	28.2	46.2	25.6

Euskaldunek irratiak batez ere euskaraz jasotzen dituzte. Bada multzo bat gainera, euskarazko irratiak entzun eta erdarazkoak entzuten ez dituenak. Esan beharra dago hala ere, irrati-kontsumoa oro har baxua dela: herena besterik ez da astean bost ordu baino gehiago entzuten duena.

Euskaldunen artean, heren batek du irrati-kontsumo altua (astean 5 ordu baino gehiago). Nabarmena da gainera, kontsumo altua duten euskaldunen artean batez ere euskarazko irratsaioak entzuten direla.

TELEBISTA-KONTSUMOA

Galdera: Batezbeste zenbat orduz ikusten duzu telebista egunero?

	Batere ez	2 baino gutxiago	2 edo gehiago
ETB-1	13.3	75.4	11.3
ETB-2	16.5	69.7	13.8
Besteak	10.6	73.2	16.2

Pentsa zitekeen bezala, telebista da gehien kontsumitzen den hedabidea. Euskaldungoak jarrera kontsumitzaile beretsuak ditu euskarazko eta erdarazko telebisten aurrean, kontsumo-maila paretsuekin.

Gutxi dira batere telebistarik ikusten ez dutenak (hamarren bat).

EUSKARAZKO ALDIZKARIEN IRAKURKETA-MAILA

Galdera: Euskarazko aldizkaririk erosten al duzu urtean zehar?

Ez	Urtean 1-3	Urtean 4 edo gehiago	Harpideduna naiz
61.9	18.0	9.4	10.8

Erdiak baino gutxiago dira euskarazko aldizkariren bat erosten duten 20-39 urte bitarteko euskaldunak (% 40). Urtean 1-3 erosten dituztenak % 18 dira, 4 edo gehiago erosten dituztenak % 10 eta euskarazko aldizkariren batera harpidetutakoak % 11.

Euskaldunek euskarazko aldizkari gutxi erosten dute orokorrean. Aldizkariak maiztasun minimo batez erosten dituzten artean berriz, gehiago dira harpidetza bidez eskuratzen dituztenak, zuzenean erosten dituztenak baino. Datu hauek, euskarazko aldizkariaren banaketa-sistemen, salmenta-kopuruaren eta egoeraren ispilu dira.

KULTUR-KONTSUMO DESBERDINEN ARTEKO ALDEA

Hurrengo taulan, aurreko ataletako kontsumo-maila desberdinak jaso, azterketan zehar *Euskaldunon Egunkaria*-ri buruz bildutako datuak erantsi eta kontsumorik ez duten pertsonen buruzko emaitzak jaso ditugu.

Aldizkaririk erosi ez	61.9	<i>Egunkaria</i> erosi ez	52.3
Libururik irakurri ez	36.2	<i>Egunkaria</i> irakurri ez	30.5
Diskorik eskuratu ez	22.2	Irratirik entzun ez	18.1
Telebista ikusi ez	13.3		

Taula honetatik atera litekeen emaitzarik nagusiena honako hau da: euskarazko kultur produktuen kontsumoak gora egingen duela, liburugintzatik ikus-entzunezkoetara zenbat eta gehiago hurbildu.

PRODUKTU IDATZIEN KONTSUMITZAILEEN TIPOLOGIA

EGUNKARIA-REN IRAKURLEAK ETA EZ IRAKURLEAK

Azterketan zehar jasotako emaitza desberdinak bilduz, eta euskarazko kultur produktuen kontsumitzaileen tipologiak osatze aldera, honako taula hauek osatu ditugu, aztergai dugun unibertsoa (ez ahaztu 20-39 urte bitarteko biztanleria dugula aztergai) bi multzotan banatuz:

- *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurleak: egunero edo ia-egunero irakurtzen dutenak.
- *Euskaldunon Egunkaria* noizean behin irakurtzen dutenak edo irakurtzen ez dutenak.

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN IRAKURLEAK			
	<i>Liburuak irakurri</i>		
	Batere ez	5 baino gutxiago	5 baino gehiago
Aldizkaririk ez	5.8	14.0	11.6
1-3 aldizkari	1.6	13.2	8.3
>4 edo harpide	0.8	16.6	28.1

Euskaldunon Egunkaria eguneroedo ia egunero irakurtzen dutenak % 15.3 dira (32.000 inguru 20-39 urte bitarteko pertsonen artean). Horien artean:

- Bi herenek (% 66.2) euskarazko libururik eta euskarazko aldizkaririk erosten du urtean zehar. Gune hau osatzen dutenak beraz, 21.000 pertsona inguru lirateke.

- % 28.1ek euskal irakurle gofinkoa osatzen du: 9.000 pertsonak egunero edo ia-egunero irakurtzen du *Euskaldunon Egunkaria*, 5 liburu edo gehiago euskaraz urtean zehar eta 4 aldizkari edo gehiago (edo bateren baten harpideduna da).

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN EZ IRAKURLEAK			
	<i>Liburuak irakurri</i>		
	Batere ez	5 baino gutxiago	5 baino gehiago
Aldizkaririk ez	32.7	29.9	4.8
1-3 aldizkari	5.5	8.4	3.2
>4 edo harpide	3.0	7.6	4.9

Euskaldunon Egunkaria eguneroedo ia egunero irakurtzen ez duten 20-39 urte bitarteko euskaldunen artean (% 84.7):

- Urtean zehar euskarazko libururik eta euskarazko aldizkaririk erosten dutenak, baina *Euskaldunon Egunkaria* irakurle finko ez direnak % 24.1 dira. Multzo hau osatzen dutenak beraz, 43.000 pertsona inguru lirateke.

- Urtean zehar euskarazko liburu eta aldizkarien erosle finko izan eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle finko ez direnak % 4.9 dira. 9.000 pertsona inguru (*Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle finkoen kopuruaren laurdena pasatxo).

GAZTEENEN JOERAK

Ikerketa 20-39 urtetako pertsonen artean burutu baldin bazen ere, garrantzitsua iruditu zitzaigun, gazteenen joeren inguruko datuak jasotzea (20-24 urtekoak).

20-24 urte bitarteko gazteek duten hizkuntz ezagupenari buruzko taula honako hau da:

	<i>Hitz egin</i>	<i>Irakurri</i>	<i>Idatzi</i>
Ongi	86.0	88.4	83.3
Nekez	14.0	10.2	14.4
Batere ez	-	1.4	2.3

Orokorrean baino emaitza hobek aurkezten dituzte. Ongi irakurri eta idazten dutenen arteko galera proportzionalki askoz ere txikiagoa da.

Gutunak euskaraz irakurri eta idazteko zailtasunik ez dutenak % 73.5 dira. Euskaraz ongi hitz egiten dutenen artean proportzio hauek % 82.1era igotzen dira.

Beren ikasketak eredu hauetan egin dituzte:

	%
A eredua	25.6
B eredua	7.0
D eredua	57.7
X eredua	8.4
Besterik	1.4

Gehiengoak eskolak euskaraz hartu dituen lehen belaunaldia da hau. Lehen aldia da beraz, euskararen historian, horrenbeste alfabetatu ditugula.

Euskarazko kultur kontsumoari buruzko emaitzak, orokorrean kontsumo ezari buruz bildu ditugunekin erkatuko ditugu.

	<i>Batezbeste</i>	<i>20-24 urte</i>
Aldizkaririk erosi ez	61.9	64.2
Egunkaria erosi ez	52.3	54.0
Libururik irakurri ez	36.2	32.6
Egunkaria irakurri ez	30.5	31.6
Diskorik eskuratu ez	22.2	21.9
Irratirik entzun ez	18.1	20.9
ETB-1 ikusi ez	13.3	12.6

Gazteek hizkuntz ezagupen-mailan aurrera egin baldin badute ere, eta batezbeste herritarrek baino zailtasun gutxiago badute ere euskaraz irakurri eta idazteko, ez dira oraindik behar bezala integratu euskarazko produktu idatzien kontsumora.

Joera orokor honetan, kontsumo-mailak ahuldu egiten dira aldizkari eta *Egunkaria*-ren salmentei eta irratien entzumenari dagokienez. Indartu egin dira berriz, liburuen irakurketari, diskoen entzuketei eta ETB-1en kontsumoari dagokionez.

PRODUKTU IDATZIEN KONTSUMITZAILEEN BANAKETA

Emaitza hauen guztien arabera honela sailka litezke azterketaren objektu izan diren euskaldunak.

- Gunea (% 4.3 = 9.000 pertsona inguru):
 - *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle finkoak.
 - Urtean 5 liburu baino gehiago irakurtzen dituzte.
 - Euskarazko aldizkarien erosle edo harpide.
- Gune periferikoa *Egunkaria*-ren inguruan (% 5.8):
 - *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle finkoak.
 - Urtean euskarazko libururen bat irakurtzen dute.
 - Euskarazko aldizkariren baten erosle edo harpide.
- *Egunkaria* gabeko gunea (% 4.2):
 - *Euskaldunon Egunkaria*-ren noizbehinkako irakurleak edo ez irakurleak.
 - Urtean 5 liburu baino gehiago irakurtzen dituzte.
 - Euskarazko aldizkarien erosle edo harpide.
- *Egunkaria* gabeko gune periferikoa (% 16.2):
 - *Euskaldunon Egunkaria*-ren noizbehinkako irakurleak edo ez irakurleak.
 - Urtean euskarazko libururen bat irakurtzen dute.
 - Euskarazko aldizkariren baten erosle edo harpide.
- *Egunkaria*-n zentratutako kontsumoa (% 5.2):
 - *Euskaldunon Egunkaria*-ren irakurle finkoak.
 - Edo urtean zehar ez dute euskarazko libururik irakurtzen edo ez dute euskarazko aldizkaririk erosten.
- *Egunkaria*-tik kanpoko kontsumoa (% 36.6):

— *Euskaldunon Egunkaria*-ren noizbehinkako irakurleak edo ez irakurleak.

— Edo urtean zehar ez dute euskarazko libururik irakurtzen edo ez dute euskarazko aldizkaririk erosten.

- Euskarazko produkzio idatziarekin inolako harremanik ez (% 27.7).

ONDORIOAK

- 20-39 urte bitarteko euskaldunek euskaraz irakurtzeko duten gaitasuna eta ahalmena altua da.

— Hala ere, erdaraz hobeto moldatzen dira.

— Euskaraz irakurtzeko erosotasun falta nabari zaie.

— Ahalmen hori ez dute erabiltzen; gutxi irakurtzen dute euskaraz.

— Erdararako inertziak, euskaraz irakurtzeko ahalmena ito egiten du («Beste egunkari bat irakurtzen ohituta nago» edo euskara-mailako zailtasunak aipatzen dira).

- Populazioaren segmento honen gehiengoak, eta batez ere irakaskuntza euskaraz jaso dutenek, ez dute arazo larririk euskarazko ekoizpen idatzia irakurtzeko; hainbat arrazoiren ondorioz ordea, erdarara jotzen dute.

- Euskal ekoizpen idatziaren kontsumitzaile finkeen gunea txikia da (liburuak, aldizkariak eta *Euskaldunon Egunkaria* irakurtzen dutenak); aztertzen ari garen populazioaren % 4.

- Euskarazko ekoizpen idatziaren kontsumo altu samarra egiten duen gune periferikoa eransten badiogu, euskarazko produktu desberdinen ohiko irakurleak 20-39 urte bitarteko euskaldunen % 14ra igoko lirateke. Aztertzen ari garen uni-bertsoan 30.000 irakurle fidel samarrak.

- Adin hauetako euskaldunen artean, laurdena pasatxok (% 28) ez du inongo harremanik euskarazko ekoizpenarekin: ez du ezertxo ere irakurtzen euskaraz. Beste % 37 batek berriz oso harreman txikia du edo produktu jakin batzuetara mugatutakoa.

- Heldu-gazte euskaldun gehienek badute harremanen bat euskarazko ekoizpen idatziarekin, baina gehiengo batentzat harreman hori ahula da; noizbehinkakoa.

- Irakurketa-maila aldetik *Egunkaria* liburuak baino gehiago irakurtzen da eta liburuak, aldizkari orokorrak baino gehiago (dena den, zehaztu beharra dago, «aldizkaritzat» jo ohi diren hainbat produktu hainbat jendek liburutzat jotzen dituela).

- Multzorik gazteena ez da behar bezala txertatu euskarazko ekoizpen idatziaren kontsumora.

- Euskarazko ekoizpen idatziaren inguruko sustapen indartsu eta ongi zuzenduaren hutsunea sumatzen da. Indartze honek euskarazko produkzio osoa indartuko luke; izan ere, gehien irakurtzen duen gunek, denetik kontsumitzen baitu.

- Bestalde, produktuen eduki eta formatoen dibertsifikazioaren eta egokitzapenaren beharra ere sumatzen da, gaur egun harrapatzen ez diren publikoak erakartzeko.

- Azken batean euskarazko ekoizpen idatzia gizarteratzeko mekanismoak indartu behar dira, eta eskaintzaren eta eskariaren arteko egokitasuna berraztertu.

- Datu hauek, datu kuantitatiboak dira batez ere, baina agerian uzten dute, azaldu diren hutsuneen inguruko irakurketa kualitatibo baten beharra.

HEDAPENA, SUSTAPENA ETA BESTELAKO... PENAK

IÑAKI URLA

Barre egiteko izena jarri diot egoera negargarri bat isladatzeko balio beharko lukeen hitzalditxo honi. Helburua ez baita honetan ari garenak behin eta berriz negarrez jardutea, egoera honetaz jabetu ez dena ohartaraztea eta bere iritzian eragitea baino.

HEDAPENA

Zabalkundeari gagozkiola esan dezakegun lehendabizikoa da euskal prentsa ez dela existitu ere egiten merkatuan. Ez dauka presentziarik merkatuan. Eta halaz eta guztiz ere euskal prentsak, txikia izan arren, badu merkatu bat.

Egunkaria kenduta, gainerako aldizkariak ez daude ez kiosko ez eta liburudendatan, salbuespenak salbuespen (*Argia* esaterako; baina hemen ere salbuespen gisa; % 10era ez baita iritsiko kioskoetan saltzen duena).

Harpidetza bidez saltzen dira edota doan banatzen dira. Hona hemen euskal prentsaren bi ezaugarri nagusi, eta ez txarrak.

Baina iritsiko gara horretara. Goazen ikustera nola funtzionatzen duen euskal prentsak merkatuan. Soluzio zaileko ideia simple batzuk aurkeztuko ditut.

Kioskoa, denda, espazio galduak dira euskararentzat?

Ehun aldizkari ezberdin inguru jartzen dira gaur egun kioskoetan salgai. Espainian. Frantzian seguruenik gehiago. In-
dar handia hartzen ari dira aldizkari espezializatuak, informazio orokorrekoak gainbehera datozen bitartean.

Egunkariak ere dozenatik gora aurkituko ditugu kiosko nagusietan.

Euskaldunon Egunkaria banatzen da kioskoetan baina bere presentzia txikia da gainerakoen artean, eta gainera, toki askotan ezkutuan izaten dute.

Honen guztiaren ondorioa garbia da: Euskal Prentsa ausente dago prentsa salmenta-puntuetan. Bere presentzia testimoniala da eta salmenta-puntuak merkatua osatzen duten neurrian euskara *out* dago prentsa-merkatutik.

Zergatik gertatzen da hau? Zergatik ez dira euskarazko aldizkariak kioskoetan saltzen? Baten batek erantzun dezake, harpidetza bidez saltzen direlako edota, herrietakoen kasuan, doan banatzen direlako. Egia da. Horiek dira oinarriak. Baina salmenta-puntuak hor baldin badaude, zergatik ez ditugu bertan jartzen euskal produktuak? Euskal Herri osoan 2.000 inguru puntutan posible bada *Egunkaria* saltzen jartzea, zergatik jartzen dugu 1.500etan bakarrik?

Erantzuna, pentsatuko zenuten bezala, ekonomikoa da. Oso garesti ateratzen dira banaketa, eta batez ere, itzulketak.

Itzulketak? Bai. Itzulketak! Doan banatzen duzuenok edota harpidetza hutsean zabiltzatenok ez zenuten askotan entzungo hitz hau, baina prentsa-alorrean hitzik gomotagarrienetakoda: deboluzioa.

Merkatu honek ez du funtzionatzen oilaskoarenak edota arropamnak bezala. Kioskeroak ez ditu erosten egunkariak. Kioskeroak ez du ezer arriskatzen. Saltzen ez dituen egunkariak bueltan itzuli eta saldutako bakoitzeko % 20-25a poltsikora. Promozioen kasuan % 25a. Adibidea jartzearren, Hiztegi Entziklopedikoaren faszikulo bakoitzeko 100 pezeta kaxara.

Egunkariak edota aldizkariak, aldiz, ezin du inprentara joan eta esan: «Ale hauek ez dira saldu! Saldu direnak bakarrik ordainduko dizkizut!». Horrela daude gauzak sektore honetan. Ez dakit seguru, ohituragatik, tradizioagatik edo zergatik. Baina ez dago erraza aldatzen!

Zein da gure arazoa? Gehiago salduta gehiago galtzen dugula!

Nola da posible!, galdetuko didazue. Oso erraz. Atera ditza-gun kontuak *Egunkaria*-rekin. 1.500 salmenta-puntutan 11.500 *Egunkaria* saltzen ditugu (azken OJDren arabera 12.200). Hau da, batezbeste ia hamar egunkari salmenta-puntuko. 2.000 puntutan salduz gero, garbi dago gehiago salduko genituzkeela. 500 puntu gehiagotan, saldu daitezke 200 gehiago... Eman dezagun 500 gehiago saltzen direla. Baina 500 gehiago saltzeko 5.000 gehiago ekoiztu behar badira... Papera, tintak, inpresioa... Esango didazue! Egunero dirua galtzen! Normalean galtzen dugunaz gain alegia!

Kontua da ekonomikoki desastrea dela, baina kulturalki oso garrantzizkoa dela 500 erosle gehiago erakartzea euskal prentsaren irakurketara.

Baina, nork erantzungo dio galera horri?

Horretarako laguntzarik ezean ez da harritzekoa aldizkariak, eta *Egunkaria*-k berak ere harpidetzaren bidetari eustea eta berriz jorratzea.

Hori bai, presentzian galtzen dugu, eta egon beharreko salmenta-lekuetan ez gaude.

Zer gertatzen da horrela? Euskaltzale fidelak direla gure erosleak eta euskaldun arruntak, «periodikua leituz ilustratzen den horrek», tentaziorik ere ez duela izango euskal prentsa irakurtzeko: ez baitu ikusi ere egingo; ez du aurkituko.

Kioskoetara iristen ez garelako, edota iristen garenetan gure produktuak ezkutuan jartzen dituztelako, euskaldunak, euskaldun irakurle potentzialak, ez du gure produkturik aurkituko.

Euskal prentsa errezabalkundeak merkatu normaletik kanpo funtzionatzen du. Klandestino da, nolabait esatearren. Ezkutukoa.

Hipermerkatu handitik kanpora gaude. Ez gaude estanteria politetan. Baten batzuk, justu-justu, *paisen* alfonbran jartzen ditugu gure produktuak salgai atarian, edo doan eramaten ditugu etxeetara.

Azken batean ez daude bi merkatu, erdarazkoa eta euskarazkoa. Merkatu bakarra dago, eta honek euskararen kaltetan funtzionatzen du.

Merkatu bakar horretan euskarazko prentsa idatziak baino askoz ere zabalkunde handiagoa eta hobeagoa duten produktu askoz ere hobeagoekin lehiatu behar dugu, gehienetan, gure produktu kaskarrak —barkatuko didazue sinzeritatea, baina ez dut uste inoren autoestima minduko dudarik honekin— ekoiztea defizitariora denean.

Handiak eta indartsuak dira gure lehiakideak. Baina lehiatu beharrean gara. Merkatu horretan sartu egin behar dugu. Gure produktuak sartu... eta eskua ere bai. Eskua sartu beharra dago Hego Euskal Herriko komunikabideen merkatuan. Merkatu librearen izenean euskarak ezin du desagertu. Eta babes neurriak hartzen ez badira, handiak eta azkar, alfer alferrikakoak izango dira ikastolatan eta euskalduntzean egindako esfortzuak.

Modu askotara eta atal askotan babes daitezke euskal produktuak merkatu horretan.

Horietako bat dugu zabalkundearena. Lehen aipatu dut gehiago salduko genituzkeela gure produktuak salmenta-puntu gehiagotan jarriz gero, baina diru-galera hori... nork ordainduko du? Langabeziara joan behar duten euskal unibertsitarioen karrerak denon artean pagatzea asumituta dagoen bezala sozialki eta politikoki, produzioa subentzionatzea —orain arte— asumituta dagoen moduan, zabalkundea ere lagundu egin beharko litzateke Erakunde Publikoetatik.

Badakit diskurtso ofiziala bestelakoa dela. Gaur egun gauza bakarra entzuten dugula Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernutik: dirurik ez dago, ezin da dena diru publikotik zintzilikatu... Baina karretera kilometro batek balio duenarekin, edota bi orkestra mantentzeak balio duenarekin, edota Guggenheim erraldoi horrek balio duenaren ondoan... egunen batean erabaki beharko dugu zer den garrantzitsuago. Bibolinak, asfaltoa, kuadro abstraktuak... ala euskarazko aldizkariak, egunkariak eta euskara.

Euskal prentsaren merkatua laguntzeko egin daitekeen beste gauza garrantzitsua, sustapena laguntzea da.

SUSTAPENA

Gaur egun merkatuak funtzionatzen duen moduan ez gara gai gure produktuak behar bezala merkaturatzeko. Horrela gertatzen zaigu aurreko hitzotan iradokitakoa: euskal produktuen kontsumitzailea ez da normala. Kike Amonarrizek esan digu: oso fidela da. Fidela da, bilatzailea da, militantea da eta ikertzailea da. Jarrera aktibo bat dauka. Bilatu egin behar du euskal produktua.

DV, Sud-Ouest, Hola edo *Interviu*, toki guztietan agertzen zaizkigu. Kiosko eta denda guztietan dauzkagu. Eta horietan gutxi balitz, tabernan, ile-apaindegian, dentistaenean, etxean... Presente daude une oro. Baina horrezaz gain etengabe ari dira

erren produktuak sustatzen. Telebistan eta irratan etengabe iragartzen dizkigute *DV*, *El Correo*, *El País* edo *El Mundo*. Ikusi aurretik badakigu zer promozio berri eskainiko diguten edota hurrengo egunean zer notizia garrantzitsu eskainiko diguten.

Komunikazioaren indarra, mezuan, berritasunean, eta ikusgarritasunean badagoen arren, areago baitago errepikapenean eta hedapenean.

Eta gure mezubideak gero eta gehiago dira Aralarko ardi, behor eta behiek dauzkaten zintzarriak. Euskaldungoaren erdiak entzun ere ez ditu egiten zintzarri hauek. Bestelako kanpai hotsen baltsean dabil. Hiztegi Entziklopedikoaren kanpainak erakutsi digu ETB-1, ETB-2, irratiak, etabar erabili arren euskaldungoaren erdiak ere ez duela izan kanpainaren berri. Eta normala da. ETB euskal gizartearen % 30era baino ez da iristen bere bi kateekin eta Euskadi Irratiak entzuleen % 6,5 baino ez ditu harrapatzen.

Ohartuko zineten, sustapenez ari naizenean, produktu bat saltzeko orduan horren zabalkunderako egiten den publizitateaz ari naizela une honetan. Beste zentzu batean ere erabiltzen da hitz hori: promozio, edota zabaltzen den produktuarekin batera eskaintzen den beste produktu gehigarri interesgarri bati buruz aritzerakoan ere esaten dugu sustapena. Baina ondoren ikusiko dugu hau.

Lehendabiziko honetan, esaten ari gara euskarazko produktuek oro har, eta euskal prentsak, gureari dagokionez, apenas egiten duela sustapenik... eta ezinezko duela gainera egitea. Nork gasta ditzake telebista-kanpaina batek balio dituen milioiak? Nork iragarri ditzake bere aldizkariak *DV* edo *El Correo*-n? Badakigu informazio-aldetik zer tratamendu kaskarra eskaintzen dioten euskarari. Publizitate bidez ez bada nola sartu komunikabide masibo horietan?

Euskarazko kultur produktuak ekoizten ditugun enpresak ahulegiak gara publizitate eta sustapen-kostuak produktuaren salneurrian kontuan hartzeko. Garestiegi aterako litzaizkiguke produktuak. Ezingo genituzke era konpetigarri batean jarri merkatuan.

Eta ez dago inolako laguntzarik merkaturatzeko daukagun arazo honi aurre egiteko. Erdarazko produktuekin konpetitu behar dugu, eta ez da laguntzen euskarazko produktuen merkaturatzean. Diskoa, liburua, aldizkaria... egitea bera defizitarioa bada, nola gastatu dirua publizitatean? Eta inbertsio publizitariorik egin gabe... nola saldu gure produktuak merkatuan?

Hona hemen lehenbailehen eten beharreko katea eroa.

Nondik hasi? Elkarlanetik esango nuke. Hasita gauden bi-detik. Gure arteko trukeak oso garrantzizkoak dira. Herri-aldizkariak eta *Egunkaria*, ETB eta *Egunkaria*, zenbait egunkari eta *Egunkaria*... hasi gara pittin batean merkatuan muturra sartzen. Baina ez da nahikoa.

Ezagutza eta irakurketa bultzatzeko kanpainak behar dira. Guk antolatuak eta diru publikoz lagundutakoak. Programa zehatzak diseinatu eta martxan jarri behar dira. Lehenbailehen gainera.

Eta bukatzeko, promozioari buruz, bi hitz. Iaz hasi ginen *Egunkaria*-n eta esan dezakegu esperientzia positiboa gertatu zaigula. Baina bi konstatazio:

- Erosleak egun horretan etortzen dira. Ez dira hurrengoan geratzen.
- Oso kontuz ibili beharra dago hanka ez sartu eta galera handirik ez egiteko.

EUSKAL KAZETARIAREN PROFILA

LUIS FERNANDEZ

Euskara hutsezko komunikabideetan, nik prentsa idatzizko kazetariaren inguruko hiruzpalau gauza esan behar ditut¹. Kazetagintzan oso desberdina da prentsa idatzia, irratia eta telebista, eta arlo bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Kazetari batzuek demostratu dute batean edo bestean aritzeko gai direla, baina ez da nire kasua, eta hortaz, nahita ere ezingo nuke beste irrati edo telebistako kazetarien profilaz hitz egin. Hala ere, ez zen hori gaia, prentsa idatzia da gaia, eta horretan zentratuko naiz.

Euskal kazetariaren profila jarri diogu izenburu, baina berdin izan zitekeen *Euskal kazetariaren pernila*. Egia esan, negar egitera nator ni hona, kazetarion negarrak kontatzera na-

tor, eta hitzalditxoan hiru alorretan bildu ditut negar-sotinak: kazetariak bizi dugun presio ekonomiko, profesional eta politikoaz mintzatuko naiz. Amaitzeko, kazetari euskaldunen artean elkartzeko aukeraz ere labur mintzatuko naiz.

Eta zer gara euskarazko prentsako kazetariak?

Gazte-koadrila bat, hori da lehen lehenik sortzen den definizioa.

Oso jende gaztea, ikasten geundela hasi ginen guztiok praktikan edo lanean. Eta orain hasten direnak ere ikasten hasten dira. Uste dut karrera amaitu eta inolako praktikarik ez duen kazetariak iluna duela etorkizuna...

Pentsa ze gazte garen ze, ni neu ere beterano izatekotan nago, eta 29 urte ditut, eta esperientzia, zer esango dizuet, bospasei urte, ez gehiago. Beterania oso merke dago gure artean.

Jende gaztea, beraz, eta hortaz, dirurik behar ez duena, nonbait. Akaso horregatik kobratzen dugu kobratzen duguna... Bizi dugun presio ekonomiko honetaz mintzatuko naiz jarraian.

PRESIO EKONOMIKOA

Gu 100.000 pezeta kobratzen duen gizarajo-banda bat gara. EITBko soldatak, geurearen aldean, tira, inbidiarako modukoak dira... eta Administrazioiko edozein funtzionarioenak ere bai.

Hala ere ez dut esan nahi komunikabide guztietan gu baino hobeto daudenik. Egin-en edo Herri Irratian ez da soldata handirik izaten, adibidez, eta beste medio batzuetan ere kolaboratzaile gisa ari direnak ez dabilta diruz oso ondo.

Eta, bueno, badakigu zergatik kobratzen dugun hori, gure enpresen izaera beragatik. Eta gazte garen artean, ba, bizitzen gara horrela, ezta? Karrera amaitu eta gero estudiante pisuetan bizi da *Egunkariako* langile mordo bat... Hala ere, batzuk

beterano bihurtuz goaz, eta tira, *Egunkaria*-n eta, batzuk familia egiten hasi dira, eta egin kasu: pobrezia ren muga-mugan dauden familiak dira halakoak, ez bada ezkontide edo ohekideak beste postu ez-militante bat duela... Nik alde honetatik problemak ikusten ditut, etorkizun hurbil batera, gazteok nagusi egiten ari garen heinean, gure irabaziak orain direna baino gutxiago izango direla. Zergatik? Orain gazte gara eta ikasle-pisu batean gazte-bizitza egiteko bale, baina pisu bat ordaintzen hasi eta familia bat egiteko, ez, ez gaude minimoetan.

Eta hori da beteranoen egoera. Alegia, jada postutxo bat lortu dugunona, ze hurrengo kazetari-belaunaldiak ilunago du oraindik. Zergatik?

Bota dezagun bista apur bat atzera eta ikusiko dugu, euskarazko komunikabideen sorkuntza-urteak bizi izan ditugula. Baina sorkuntza-garaia amaitu da. EITB eraiki zuten. *Egunkaria* sortu zen eta mordo bat sartu ginen. Herri-aldizkariak ere sortu dira zenbait (eta hor sortuko dira beste batzuk baina Arrasaten ez da besterik sortuko, adibidez). Ondorioa: oraingo postu-aukerak oso murrizak dira...

Dagoeneko euskal komunikabideetan eta erdal komunikabideetan parekatuta daude sartzeko zailtasunak, nire ustez. Hala ere, Fakultateko erdarazko adarrean oraindik errezeloa dute: «Jo, zuek, euskarakook erraza daukazue».

Lanpostu-aukera murritzez mintzatu naiz, ze lan-aukerak badaude. Kolaborazio-lana geratzen da, eta horren prekaritate nolakoa den badakigu.

BEKADUNAK ETA KOLABORATZAILEAK

Ipar-Hegoa elkarteak eta Kazetaritza Sailak antolatuta egon zen mahaingurutxo bat Leioan duela hiru bat aste². Sindikatuetako ordezkariek izan ziren, eta denek salatu zuten lanaren prekarietatea. Prekaritate horren azken muturrean bekadunak daude, eta horren hurrengo kolaboratzaileak dira.

Bekadunen kontuan, *Egunkaria*-k badu honetan esperientzia eta jarraipena, eta onartu beharra dago baldintzak

beste toki batzuetan baino txukunagoak direla. EITBn bekadunak ez du soldata, baizik eta konpentsazio bat gastuetarako, segun eta nondik mugitu behar den, 10.000-30.000 pezeta bitartekoa. Euskal Herriko beste egunkariren batek badu beste figura bat: *masterra*, eta hor zuk ordaintzen duzu esplo-tatu zaitzaten (unibertsitatearen oniritziak, jakina). *Egunkaria*n 50.000 pezeta kobratzen dira, baina ordutegia ere okerragoa izango da seguruenik.

Bekadunak izatearen helburua ez da, noski, jendeari prestat-kuntza bat ematea altruismoz edo borondate pedagogikoz. Helburua da zuloak estaltzea. Oporrek eragiten dituzten zuloak, nagusiki, baina baita ere kontratazio bidez kubritu nahi ez direnak (edo ezin direnak) estaltzea.

Kazetariok bekarioak nahi ditugu, eta exigitzen ditugu; bes-tela guk ez dugu oporrik. Hau da, bekadunak udan egoten dira, baina gero askok segitzen dute larunbateko ordezkapenak egiten edo lan puntualetan... Dirutan neurtu dezazuen larunba-ta 4.500 pezetan pagatzen da, eta sustituzio jarraiak badira, hor jada kontratu arrunta egiten da.

Bekadunak badaki bera zuloak estaltzeko dagoela hor. Ba-daki non ari den, eta ez da diruaz kexatzen, normalean. Kiro l-tasunez onartzen du egoera, gutxi gora-behera gainerako kaze-tariok onartzen dugun bezala. Eta gainera, nik uste dut gehie-nak gustora aritzen direla. 4. mailatik aurrera, ikasle guztiak daude praktiketarako gogoz fakultatean. Ofizioa han ez dute-la ikasi konturatu dira horrezkero Uda bat erredakzioan pasa-tzea karrerako lau urte baino gehiago ikasten dela uste du be-kadun izandako askok.

Diru-eskasiak ez die asko ardura bekadunei. Jendea esplo-tatu egiten duten kontzientzia badute ikasleek Fakultatean, baina hala ere eskatu egiten dituzte praktikak (gorago aipatu-tako *masterretan* eta jendea apuntatzen da, pagatuta...). Asko-rentzat, gainera, ingresorik ez izatetik apur bat izatera, salto han-dia da. 50.000 pezeta horiek dirua iruditzen zaie bekadunei.

Kolaboratzaile-figura oso desberdina da herri-aldizkarie-tan. Erredakzioak beste neurri bat du, baina txiki izan arren

ere, kolaboratzaileak ez du lotura erredakzioarekin egunkari batean bezala. Gauzak eramaten ditu eta listo, ordenadoreekin kontaktua eta izan dezake, kasu batzuetan, baina ez beste toki batzuetan bezainbestekoa. Kolaboratzaile hauek oso gazte hasten dira, 4. maila baino lehenago eta, herri-ekimen batean parte hartzen dutenez, beste inplikazio batzuk ditu horrek. Lan-praktika gisa balio gutxixeago duela uste dut, tamalez.

PRESIO PROFESIONALA

Praktiketarako gogo horrek, nere ustez, kontraste egiten du kazetariak auto-prestakuntzarako duten ilusio eskasarekin. Kanean zenbat egunkariarekin? Fakultatean berdintsu... Hori absurda da, ze ez duzu jakingo albisterik egiten, albisteen, aktualitatearen jarraipena egin gabe. Honekin, presio profesionalaz mintzatzen hasiko naiz, edo hobe esanda, nik ikusten dudana presio faltaz, profesionaltasunerako joera ezaz. Zehaztu behar dut hau oso ikuspuntu pertsonala dela.

Prestakuntza teknologikoaren aldetik, ez dakit nolako ardura duten ikasleek, baina nik uste dut oso garrantzitsua dela eta ez dela serio hartzen. Fakultatean 10 ordu *word* eta *quark* ematen dizkizute³, eta horrekin ez zoaz inora.

Ondorioz, jendea oso berde dator praktiketara. Baina hala ere, praktiketan jarduten duten askok dute aukera gero lan egiteko (kolaboratzaile gisa, batez ere, ze kontratatzeko denboraldi handia amaitu zen, esan dugu gorago). Norik egiten dute lan, bada? Onenek edo. Inpresioa eragiten dutenek, ez idazle brillanteenak, baizik eta belozidatean, disponibilitatean zerbait erakusten dutenek. Horrela destakatzen denak badu lanerako aukeraren bat. Adibidez, iazko uztailaren 1ean lanean hasi zen bekadunetako batek zortzi egun jai izan ditu segidan ordudanik eta aurtengo uda ere lanean arituko da.

Esan dut jendea berde datorrela praktiketara. Baina, oro har, euskarazko kazetariak nahiko berde gaude gauza askotan.

Presio profesionala aipatu dut, eta uste dut ez dagoela. Ez dagoela eskakizun profesional zehatzik gure medioetan. Gaude-nak gaude, ahal duguna egiten dugu ahal dugun moduan, eta aurrera. Uste dut egiten dugunak baduela meritua, baina...

EUSKARA MAILA

Gabezia profesionalak aipatzen hasteko, euskararen maila datorkigu burura. Euskara-maila ez da oso brillantea euskal kazetarien artean, eta honen inguruko kexuak aski ezagunak dira.

Akats ortografikoetatik hasita (alde horretatik egon daitezke justifikatutako akatsak, cf. pake-bake), eta hortik aurrera, dena: joskera eta lexiko aldetik eskasia, hizkuntzaren ezagupen nahikoa justua, *klix*e eta molde batzuen errepikapena behin ikasitakoan (*klix*e onak batzuk, eta beste batzuk txarrak), eta itzulpena egiteko orduan, hiztegiak eta erreferentzialanak erabiltzeko oso joera gutxi.

Nork du errua? «*Hezkuntza sistemak ez du bermatzen unibertsitateira hiru akats gramatikal egingo ez duen gazteak iristea*», zioen Jon Sarasuak elkarrizketa batean duela gutxi⁴. Hala ere, unibertsitateak ezin ditu hori dela-eta eskuak garbitu, eta prestakuntza hobetu beharko luke nabarmen, euskararen alorrean, bereziki, eta beste hainbatetan.

MOTIBAZIOA

Eta prestakuntzaren alderdi periodistikoagoan zer dugu? Prentsaurrekoetara joaten gara, bai, baina ezer gutxi gehiago, horrela gabiltza...

Oro har, profesionaltasuna ez da balio pertsonaltzat hartzen gure ofizioan, iruditzen zait. Motibazio handirik ez dut igartzen jendearen artean, eta askotan, jendeak idazten ditu artikulak zine-txarteldegian txartelak saltzen dituenaren bizitasun berarekin. Hau ezin da hala izan: nire ustez lan honek pasio apur bat eskatzen du, eta ez dut pasio hori ikusten.

Gainera, espero zitekeen pasio eta grina hori gazteengan igarri beharko zela, beste inorengan baino gehiago, baina kale. Kazetari-belaunaldi berrian, gazteenek jubilatuta nekatuak balira bezala idazten dute sarri: piperrik gabe, ilusiorik gabe. Oso jende *soso* ikusten dut, oro har. Benetan, gauden bezala, eskertuko nuke *amarillismorako* joera gehiago gazteen artean.

Nik ikusten dudana profesionaltasunerako motibazio falta hau ez da, seguruenik, jendearen erru soila. Ez ditut kulpan- te bakarrak kazetariak egin nahi (presio ekonomikoak eta politikoak zerikusia izango du motibazioan), baina badago beste faktore bat.

Pello Urzelai kazetariak baditu honi buruzko oso ideia interesgarri batzuk: bere ideia da komunikabideek, gure enpresek, ez dutela inbertitu alor periodistikoan, informazioa lantzeari ez zaiola garrantzirik eman medioetan⁵.

Nik ere badut errezelo hori. Komunikazio-enpresa bat garen kontzientzia falta dela. Euskararen aldeko ekimen bat garelako ezer baino gehiago. Eta bagara, baina euskararen alde zer egingen? Informatzen, ezta? Beste batzuetan badirudi dirua biltzeko inizatibak (jaiak eta horrela) antolatzeko enpresa bat garelako. Eta hori ere bagara, ze bestela ez daukagu dirurik, baina zertarako biltzen dugu diru hori? Informazio-proiektu baterako, ezta?

PRESIO POLITIKOAK

Bizi ditugun presio politikoak ere aipatu behar dira, nola ez. Hiru alorreko presioak sailkatu ditut lan honetarako, eta hone-lata bataiatu ditut neuk: neutraltasunaren presioa, medioarena eta hurbiltasunarena.

NEUTRALTASUNAREN PRESIOA

O reka politiko nahitaezko batean mugitzera behartuta daude prentsako euskal kazetariak.

Jarrera neutroago hau objetiboagoa ote da ezker abertzalera edo bloke demokratikora lerratuagoak dauden kazetariekin alderatuta? Uste dut baietz, neutraltasun hori gure aldeko puntu garrantzitsua dela. Batzuetan neutraltasuna epelkeria izan daiteke, baina ez dut uste eztabaidatzeko jarrera denik euskarazko medioetan gaur egunean, eta uste dut, oro har, kazetariak joera ideologiko hau onartzen dutela.

MEDIOAREN PRESIOA

Presio hau azpimarratu behar da. Euskarazko medio batean dagoen kazetaria moldatzen da bere medioaren ideologiara beste edozein kazetari bezala. *Diario Vasco*-n dabilena *Diario Vasco*-ko lerrora moldatzen da, *Egin*-en dabilena *Egineko* lerrora, eta herri-aldizkari batean dabilena, aldizkariaren lerrora. Nahi baduzue ez da izango lerro politikoki hain markatua, baina ideologia markatu bat denek dute, eta oro har, euskarazko medio hauek euskaltzale-abertzaleak dira ideologiaz.

Norbaitek pentsatuko du euskarazko komunikabideetan ez dabilela langile ez abertzalerik. Baina ibiliko da, bai, ondo disimulatuta bada ere.

HURBILTASUNAREN PRESIOA

Euskarazko medio hauetan badago kazetarien gaineko beste presio politiko bat: hurbiltasunaren presioa deitzen diot nik. Euskararen munduan gabiltza eta, badirudi beraz, euskararen inguruko edozein ekimen gure laguna dela nahitanahiez. Euskaltegiak zera antolatzen du, eta ez badiozu kasu handirik egiten (ez duelako interesik), haserretu egiten zaizkizu eta deitu egiten dizute: «Aizue, nola egin diguzue zuek hau guri? Nork eta zuek!».

Herriko medio batean presio hau handiagoa da, herriko edozein dendarik edo taldek egingo dizkizulako halako demandak. Istripu bat gertatu da denda baten aurrean, eraman dute zauritua baina odola geratu da espaloian eta argazkia egin duzu, denda ikusten da eta dendariak sekulako *filipika* botat-

zen dizu (eta publizitatekoak ere bai ze igual modulo batzuk galduko ditu)... Adibide hau erridikulu samarra iruditu zaizue baina gauza hauek nik ikusi ditut.

Gainera, jendea lagun bezala etortzen zaizu, eta hori nahiko txarra iruditzen zait. Artikuluak berrikusteko orduan, batzuetan enpresa bateko buruak eskatzen dizu eta uzten diozu halabeharrez; baina euskaltegi batetik lagun bezala eskatzen dizute elkarrizketa berrikusteko, eta horrek ni asko haserretzen nau, esperientziaz dakidalako ondorio penagarriak dituela jokabide horrek.

Hurbiltasunaren presioa herri-aldizkarietan bereziki sentitzen da. Udalaren aldetik batez ere, baina beste instituzio batzuek ere egin dezakete, esate baterako, ikastolek. Normala izaten da adibidez, Clouseau zinegotziaren kasua. Nor da Clouseau zinegotzia? Pertsonaia nefastoa, beti luparekin dabilena, dena begiratzen, eta beti ibili behar duzu pentsatzen ea ez ote zaizun haserretuko. Kurioa da, gainera, pertsona jatorra izaten dela Clouseau zinegotzia, agian udalean aldizkariak duen lagunik minena, arreta gehiena jartzen duena aldizkariaren gora-beheretan eta horrela. Zenbait udalek Clouseau bat baino gehiago ere badute, alderdi bakoitzeko bana edo.

Hurbiltasunaren presio hau arazoa da medioarentzat, oreka politiko eta ekonomikoetara behartuta daudelako, baina bereziki da latza eta mingarria kazetariarentzat. Presio honekin kazetariak gaizki pasatzen dute. Hala ere, medioak, bere hartan, presiobide hau ontzat ematen duela uste dut. Kasu hauek —iruditzen zait— medioak errazago justifikatzen du ikastolaren jarrera edo Clouseau zinegotziaren kexua kazetariaren ikuspuntua baino.

KAZETARIAK ELKARTU?

Orain artekoa, arazo-sorta baten deskripzioa izan da. Eta horra galdera: arazo hauen aurrean, elkartu?

Duela sei urte, egon zen euskarazko kazetariak elkartzeko saio bat. Eta sortu zen, elkarte hori, Euskaldun Kazetarien Elkarte (EKE) sortua da, eta ez du inork desegin, nik dakidala. Baina, ez dakit, hilik jaio zela dirudi.

Estatutu batzuk zituen elkarte horrek eta helburuen artean, puntu interesgarriak agertzen dira. Helburu sorta bat markatzen zen estatutuetan, eta ados egoteko modukoak dira⁶:

- Kazetaritzako hizkuntza aztertzea eta lantzea.
- Kazetarion gora-beherez ardura hartzea, bereziki euskara edozein jardun publikotan erabil ahal izateko arreta biziz saiatzea.
- Kazetari berrien kontratazioan euskaldunen kopurua gero eta handiagoa izatearren presionatzea.
- Komunikabide guztietan ehuneko zenbateko batetik euskararen presentzia jaitsi ez dadin exigitzea.
- Euskal kazetariak berenezkoa duten eremua osatzeko hain nabarmenak diren hutsuneak (egunkaria, agentzia eta abar) betetzen ahalegintzea.

Beste punturen batean, estatutuak oso gustoko ez dudatan atalen bat ere badakar.

- Elkarte honen ekintzak, honako lurralde eremu honetan gauzatu dira: Euskal Herrian orokorki eta bereziki Euskal Elkarte Autonomoan.

Mugatze hori ez zait egokia iruditzen⁷. Nolanahi ere, EKE ez da bizi gaur egun, eta ez dakit berpiztuko den. Berriz fundatu beharko dugu? Hori berriz sortzeak balioko du? Helburu horiekin ados egongo gara, baina guri dagokiguna ondo neurtu behar dugu. Helburuetara begiratuta, euskararen sustatzeari dagozkio helburuotako batzuk, baina benetan kazetarien lana ote da hori?

Elkartzekotan, helburuak neurtu egin behar dira, sakon eta egoki. Ikusi benetan zer lor daitekeen, eta helburu praktikotara jo. Horrek ausnarketa sakona eskatzen du alde zuzenetik.

Gainera, pentsatu beharko da ea kazetari elkarte batek, EKE-ren helburu-zerrendan zuzenki aipatzen ez den alorrak ukitu behar ote dituen. Alegia: egoera ekonomikoa eta presio politikoak.

Egoera ekonomikoari buruz, esana dut kiroltasunez, espiritu olinpikoz, jasotzen ditugula gure soldatak, baina horrek ez du esan nahi errebindikaziorako espaziorik ez zaigunik geratu behar kazetarioi. Honen harira esan beharra dago sindikatuek oso erakarpen gutxi dutela kazetarien artean. Afiliaturren bat edo beste ba omen dago *Egunkaria*-n, baina sindikatuen ordezkariarik ez dago gure enpresa-komitean. Langileen ordezkariak baditugu, eta, ordezkariitza lana egiten dute: kasu egiten zaie batzuetan, beste batzuetan ez...

Medio txikiagoetan, langile ordezkari bat edo beste izaten da titulu horrekin erabaki organoetan (ARKOn adibidez), eta oraindik txikiagoetan ez dago horretarako aukerarik. Kexuak edo kezak ia modu indibidualean planteatu behar dira, ausartzen bazara...

Beraz, elkarte batek lagunduko luke arlo laboral ekonomiko honetan? Ez dakit. Medio desberdinetarako balioko duen ekintza sindikal bat planteatu daiteke kazetari elkarte batetik? Zaila ikusten dut. Behintzat —adibide bat jartzeko— EITBko eta prentsa idatziko kazetarien lan-errebindikazioak bateratzea ez da erraza.

Presio politikoen aurrean ere, elkarteak balioko ote lukeen pentsatu beharko genuke. Mehatxu kasu bat gertatzen bada kazetariaren baten aurka, agiria kaleratu beharko dugu elkarte bezala, kazetari horrekin elkartasunean? Huts hutsean, pentsa daiteke baietz, elkartasuna ez eskaintzeko motiborik ez dagoela, baina mehatxuak edo erasoak zeinu batekoak dira egun batean, eta beste zeinu batekoak izan daitezke biharamunean, eta orduan ere, agiria atera beharko genuke, oreka egiteko. Gero, erdal elkarte batek beste mehatxu batzuen kontrako agiri bat aterako du, eta elkarte horrek gure elkartera deituko du eta... Uste dut halako saltsatan ezin daitekeela sartu elkarteak.

Orduan, elkarteak alai-alai sortu baino lehenago, gauzak aztertuta egin beharko lirakeke, ezer egitekotan, eta azterketaren ondorioa zera izan daiteke, beharbada: elkarterik ez sortzea.

Gauzak soseguz egin beharko dira beraz, eta hortaz, bada- go orain ekimen interesgarri bat, arretaz segitu beharko duguna, neureustez. Euskaraz lan egiten duten kirol kazetariak mugitzen hasi dira (batzuk behintzat), elkartetxo bat egin edo ez. Afari bat antolatzekotan dira, eta hortik, agian, zerbait abiatuko da; edo agian ez da ezer abiatuko, eta beste afari bat egitekotan geratuko dira. Ikusi egin beharko dugu, baina edozelan ere, afariak egiteko aitzakia bada ere, uste dut ekimen polita dela kirol kazetariena, medio desberdinetako jendearen arteko loturak egiteko, eta gure kezka eta ardurak konpartitzeko.

Kirol kazetari horiek ez dute mundua konponduko, baina akaso Real-Athletic eztabaiden giro erdaldun ustela geure artean, euskaldunon artean, gertatzen ez dela demostratuko dute.

1. Testu hau jendaurrean irakurtzeko idatzi zen, eta ahozko moldeak gorde egin dira edizio honetarako.
2. 1996ko maiatza.
3. Ordenadore-programa ezagunak, testua editatzeko eta maketatzeko.
4. *Euskaldunon Egunkaria*, 1996-5-26.
5. Ikus bere txostena, bilduma honetan bertan.
6. EKEren estatutuetatik (1990eko maiatza).
7. Hitzaldian, galderen txandan, entzuleetako batek azaldu zuen arrazoia: elkartea legeztatzea errazagoa zen EAEn emanez gero izena. Nafarroan eta EAEn aldi berean legeztatuta nahi izanez gero, Madrildik baimena behar zen, eta gauzak asko nahastea zen hori. Itxura hutsa zen, beraz, puntu hori.

EUSKAL PRENTSAREN DESAFIO BERRIAK

PELLO ZUBIRIA

Urte batzuetan, euskarazko prentsa egiten genuenon obsesioa komunikabide sarea osatzea izan dela esan daiteke. Luxurik gabeko sarea baina sare osoa. Panorama osatzea, abanikoa zabaltzea nahi bada. Soziolinguistek modan jarri duten formulari jarraituz, euskarari gizarteko ahalik eta funtzio gehienetan leku egin behar bazaio, komunikabideetan ahalik eta alorrik ugarienetan sartu. Eta ahalegin horretan aritu gara 80ko hamarkadan bai diru publikotik hamarkada horretan sortu direnak; eta bai inizatiba sozial edo herrikoiari loturik enpresa autonomoetan antolatu ginenok.

Duela hogeitun urte, azalean Lemoizko zentral nuklearraren argazkia zekarren zenbaki profetiko hartan, *Zeruko Argia*-k

Euskal Prentsaren Urtea deitu zion urte hari. Itxaropen eta apostu aldarrikapenez betetako eslogana zen. Baina gero, doze-nerdi bat urte edo gehiago iraun zuen gripe alu bat gainditu be-har izan zuen euskal prentsa gizajo honek.

Gogor eraso gintuen prentsa elebidunaren mamuak urte horietan. Hainbat eztabaida, bazterketa, ihes eta birmoldaketa-ren ondoren —eta agindu zizkiguten sagar tentagarri haiek gezurraren harrak jota zeudela demostratu zenean— konple-xu gutxiagorekin begiratu ahal izan genion eskuartean geneu-kan gutxi hari. Gauza kaxkarra ginen, denok kontatuta ere, bai-na geundenak ginen.

70eko azken urteak eta 80ko lehenak ikaragarriak izan zi-ren euskarazko prentsarentzako, eta urte horietan desafio na-gusia bizirautea izan zen. Eta bizirauteko beharrezkoa izan zen prentsa egiten zuten langileen jokabide militantea, ingurutik babesten zuten euskaltzaleen militantzia pazientziaz betea, eta zenbait kasutan zenbait erakunde euskaltzalaren lagunt-za ere bai. Askorentzako ahaztutako gauzak dirateke horiek, baina klabe horiek gabe ezin da ulertu gaur bizi duguna, eta horiek baztertuta ezingo zaio egoki aurre egin etorkizunari.

Bizirauteko desafio horretan bizirik atera zirenez oroitzen ga-rra sarri, baina bidean erori zirenez oroitzea garrantzi handikoa da. Horien artean, *Anaitasuna*-ren hondamendiak garrantzi apartekoa izan zuelakoan nago, Bizkaian oraindik nabar-mentzen dena.

Bukatu zen, aspaldi, 80ko hamarkada. Eta hamarkada be-rriaren hasierarekin daukagu osatua amesten genuen komuni-kazio panorama: badaukagu euskarazko telebista, badaukagu irratia eta badaukagu egunkaria. Kenperren bezala Belfasten edo Valentzian, harro aldarrikatzeko moduan gaude.

ETBkoak izan gabe telebistaren munduan ari direnek barka-tuko didate telebista bakarra aipatu izana, eta baita irradi pu-bliko nagusian ez dabiltzan besteetakoek ere. Badakit barka-tuko didatela, *Argia* bera aipatu ez dudala ikusirik. Prentsa idatzian ere asko aberastu da gure komunikazio-alorra urteo-tan.

Komunikazio idatzian badugu astekari nazional bat, herrialde mailako astekari bat, eskualde edo herri mailako aste, hamabost eta hilabekari andana bat. Zientzia-aldizkaria, haur-aldizkariak, pentsamendu edo giza zientziazkoak, beste hainbat agerkari sektorial... Komunikazio lokalari lotutako fenomenoak dira nabarmenenak, herri edo eskualde batzuei lotuak batzuetan eta euskararen normalizazioaren aldeko taldeen jarduerara nagusienak beste askotan.

Urteotan euskarak aurrerakada nabarmena egin du komunikazio-mailan, eta euskara hutsezko agerkariak ugaritu diren bezala, publizitatea bezalako komunikazio-tresna inportantetan lekutxoia landu du, orobat harreman publikoetan, eta erdarako komunikabideetan sartzen den euskara ere duela urte batzuk baino askoz parametro normalizatuagoetan sartzen da.

Euskal prentsako protagonista horietan guztietan barrena formula eta produktu berriak azaldu dira urteotan: irakurleari gustatuko zaizkiolakoan batzuetan, eta duela gutxi arte oso bakan eta orain ugariago hurbiltzen dugun publizitatea gureganatzeko gehienetan. *Egunkaria*-ren Moda gehigarritik edo Gida Komertzialetik hasi eta *Ttapi Ttapa*-ren Doneztebeko ferietako berezira. *Argia*-k gehigarriez gain posterrak ere landu ditu, kolorea sartu... erdarazko aldizkari espezialduetara hurbildu nahian batzuetan. Inguruko egunkariak bezala, Euskaldunonak ere bere koaderniloak plazaratzen ditu, gazteentzakoak, mendiari buruzkoak, literaturari buruzkoak, diseinua modernotu eta kolorea bereganatu... Herri aldizkarietan ere posible da holako gauza sektorialak aurkitzea.

Argia-k bere Urtekaria egiten du, mundu osoan egiten direnen antzera, eta bere harpidedunei liburu eskaintza bereziak luzatzen dizkie, lehen ere landu izan duen komikigintza orain faszikulutan eskainiz iritsi nahiko luke irakurle gazteenengan. *Egunkaria*-k CDak banatu ditu, eta martxan dauka Hiztegi Entziklopediko baten promozioa faszikuluetan. Promozioan ere zerbait ikasi, saiatu eta berritu dugu, beraz, *Argia* Egun haie-tatik honuntza. Masa-bilera handiak ere egiten dira, baina hau berria ez da Euskal Herrian eta euskal prentsan ere ez: aspaldi horituak daude *Argia*-ren 1.000 bazkarien erretrato haiek.

Zertan datza euskal prentsa-ren desafioa XX. mende-bukae-ra honetan? Geure Herrian bertan eraginkor izatea da begien aurrean daukagun apostu nagusia. Euskarari bere nomalkuntzarako tresna bezala lagundu beharrekoa laguntzen ari gara: komunikaziorako tresna normaldu behar genuen eta aski normaldu dugu —euskaltzainek eta beste hizkuntz agintari edo iritziemaileek egunero buruhauste berriak asmatzen dizkiguten arren— eta komunikazio-sarea ere osatu dugu. Orain euskal gizarteari komunikatzea bakarrik falta dugu. Eta gauza gutxi komunikatzen diogu gure gizarteari: gure produktu, informazio eta iritzien kalitateak merezi baino askoz oihartzun gutxiago lortzen dute. Eraginkortasuna, influentzia, efektibotasuna, oihartzuna... Egiten dugun ahaleginak eragin sendoago bat erdietsi behar du.

Bueno, eta nondik jo? Hori izango da galdera —iruditzen zait— *euskal prentsaren desafio berriak* jorratzera gonbidatu bagaituzue. Bi jarreretatik erantzun dakioke desafio handi horrek sortzen duen galdera sortari; seguruenik galderak berak bi jarreretatik formulatu daitezkeen moduan.

Gaia kanpotik hartuz gero, hau da, hartzen ditugun erabakiek eta horiek aurrera ateratzeko eginahalak dituzten ondorioek gure bizitzan ez harrapatzeko moduan kokatuta, erantzuna akademikoa izango da. Sekreturik ez da: aldamenekoari erreparatu, gure auzo erraldoiek dauzkaten erreminten zerrenda egin eta gureekin alderatu. Falta direnen zerrenda egiteko ez da aparteko talenturik izan behar, auzokoetara —eta disimuluan urrutikoetara ere— hurbiltzeko sosak behar dira, eta zerrenda egiteko denboran jan eta jatzeko sosak.

Barrutik begiratuta, gaia arazo bihurtzen da. Aldamenekoari begiratu ondoren, nork bere indarrak neurtu eta etekinik handiena zertan inbertitu erabaki beharra baitator.

Aldamanekoari erreparatu. Espainian eta Frantzia-n guk ditugunak baino komunikazio-produktu askoz ugariagoak dau-de. Zer esanik ez Europan edo Ameriketara zehar. Egunkarietan, kirol eta ekonomiari buruzkoak, hori hasteko, eta egunkari *klasikoetan* bat baino gehiago bada edonon. Aldizkarietan se-

guruenik aukera zabalagoa da. Askotan azaldu da holako bilkura eta hitzaldietan norbait astekari *arroxa* edo *horia* noiz egingo dugun eskatuz, baina inork ez dio hortzakada egin amu horri. Emakumeen aldizkariak —maila ezberdinetakoak gainera—, telebistari buruzkoak, satirikoak, ekonomikoak, auto eta motorrari lotuak, kirolezkoak, dekoraziozkoak, natura eta ekologiazkoak, guraso berrientzakoak, konputagailumaniakoentzakoak, gastronomiazkoak, musika-gazteentzakoak, bidai-amets egitekoak...

Ondoren, neurtu ditzagun gure indarrak. *Gureak* diot, hasteko, herri edo kultura bezala. Eta merkatua da neurketa honetan faktore erabakitzailea. Nor daukagu gure komunikazio-produktuak erosteko? Merkatua sortu eta zabaldu ere egin daitezkeela pentsatuz, zer egin dezakegu 600.000 elebidun baino ez duen gure merkatuarekin? Gure merkatutxo hori espainolezko 40 edo 300 miloikoaren eta frantsesezko beste erraldoiaren barruan daude, beti bezala, eta merkatutxo horren bilakaera geldoa ulertzeko euskalduntze-datuen bilakabideari erretu baina ez dago.

Merkatu espektatibak erakartzen ditu inbertsioak ere, eta edozein jardueratan kapitala funtsezkoa bada, teknologiaren abidan aldatzen eta kontzentratzen ari den sektore honetan beldur garia da ze nolako tartea dagoen erdarazko komunikabide nagusien eta euskaraz ari garen gizarajoon artean.

Bi eratako kapitalizazioa ezagutu du euskal prentsak azken urteotan. Betidanik ezagutu duena, hasteko: militanteek ipini duten kapitala. Beren lanaren arabera egokituko litzaiekeen diru bati enpresaren alde uko eginez, eta merkatuan beste jarduera batean onartuko ez lituzkeen baldintzatan bere burua behartuz. Ni nagoen etxean hala ezagutu ditut nire lagunak, eta kapital metaketa hau da bigarrena mugiarazi duena. Kapital instituzionala, alegia.

Azken urteotan instituzio publikoek inbertsioak egin dituzte euskal prentsan. Hasteko, instituzioek berek zuzenean kontrolatzen dituzten komunikabide publikoetan. Eta azken urteotan, kultur talde eta abarrei azpiegiturak sortzeko lagunduz.

Militantziaren kapitalak oraindik sekulako garrantzia dauka, eta euskara den mundu txiki honetan hala edukiko du aurrerantzean ere. Hori ahuldu ahala, kapital publikoak ere muzin egingo dio euskarazko komunikazioari. Ez dut uste hori behar adina baloratzen den, askotan militanteen ahalegin horri eskerrik beroenak eman beharko lizkieketen langile publikoen aldetik.

Faktore funtsezkoa, merkatua, esan dugunez oso mantso haziko da. Kapital ez oso urri gabiltza. Eguneroko gestioa hobetzeko datza hirugarren giltzarria. Egunotan hemen bildu gaituen bilkura sail honen helburuetako bat —hala ulertu dut— instituzio publikoek gestio horretan hobeto lagundu diezaguten presio egitea izan behar du. Subentzio-kopuru txukun batzuk lortzea da komunikabide independenteon behar urgente bat, eta horrekin batera instituzioek beren komunikazio-inbertsioetan —publizitatean batik bat— euskarazko komunikabideoi tratu egokiago bat ematea.

Gestioa hobetzea den desafio honetan beste zati bat komunikabideei dagokigu. Erdarazkoen artean gure komunikazioaren oihartzuna handitzeko, eguneroko gure jardueran kostoak jaisteko eta denon artean merkatua zabaltzeko, gure arteko sinergiak landu behar ditugu. Garbi esango dut: hau gertatuko ote den galdetzen badidazue, oso eszeptikoa naizela aitortuko dizuet. Oso erraz lasaituko nuke entzulegoa esanez oso enpresa eta jarduera ezberdinetan ari garela eta guztien artean elkarlana zaila dela erantsiz. Ez ordea: komunikabideetan ari garenek eta arduradunok bereziki ez gaude gure kulturareneko erak eskatzen digun mailan.

Sinergia eta elkarlanaren bidea aldapatsua da. Baina gure inguruan konpetitzeko euki dezakegun tresnarik garrantzikoenetakoa da. Orain, merkatu txiki batean mugitzeak beste tentaldi bat ere sorrarazten du: merkatu hori kontrolatzeko joera monopolista alegia. Merkatua zabaltzen ahalegintzeak baino kreatibotasun gutxiago eskatzen du dagoen horretan ondokoei puskak jateak. Baina sinergia eta elkarlanaren beharra izango dugu, eta ez bakarrik euskal kulturari: Euskal Herriak nola konpetitu behar du bestela European eta Munduan?

Sinergia horiek landu beharko genituzke gure lan komertzialetan. Are gehiago gure azpiegituretako inbertsioetan. Elkarlana beharrezkoa da inbertsio estrategikoetan. Zer esanik ez gure giza ekipoen formakuntzan. Eta baita eguneroko gure produkzio-prozesuan ere. Denborak esango du gai izan garen.

Eta nire aldetik, euskarazko komunikazioak planteatuta daukan beste desafio bat aipatu gabe ez dut bukatuko. Komunikazioan ari garenon autonomia edo independentzia desafio oso garrantzitsua da.

Nola bermatu komunikazioak berekin behar duen autonomia, komunikatzaileak behar duen independentziarekin, bai kapitalaren osaketan eta bai ustiapenean hainbesteko intzidentzia duten instituzio publikoekiko harremanarekin? Laguntza hori behar dugu, euskarari zor zaio, eta aldi berean informazio zorrotz eta erakargarria egin behar dugu. Desafio horren inguruko gora-beherak datozen urteotan eragin handia izango dute.

Bueno, eta nork heldu behar die gai horiei guztiei kirtenetik? Desafioak bere gain hartzeko gai den edo gogoia duen pertsona bilatzea. Edo desafioak usaindu eta horiei aurre egin nahi dienari lekua uztea. Hortxe datza gako nagusia: pertsone-tan dago giltzarria. Urteotan lanpostu asko sortu dira euskarazko komunikazioan, eta horri lotutako ikasketa akademikoetan ere bai: lanpostuak betetzeko ikasi eta ikasten duen jendea pilaka ikusten dut. Irudipena daukat —eta barkatuko didazue gordinetia banaiz, eta zuzenduko nauzue oker bango— komunikabideen esperientzia zaharregia duten irakasleek iadanik paseak edo ia bukatuak diren lanpostuetarako hezten dituztela kazetaritzako ikasleak.

Une honetan dauden lanpostuak betetzeko ehunka hautagai bada. Eta langabeziaren aroa iritsi da kazetaritzan lizentziatutako euskaldunontzako. Norbaitek ausartu beharko du afera honetan zeresana duten guztiekin lan-eskema berri bat antolatuzera. Zerbait badago oso gaizki antolatua tituluak ematen dituen unibertsitatearen, komunikazioaren protagonista izateko ametsa duten gazteen eta lanpostu urri batzuk baino ez ditugun komunikabideon artean. Komunikaziogileen —ez berri

idazle-esatari-ekoizle soilen— formakuntza: desafioez hitz egi-
tera etorrira, eskuartean dugun urgentzia hau azpimarratu
gabe ezin da utzi.

PRINTZIPIO-ALORREKO DESAFIOAK

JEXUXMARI ZALAKAIN

Komunikazio honen mezu nagusia hauxe da, alegia euskal prentsak dituen desafio berriak ez direla soilik teknologia-ren alorrekoak, printzipio-alorrekoak baizik. Beste era batera esanda, euskal prentsak dituen desafio berriak zaharrak dira oso, betikoak: lehengoak, sortze-egunetan agertu zirelako; oraingoak eta gerokoak, desafio permanenteak direlako, kapitalaren premia berriak asetzeko dinamikatik at daudelako. Gutxienez herri minorizatu bateko prentsa izan nahi duen bi-tartean.

Printzipioak aitatu ditut. Ezagunak izaten dira printzipioak, baina ez dira inoiz noskitzat eman behar.

EUSKAL PRENTSA (EP)

Hasteko, zer da EP? Prentsa da. Euskaraz idatzitakoa da EP. Baina ez hori bakarrik. Prentsa nazionala ere bada EP. Eta herri-proiektua ere bai. Lau ildo horietan oinarriturik mugitzea da EPren desafio zahar-berria. Hor du bere biziraupenerako bermea.

PRENTSA DA

Alde horretatik, hedabide alorreko mekanismoak, prozedurak, joerak, abildadeak erakutsi behar ditu. Euskaraz egiten den prentsa konkpetigarria izan behar du. Irakurtzeko kapazitatea a reagoitu behar du. Salgarri eta aipagarri ere bihurtu behar du euskarazko prentsa. Sektorean sortzen diren aurrerakuntza teknologiko guztiak bereganatzeko gauza izan behar du. Kazetaritza egiteko kapaz dela demostratu behar du. Berez ona dela eta, bizitzeko eskubidea duela erakutsi behar du. Kazetari-produtu osoa eta homologatua behar du izan. Alde horretatik begiratuta, prentsa-egituraren kokatzen da. Bere alde egiturazkoa azpimarratzen du.

EUSKARAZKOA DA

Euskarak ez du hemen arazo linguistiko hutsa adierazten. Euskaltasuna ez da hizkuntz alternantzia hutsa, kode linguistikoaren aldaketa besterik gabe. Euskaltzaletasunak abertzaletasunean ditu oinarriak eta Euskal Nazio euskalduna eta burujabea du helburu. Beraz, xede horrekin bat egiten duten herri-tar, talde, kolektibo, erakunde zein partiduekin bat egiten du EPk. Eremu sinboliko horrekin kateatua den heinean adierazten da euskaltasuna prentsatasunean. Prentsa izateari utzi barik, baina prentsa baino areago doana.

Pertzepzio hori izan zuten, oso oker ez banago, euskarazko aldizkarietan ari ziren langileek 1976a Euskal Kazetaritzaren Urtea izendatu zutenean. Hizkuntz eskola izatetik proiektu nazionalera doan bidea iragarri zen han, 1980ko hamarkada osoan zehar *Argia* aldizkaria buru izan duen mugimendu adie-

razgarri eta ilusionatuari esker, *Euskaldunon Egunkaria*-raino gutxienez, etorri dena hain zuzen ere.

PRENTSA NAZIONALA DA EP

Euskal Prentsa Euskal Nazioa eraikitzeko laguntza emateko proiektuari deitzen diogu, prentsa-alarretik irten gabe mami-tu behar den proiektuari hain zuzen ere. Ez da nahikoa euskaraz idatzita egotea, euskaraz ere finkatu baitaitezke Euskal Nazioari bizitza ukatzen dizkioten elementuak.

Maila honetan EP proiektu politikoa da, errealitatea bera aldatu nahi du, zatiketa administratiboa bereziki. Eta hori nazio-gintzan ari den mugimendu zabal eta anizkoitzaren parte bat baino ez da, partidokraziarekin zerikusi handirik ez duena, independentzia propioa gordetik behintzat. Berdin dio kazeta edo aldizkari baten esparru geografikoa lokala izatea ala sei herrialdeak harrapatzea. Esparrua esparru, Euskal Nazioaren sortze-prozesuari laguntza ematea da gakoa.

HERRI-PROIEKTUA DA

Herri-mugimendua ere deitu zaio. Zilegi bekit bereizketa batzuk egitea. Talde batek, prentsa-mailan adibidez, bere helburuak formulatzeko, lortzeko eta defendatzeko prozesuan erakusten duen ahalmen objetiboa eta subjektiboa da mugimendua. Hain debalaturik dagoen militantzia da mugimenduaren ezaugarri nagusia, hau da proiektu berri bat gauzatzeko erakusten den prestutasuna eta adorea. Proiektu berritzaile batekiko leialtasun historikoan azaltzen da. Leial denak, alor propioa ondo bereiztuz, premiak eta bitarteak uztartzen badaki. Ausardiaz beteta baina tajuz aritzen da. Egindako apustua irabazten daki militante leialak.

Mugimendua, ordea, bi posiziotan aurkitzen da: gizarte baten egituraren ahuleziak, gabeziak osatzeko ahaleginean ari den mugimendua gizarte-mugimendua da. Aldiz, mugimendu hori, gizarte bera beste marko batean kokatzeko saiatzen ari denean (marko nazional desberdinean), herri-mugimendua da.

Euskaraz idatzirik dagoen prentsak ere, bi posizio hauek har ditzake. Bilatzen dena euskarak *ere* gizarte honetan leku izatea baldin bada, adibidez, gizarte-mugimendu baten aurrean gaude. Ostera, helburua eta eguneroko lanaren jitea, markoa aldatzea baldin bada, dagoen egoera deszentratuz beste zentratze bat proposatuz, hau da euskara izan dadila Euskal Herriaren zentro bakarra, herri-mugimendu bat dago.

Gauzak argitzeko, bederen, izen-bereizketa bat proposatzen dut: herri-mugimendu gisa arituz eta prentsa-alorretik atera barik proiektu nazionala eraikitze bitarte denari, *euskal prentsa* deitzea. Gizarte-mugimendu mailan ari denari, ostera, kazetari-proiektu huts izan nahi duenari, profesionaltasuna eta atxakiaz gizarteko proiektu politiko guztiak berdinkidetzat hartzen dituenari, *euskarazko prentsa*.

Bi posizio hauek mugimenduaren zati dira, eta biak dira beharrezkoak. Baina ez ahanzi, bigarrenak ematen diola zentzua lehenengoari: euskal prentsak ematen diola nortasuna, indarra eta berezitasuna euskarazkoari.

PLANGINTZA ETA LEGETERIA

Aurreko hamarkadaren hiru laurdenetan bederen, Euskal Prentsaren plangintza euskararen normalizazio-prozesuarekin bat egiten duen eremuan kokatzea eskatzen zuten euskaltzaleek. Plangintza hori kudeatzeko legeteria ere eskatu zuten. Plangintzarik ez da etorri, ez euskara-mailan ez EPri dagokionean ere.

Euskal Prentsaren sektorekoei dagokie/dagokigu plangintza eta legeteria egitea. Euskara hutsezko gizartearen aberastasunean sinesten dugunok benetan zer nahi dugun eta nola gauzatu nahi dugun pentsatzeko aukera ezin hobea da. Helburu horixe zuen, besteak beste, 1990ean sortu ahala zendu zen Kazetari Euskaldunen Elkarteak. Hura birplanteiatzerik badagoen arren, edonola ere beharrezkoa da EP babestuko duen eta sortuko duena ahalbideratuko duen legeteria proposatzea. Gure ordez inork ez du egingo.

BELAUNALDI BERRIAK

Belaunaldi berriek jakin behar dute prentsa diglosikoaren nagusitasun kontzeptuala 1976an amaitu zela, diglosiaren ezinbestekotasuna prentsa idatzian garaitzen hasi baitzen urte hartan. Jakin behar dute, apustu historiko hartan sustraitzen dela gaurko aberastasuna. Harrez geroztik dakigu Euskal Herriaren prentsa-alorra euskaraz idazten dela eta kazetaritzatik ere eman ahal zaiola laguntza sortzear dagoen Euskal Nazioari. Entzun behar dute —agian samera-froga egunean bertan— inor baino profesionalago izateko obligazioa dutela, baina oso esker txarreko gizartean bizi garela eta seguraski horrek ez diela prestigio handirik ekarriko. Esan beharko zaie militantziaren egunak ez direla amaitu. Areago, militantziarik gorrienean gauzatu behar dela euskal prentsa profesionala. Azaldu beharko zaie euskararentzat irabazi diren eremu guztiak nekez eta ahaleginez irabazi direla eta horrelaxe segitu behar dugula erremediorik gabe. Eskuartean ditugun proiektuak garatzeko, abilezia teknikoak bezain inportantea dela helburuak zeintzuk diren xuxen jakitea. Gure karrera ebidentziarik gabeko apustua dela. Gogoratu egin beharko zaie behin eta berriro Joxemi Zumalabe zenak *Euskaldunon Egunkaria* rentzat esandako hura: «...egunen batean ahaztu egiten badu euskararen aldeko herri mugimendutik sortu zela, bereak egin du, oinarri hura baita oraingo eta geroko garantia bakarra».

KOMUNIKABIDE-MOTA BERRI BATEN ATARIAN

JOSU LANDA

Teknologia berriek ekarriko dituzten berrikuntzek aldaketa bat baino gehiagoz, eta ez nolana hikoak, ziprztinduko dute komunikabideen esparrua. Etorkizunari begira, teknologiako bi alorretan emango dira aurrerapauso bizikoenak: informatikan eta telekomunikazioetan. Alde batetik, informatikan eta ofimatikan eboluzioak zurrunbiloaren abiadura hartua du: makinaren potentzia gero eta handiagoa gero eta kostu gutxiagorik; digitalizazioak dakarren erabilerraztasuna; linguistika konputazionalaren etorkizuneko eremua (hizkuntzaren kalitaterako kontrol-tresnak, itzultzaile automatikoak); dokumentazio-zerbitzu erraldoiak eroso erabiltzeko modua; informazio-kopuru erraldoiak almatzenatzeko ahalmena; eta

abar. Beste alde batetik, telekomunikazioak sortuko duen espazioak gaur ezagutzen ditugun muga asko eta asko apurtuko ditu: batez ere kablearen hedakuntzak eragingo duen iraultzak errotik aldatuko ditu hedatzailearen eta kontsumitzailearen arteko ohitura eta prozesu ugari.

Bi alor horietan emango diren aitzinamenduen uztarketatik, komunikabide mota berri bat sortuko da, garuna nekatu gabe «komunikabide elektronikoa» dei genezakeena. Badirudi gaur egun erabiltzen diren termino asko (egunkari elektronikoa, kartako telebista...) zentzu gutxikoak izango direla aurki. Sarean etengabe egongo den produktu bati nekez aplikatu ahalko zaio maiztasunaren kontzeptua, eta «egunkari» edo «astekari» bezalako terminoak nahastu egingo dira ondorioz. Gainera, komunikabide elektronikoen guztiek bide berak, bitarteko berak eta, seguru aski, etxeetan gailu berak erabiliko dituzte eta komunikabide motak, orain ikusten ditugun bezala (prentsa, irratia, telebista) elkarrekin integratuko dira esparru elektronikoen berri horretan. Zaila da, ondorioz, prentsa elektronikoz hitz egitea eta egokiagoa dirudi komunikabide elektronikoen jardutea.

Komunikabide elektronikoen berri horrek hainbat ezaugarri izango ditu bere:

- Informazio bolumen handia erabiltzeko ahalmena. Ez du ezagutuko oraingi komunikabideek daukaten espazio-muga (orrialde kopurua, emisio denbora...).
- Erabiltzaileen araberrako pertsonalizazioa. Norbere intereseko gauzak aukeratu ahal izango dira.
- Gune espezialduak sortzeko joera izango da, informazio-kantitate ikaragarriak ekar dezakeen anabasaren barruan esparru bereziak lortzeko behararen ondorioz.
- Multimediaren erabilera. Edozein bitarteko (testua, irudia, audio...) erabili ahal izango direnez, elkarrekin integratuko dira elementuok komunikabide berean, eta hori guztia interaktibitateaz baliatuta, hau da, erabiltzaileak bere interesen arabera hautu eginda.

- Iritzi-truke dinamikoago eta libreagoa egin ahal izango da, mediatizazio gutxiagoko forumak eta tribunak ugari sortzeko ahalmenaz baliatuta.

- Datu-base erraldoietan kontsultatzeko erraztasuna.

Horrezaz gain, finantziaketarena dugu erabaki eta finkatu gabeko puntuetako bat. Pentsan ezagutzen ditugun diru-iturriek —publizitatea eta salneurria, batez ere— komunikabide berri honetan nola funtzionatuko duten inork ez daki zehatz. Erakusleihoa izango den neurrian publizitateak izango du funtzioa, eta zerbitzua izango den aldetik kobratu ere egin beharko da, baina argitzeke dago nola, eta are argitzeke zenbaterainoko finantziaketa erakarriko duen horrek.

Neurri oso handi batean zientzia-fikzioa den genero batean, orain arte mintzatu naizen bezain seguru mintzatzea atrebentzia handiegia da, bistan denez. Orain arte esandako guttien aurretik «nire ustez» edo «dirudienez» bana ipintzeaz gain, balizko etorkizun horrek zalantzarako eta kezkarako tartea ere uzten du noski. Hasteko, bitartekoen hobetzeak eta merkeagotzeak ez duelako beti kalitatearen edo zerbitzuaren hobetze bat ekartzen. Bestetik, eta hau da kezkaragarriena, bitartekoak bai baina banaketa bideak edonoren eskuetan egongo ez direlako; arrazoiak badira informazioa banatzeko mekanismo nagusiak orain arte baino esku gutxiagoren kontrolpean egongo direla pentsatzeko.

Sortuko den konkurrentzi espazio berri horretan, paperean inprimatutako prentsa desagertu egingo dela pentsatzea astakeria dela esango nuke. Zalantzarik ez bere funtzioa eta papera aldatu egingo direla, besterik ez bada gaur egun prentsak berezkoak dituen zenbait eskaintza besteek modu egokiagoan beteko dituztelako. Bada inprimatutako prentsari dagokion funtzio bat, bestek nekez ordezkatu ahal izango dutena: sintesi-papera. Grafikoki esanda, hamar minutuko gainbegirada batean gertatutakoen berri jasotzeko ez dago papera baino soportegokiagorik; finean, egun irakurle gehienek kasu askotan prentsaz egiten duten erabilpen beretsua. Beste zenbait alorretan ere, prentsak mantenduko du bere apropostasuna, ex-

catedra-ko iritzietarako kasu. Komeni da beraz planteamendu katastrofista eta modernistetatik ihes egitea. Paperarekin, informazioa transmititzeko euskarri bezala, beste hainbat asmakizun jenialekin bezala gertatzen baita. Pentsa dezagun gurpilaren asmakizunaz: ibilgailurik modernoena ere ezin izan du egundo gurpilaren jenialtasuna saihesti. Antzeko zerbait gertatzen da paperarekin. Edukia aldatu egin beharko da, ezer aldatzekotan, eta hori da erronka.

EUSKAL KOMUNIKABIDEETAKO GENERO INFORMATIBOAREN GAINBEHERA

PELLO URZELAI

Komunikabideetako ezaugarri nagusietako bat aldakortasuna da, komunikabideetako benetako euskarriak (hitza, irudia, lengoaia, mezua, espazioa...) aldakorrek direlako, eta, horrez gain, aurrerapen teknologikoen aurrean oso *sentiberak* direlako.

Mugikortasun eta egongaitzasun horren barruan aldaketak neurtzea edo joera berriak antzematea zaila da zehaztasunez egin nahi bada. Aldi berean, arazo terminologikoak nonnahi agertzen dira. Komunikabideen mundu nahasi honetan azterketa sintomatikoa baliotsua da eta ildo horretan kokatu behar da ponentzia hau.

«Euskal Komunikabideetako genero informatiboaren gainbehera» izenburupean aspaldi honetan handitzen joan zaidan kezka bat kanporatu nahi nuke. Nire gogoeta hau ez da azter-

keta sistematiko eta enpiriko baten ondorio, ezta saiakera teorikoa ere. Esperientziatik abiatutako gogoeta xumea da. Eguneroko jarduera horretatik detektatutako arazo, hutsune edo ahulezia azalduko dut, horren kontzientzia hartzea gainditzeko lehen erremedioa delakoan. Bestalde, ez dut uste gogoeta hau nire buruan bakarrik dagoenik. Lanbide honetan urte batzuk daramatzen askoren kezka ere bada.

Ondoko lerroetan, genero informatiboaren egoera arazo bezala definituko dut. Ondoren arazo horren aurrediagnostikoa egiten saiatuko naiz, hau da, bere neurria, garrantzia eta lokalizazioa azaltzen ahaleginduko naiz. Segidan, egoera honen zioak, o rokorak eta partikularrak, deskribatuko ditut eta azkenean arazoa gainditzeko iradokizun batzuk proposatuko ditut.

GENERO INFORMATIBOA INDARGE

Euskal komunikabideetan genero informatiboa indarge dago. Aurrera egin ezinik, berritzeko eta garai berrietara egokitzeko gaitasunik gabe. Eta horrek, esparru aldakor honetan, gainbeheran egotea esan nahi du.

Zeri deitzen diot genero informatiboa? Funtsean, telebista eta irratietako albistegiei eta aldizkari eta egunkarietako sekzio informatiboei. *Gaur egun*, asteko saio informatiboak, irratietako ordu eroko buletinak, albistegiak, herri aldizkarietako kronikak, egunkariko sekzio informatiboak (Politika, Gizartea, Ekonomia, Kultura...).

Gainbehera edo aurrera egiteko ezintasuna aipatzen ditudanean, genero informatiboaz soilik ari naiz eta ez komunikabideen egoeraz. Aitzitik, euskarazko komunikabideek aurrera egin dute nabarmen azken urteotan. Jauzi handi bat eman dute homologazio-bidean eta medien munduan berezko tokia egitean (eta horren lekuko *Egunkaria* bera ere bada). Baina aurrera egite honetan, puntu ahulenetako bat eta arlo ahaztuenetako bat, nire ustez, genero informatiboa izan da. Eta gainera, modu orokorrean, medio ezberdinetan gertatzen da salbuespenik gabe (telebista, irratia, prentsa idatzia...).

Pixka bat gehiago zehaztuz, gaitza ez da erabatekoa, mamiari dagokio eta ez azalari. Hau da, aipatutako produktu periodistiko hauen guztien *aurkezteko era*, oro har, nahiko ona da eta etengabe hobetzen ari da. *Formaren* kalitatea hobetu da, baina ez neurri berean *edukia* (informazioaren erabilera eta garapena). Aurrerapen teknologikoak eta diseinu berriak genero informatibora ere iritsi dira, baina gehienbat itxura hobetzeko, merkatu-kuota handitzeari begira.

Arazo hau ez da soilik euskal komunikabideena. Fenomeno orokorra da eta erdal komunikabideetan ere nabaritu daiteke. Azken batean, irudiak eta ikuskizunak azken hamarkadetan bereganatu duten indarraren eta nagusitasunaren ondoretako bat da genero informatiboaren egungo egoera. Ikus-entzuzko hedabideen garapenaren eraginez, ikuskizuna nagusitu zaio informazioari. Irudiak jan du hitza. Nolabait esateko, gaurko gazteek *iruditan pentsatzen* dute, informazioa, oro har, pentsamenduaren eta kontzeptuaren alorrekoa den bitartean. Beraz, informazio landuak espazioa, indarra, garrantzia, eta arreta bereganatzeko gaitasuna galdu ditu. Dena dela, erdal medioetan, egoera honi aurre egiteko eta formula berriak aurkitzeko t r ebetasun handiagoa erakutsi dute, baita Euskal Herrian bertan ere. Jakina da, euskarazko medioek indar eta ahalegin gehiegi bideratzen dituzte soilik irauteko zailtasunak gainditzen eta iturri ekonomikoak bilatzen. Baina ez dut uste bitartekoen arazoa denik bakarrik.

Jakina, deskribatzen ari naizen egoera ez da erabat beltza. Ahaleginak egiten ari dira genero informatiboa gaurkotzeko eta batzuetan emaitza onak lortu dira, baina, tamalez, gutxiegitan genero honek behar lituzkeen indarra eta freskotasuna emateko.

INFORMAZIOAREN AHALMENA ETA TEMPOA

Askotan pentsatu dut nire kolkorako, inertziaren poderioz eta giro a ren eraginez, kazetariok gutxietsi egiten dugula informazioaren ahalmena, eta ez, zoritxarrez, informazioaren boterea

(informazio pribilegiatu batzuk izateak ematen duen boterea erabiltzea norberaren burua aurrera ateratzeko edo hobeto kokatzeko lehia profesionalean). Zalantzarik gabe, Interneten arak informazioaren ahalmen aldatzaileari buruz gogoeta eginarazi beharko liguke. Informazioari begi berrieekin begiratzen lagundu beharko liguke.

Kontuz, ahalmen hori ez da murriztu behar errebelazio eskandalugarrietara. Askoz urrutiago iristen da. Albiste entzutetsu horiek *iceberg-aren tontorra* baino ez dira izaten gehienetan. Informazioaren indarra, errealitatea zehatzago eta sakonago eta une egokian ezagutzeko duen balioaren heinekoa izaten da. Ez da ahaztu behar informazioaren (ezagutzaren) *tempoa* ez dela inolaz ere albistegietakoa. Aitzitik, albisteak orduero, eguerdiredo egunero kontatu beharrak zatikatu, eta askotan *txikitu* egiten du informazioaren benetako denbora. Nahi gabe, ulertezin bihurtzen dugu kontatzen ari garena (maltzurren batek nahita egiten dugula esango luke, eta batzuetan ez litzaioke arrazoirik faltako). Horregatik, ez dira nahastu behar informazioa eta albistea. Informazioa askoz zabalagoa da; albistea partzialitatea da, askotan, jakintza edo ezagutzaren ikuspuntutik arbitrarioa.

INFORMAZIOAREN ERABILERA MAKURRAK

Irudiak eta ikuskizunak komunikabideetan bereganatu duten indarra eta nagusitasuna aipatu ditut. Fenomeno orokor horrekin batera, informazioaren beraren munduaren transformazioak hartu behar dira kontuan. Azken batean, informazioa, gero eta gehiago, merkantzia gisa (salgai hutsa), propagandarako tresna gisa eta arma politiko gisa erabiltzen da. Hori gertatzen denean, informazio-eskubidearenak eta adierazpen-askatasunarenak ez diren beste arau batzuk nagusitzen dira.

Informazioa merkantzia gisa. Joan den maiatzean, oso epai bitxia izan da Espainian, futbol-emankizunei buruzko komunikabideen arteko borroka dela eta. Epai honen arabera, «*komunikabide batek kontsumitzaileei eskaintzen dien merkantzia*»

da informazioa. A-3 eta Ser-en arteko auzian, «*informazioaren balio ekonomikoa, bere merkantzia-balioa*» jarri du epaile batek informazio-eskubidearen eta adierazpen-askatasunaren gainean.

Komunikabide nagusi gehienak (*La Vanguardia*, *El Pais*, *El Mundo* eta *Abc*) eta zenbait elkarte profesional asaldatu egin ditu epai honek. Ez da harritzekoa horrela aztoratzea, epaia ez-ohikoa baita eta komunikabideen urrezko legeak ukitzen baititu. Baina bi aldiz pentsatuta, ez zaigu bidegabekeria irudituko epailean marrazonamendua, epaia kritikatu duten komunikabideek beraiek erabiltzen baitute informazioa merkantzia gisa. Hau da, etekin ekonomikoak (audientzia handiagoa) lortzeko, edo audientzietan eragiteko ahalmenari gehiago begiratuz, informazioaren kalitateari (egiazkotasunari) baino.

Agian erabilera honek ez du oihartzun handirik gure artean, euskarazko komunikabideen artean. Merkatuaren neurria, hartzaileen ezaugarriak, kazetarien tradizio positiboa... eta audientzia lortzeko, informazioa baino egokiagoak diren beste bide batzuk (ikus-kizunak, kirol-emankizunak, promozioak, etab.) daudelako.

Beste bi erabilerak, ordea, ezagunagoak dira euskarazko komunikabideen artean eta badute eragina genero informatiboaren egoera kezkarrian. Komunikabideen ahalmen propagandistikoa/publizitarioa ikaragarria da eta hori informazioaren erabilera zuzenaren kaltetan joan da. Fenomeno hau nabarmenagoa da telebistan. Batzuetan, albistegietan benetako bideo-klipak, edo beste era batera esanda, benetako publi-erreportaiak ikusten dira. Duela gutxiko adibide bat jarriko dut: Jaurlaritzaren goi-ordezkaritzak Asiarara egin beharreko bidaiaren alde aurretiko kronika (hango eta hemengo irudiak, mapa mundia bidaiaren ibilbidea marrazteko, aireportuan egindako adierazpenak... denetarik).

Bitartean, intereseko informazioa transmititzeko orduan trakets lotutako irudiak eta gutxi landutako testuak dira nagusi eta ez dira erabiltzen ikus-entzunezko medioek dituzten errekurtsioak.

Beste medioetan ez dira hain ikusgarriak tarte propagandistikoak baina egon badaude. Agian, gehien erabiltzen den formula *kartara egindako* edo *enkarguzko* elkarrizketak dira. Hala ere, irratian izan ezik, elkarrizketak ez nituzke sartuko genero informatibo hutsaren barruan. Prentsa idatzian, erreportaia propagandistikoak faborezko tratuarekin lotuta egoten dira, hau da, primizia diren heinean egiten ohi dira.

Informazioa arma politiko gisa. Begi-bistakoa da. Bizi dugun gatazka-egoeran inon baino ageriago. Noiz gertatzen da erabilera hau? Batik bat, albistearen helburu nagusia agente politikoak eragitea bihurtzen denean (gehienetan agente horiek kaltetzeko asmoz), edo agente politikoen gizarteratzea eragozten denean (isiltasuna edo distortsioa). Orduan, kode deontologiko guztiek ez dute deus balio.

Informazioaren erabilera oker hauek, oro har, debalatu egin dute dudarik gabe genero informatiboa, eta geldiarazi egin dute bere garapena. Azken batean, indarrak bide okerre-ra bideratu baitira.

KAZETARIEI LOTUTAKO ERAGOZPENAK

Faktore hauei, kazetariekin zuzenago lotuta dauden hiru arazo gehitu nahi nizkieke: kontestualizazio eza, estilo narratiboaren narraskeria eta kazetariak gaia ez menperatzea.

Kontestualizazio eza. Albisteen eta telepipoen sindromea da. Berritasunaren izenean, azken orduko flashak balio du bakarrik. Baina horren atzetik beste bat dator, aurrekoarekin zerikusirik ez daukana, eta ondoren beste bat, eta abar. Azkenean, albistegiak edo egunkarietako orrialdeak albiste-pilaketa baino ez dira. Batzuetan, koherentzia pixka batekin ordenatuta; beste batzuetan, edozein modutan. Gehienetan, kontesturik gabe, albistearen atzean dagoen arazoari edo interesguneari begiratu gabe. Puntu distiratsuenei bakarrik erreparatzen diegu, paisaia nolakoa den ikusi gabe eta, jakina, gure ikusle, entzule eta irakurleei kontatu gabe.

Estilo narratiboa. Ez du behar beste aurrera egiten. Batetik, itzulpenaren zama. Egunerokotasunean lanean dihardugun komunikabideetan itzulpenak izugarritzko pisua du eta oztopo handia da estilo propioa garatzeko. Bestetik, teletipoen hizkeraren menpekotasuna. Agentzietako teletipoak ez daude pentsatuta irakurriak izateko (eta askotan horixe gertatzen da irrati-albistegietan) ezta egunkarietako albisteak idazteko ere (laburrak egiteko ez bada). Eta, gainera, askotan gure artikuluen osagai nagusia dira. Hirugarrenik, artikuluak edo kronikak ordenatzeko modua ez da egokiena izaten.

Kazetaria eta gaia. Oso ohikoa da, gure artean, kazetariak ez menperatzea azaldu beharreko gaia. Gure errealitatea konplexua, korapilotsua eta askotarikoa da, denbora eta ahalegin dexente behar da gai bat duintasunez menperatzeko eta kazetaria erlea bezala dabil (edo bidaltzen dute) gaitik gaira. Baina, bestalde, nik sumatu dut kazetarien artean nolabaiteko utzikeria gaiak ulertzen saiatzeko, eta batzuetan lotsa gutxi ezer ulertu gabe gai bat azaltzea tokatzen denean.

Laburbilduz. Euskal komunikabideek eta euskal kazetariok alboratua dugu genero informatiboa, berritzeko eta garatzeko beharko lukeen arretarik gabe. Arazoa mahaigaineratu, eta bere dimentsioa eta faktoreak azaltzea izan da nire orain arteko lana. Arazoari aurre egiteko, azterketa sakonago eta xeheagoa beharko litzateke, komunikabide bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz. Azterketa sistematiko horrek nahi izanez gero, doktore-tesi baten tamaina har lezake.

Dena dela, nondik norako batzuk aipatuko ditut. Komunikabide mota bakoitzak bere erantzun bereziak bilatu beharko ditu. Telebistak bereak, irratiak bereak, aldizkako prentsak bereak eta eguneroko prentsak bereak.

Telebistaren erronka nagusia, genero informatiboa garatzekotan, irudien erabilera egokian datza. Batetik, zerbait gehiago egitea irudiak beraiek izateko informazioa eta ez egun maizegi gertatzen den bezala informazioaren apaingarri. Bestetik, hari narratiboa gehiago zaintzen duen irudi-uztarketa lantzea.

Euskarazko irratigintza gehiago arduratu beharko litzateke lengoaiaz, komunikazioa hobetzeko, estereotipoetatik eta idazkuntzaren moldeetatik aldentzeko. Eta aldi berean bitarteko teknikoan erabileraz, batik bat zuzeneko konexioei begira. Ahaztu gabe memoria, dokumentazioa, informazioen arteko lotura eta hariak, irratia-abiaduran azkarregi lurperatzen baitira gaiak.

Aldizkariak berezko daukaten abantailak gehiagotan eta egokiago erabiltzea kontuan hartu beharko lukete: gaiak sakontzeko denbora eta osotasunez eskaintzeko aukera. Herri aldizkariak umezurtz daukate genero informatiboa, kronika sozialaren mesedetan, eta ez legoke gaizki kasu gehiago egitea, aukera sobera baitago.

Egunorako prentsak borroka-fronte asko ditu gai honetan. Hizkera askatu eta freskatu egin behar du. Teletipoen kutsaduratik aldentu egin behar du. Narrazioaren tonua berreskuratzea egin behar du. Informazioaren balioaz jabetu egin behar du. Informazioaren zatikatze zentzubakoa gaintitu behar du. Baliabideak dibertsifikatzera jo behar du, hau da, informazio bat osatzen duten testu-mota diferenteak erabili eta irudi eta grafikoen hornitzea gehiagotan eta txukunago egin behar du. Idatzizko iturriak edo jatorrizko agiriak gehiago estimatu behar ditu. Eta beste hainbat gauza.

Zeregin neketsu honetan unibertstatetik laguntza paregabea etor liteke, baina tamalez irakaskuntzaren eta kazetaritza praktikoa munduak oso urruti daude, ia inkomunikaturik.

Nire ustez bada garaia elkarlanean aritzeko, eta unibertstatetan egiten diren ikerketek komunikabideen eta kazetarien arazoei erantzuteko balio dezaten eta beren jarduera garatzeko eta hobetzeko bidera daitezten.

Horrez gain eta aparte, lehenago aipatutako basamortuko espejismoetan erori gabe, oso ongi etorriko litzaioke euskal komunikabideetako genero informatiboari albiste eksklusiboak eta garrantzizkoak maiztasun handiagoz eskuratzea, izan ere, dohain hori ez baita gure ezaugarrietako bat. Baina hau beste ixtorio bat da.

PUBLIZITATE OFIZIALA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA EUSKAL PRENTSA

Euskaraz informatua izateko eskubidetik
abiaturiko aportazio juridiko bat

IÑIGO URRUTIA

Lan honek objektu zehatza du. Euskaraz informatua izateko eskubidetik abiatuz, euskal prentsa idatzian publizitate ofiziala (edo instituzionala) sartzearen betebeharrak/eskubideak jardungu dugu. Euskarazko prentsa idatziaren erregimen juridiko-linguistikoaren gaineko azterketa izan nahi du honenek, beraz ez da komunikabideei buruzko lan osoa. Ez zaio telebistari, irrati edota gainerako komunikabideei erreferentziarik egingo. Irakurleak igerriko duenez, lana lantzerakoan *Euskaldunon Egunkaria*-ren adibidea hartu da azterketaren bizkarrerezur gisa.

Aztergai honetan, legeek agintzen dutena eta praxiak erakusten digunaren artean alde handia dago. Hori horrela, lege-

-edukiak azterturik soilik ezin buka genezake lan errealik. Ezer lantzerakoan, gaiak agintzen du; eta gai honek lege-educietako interpretazioetan larregi ez luzatzea agintzen digu, bestelakoan ondorio faltsuetara eramango gintuzke.

Aitortu behar dut zuhurtasunez ekiten zaiola lanari. Izan ere gai honetan aspektu juridiko eta metajuridikoen arteko muga ez baita argi bereizten. Edozelan ere, har itzazue ondoko lerroak arloaren gaineko aportazio juridiko gisa, zuhurtasunez idatziak baina aldi berean sendo. Bertan aurkituko duzuen nire iritzi subjektiboa da, beraz, nolabait ere interesatua. Ekin diezaiogun, bada, azterketari.

INFORMATUA IZATEKO ESKUBIDEA ETA EUSKARA

Informazioa jasotzeko eskubidea, era espresu edo tazitoan, oinarrizko eskubide gisa izaeratua izan da gure inguruko Estatu¹. Nahiz eta hori horrela izan, Estatu eleanitzetako² konstituzioek informazioa jasotzeko eskubideari ez diote, orokorrean, inolako edukin linguistiko espresurik eman³. Baina horrek ez du esaterik nahi informazioa jasotzeko eskubideak edukin linguistikorik ez duenik. Bestelakoan, hizkuntzik gabeko mezu informatiboei bide emango litzaieke eta hori, logikaren arabera, ez da posible.

Infomatua izateko eskubideak edukin linguistikorik baduela esatearekin ez da nahikoa. Pentsatzen jardun ezkerro baieztatu beharko litzateke batzuetan informazioa jasotzeko eskubideak hizkuntzekiko erabat independenteki funtzionatzen duela; noski, oinarrizko eskubide horrek bere eremupean jasotzen ditu, ez bakarrik Estatuko hizkuntza ofizialean/ofizialetan mezu informatiboak jasotzeko eskubidea, bestelako hizkuntzatan igortzen diren mezu informatiboak ere bere eremupean jasotzen baititu.

Baina hori bezain egiazkoa da, eskubide horren aplikazioari dagokionez hizkuntza guztiak ez daudela maila berean, besterik pentsatzea bidegabekoa izateaz gainera, ofizialtasuna mugatzea ekarriko bailuke. Hizkuntza guztiak, juridikoki, mai-

la berean ez daude; hizkuntza ofizialari zenbait eskubide lotzen zaizkio, horien artean hizkuntza ofizialean informazioa jasotzeko eskubidea legoke. Ofizialtasunak, beraz, informatua izateko eskubideari lehen mailako edukin linguistikoa eranstean dio.

Euskal Herriko toki batzuetan euskara ofiziala da. Hori horrela izanik lurraldez lurralde desberdintasun juridiko nabarmenak ageri zaizkigu informazioa euskaraz jasotzeko eskubidearen konfigurazio juridikoari dagokionez.

Euskal Autonomi Elkarteke Autonomi Estatutuko 6.1 eta 2 artikuluei jarraiki, 10/1982 Legeak, euskararen nomalkuntzari buruzkoa, bere 5.2.c artikuluan informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea, bestelako hizkuntz eskubideen artean, jaso du:

5.2. Euskal Herriko hiritarrei honako oinarriko hizkuntz eskubide hauek aitortzen zaizkie: ...c) Aldizkako argitalpenak, irrati eta telebista saioak euskaraz jasotzeko eskubidea⁴.

Aipagarria da 5.2. artikuluko lehenbiziko bi hizkietan jasotzen dituen hizkuntz eskubideekiko (Administrazioarekin harremanak euskaraz zein gazteleraz izateko eskubidea —5.2.a art.—; eta hezkuntza euskaraz eta gazteleraz jasotzeko eskubidea —5.2.b art.—), euskaraz informazioa jasotzeko eskubideak desberdintasun nabarmen bat ageri duela, hots, ez dela euskaraz zein gazteleraz informazioa jasotzeko eskubiderik aipatu, eskubide hori euskararekin besterik lotu ez duelarik. Aurrerago aztertuko dugu horren zergatia.

Baina horren aurretik, aipa ditzagun araubideak agertzen dituen ezaugarri batzuk.

Deigarria da, behinik behin, Euskararen Legean informazioa euskaraz jasotzeko eskubideak txokoa aurkitu duen neurrian, euskaraz informatzeko eskubidea ez dela ageri eskubide lege. Informazio-eskubidea eta euskara lotzen dituzten artikuluek, bakarrik eskubide horren aurpegi pasiboa jaso dute. Aurpegi aktiboa ez da inon ageri.

Argi dago euskaraz informatua izateko eskubidea, euskaraz informatzeko eskubidearen bitartez baldintzatua dagoela, be-

raz, nahiz eta eskubidearen aurpegi aktiboak Legean aitorten espresua izan ez, ezin esan daiteke berau existitzen ez denik⁵ edo baldintzatua izan daitekeenik.

Euskararen Legeko 22. eta 25. artikuluko bitartean komunikabideetan euskararen erabilpena araututa ageri da. Artikulu horiek dira, funtsean, komunikabide idatzietan euskarak duen babes estandarra identifikatzeko ahaleaginean, baliogarri izango zaizkigunak. Hona hemen Legeak agertzen dituen parametroak:

Bat.— Euskaraz informatua izateko eskubidea aitortzen da (5.2.c art. eta 22.art.a).

Bi.— Gobernuak bi hizkuntza ofizialen arteko erabilpenak pareka daitezen ahaleginak egin behar ditu (22.2 art. eta 23. art.).

Hiru.— Gobernuak Euskal Autonomi Elkartearen eremupeko komunikabideetan euskara lehentasunez erabilia izan dadin sustapen-politika martxan jarri behar du (23.art. eta 25. art.).

Lau.— Progresibitatea euskaraz informatua izateko eskubideari erantsitako baldintza tenporal gisa agertzen da (22.art. eta 25. art.).

Bost.— Sustapen-politika zertan oinarritu behar den ez da zehaztu. Ordea, Nafarroako 18/1986 Foru Legeak —abendua-ren 15ekoa, *vascuence*-ri buruzkoa—, 27.1 artikuluan sustapen politika horren oinarriak agerzen ditu aipatuz «*planes de apoyo económico y material*». Parametro horiek aurrean izanik bi ondorio azpimarratuko nituzke:

Batetik: arlo honetako hizkuntz normalkuntzaren helburua, komunikabide-munduan hizkuntza bien pareko agerpena izatea dugu. Helburu hori bere neurrian kokatua izan dadin, ez dugu ahanzi behar komunikabide idatzien *eskaintza* ez dela soilik Euskal Herritik sortzen, Estatu mailakoak ere Euskal Herriaren merkatua osatzen baitute, beraz helburutzat euskara eta gaztelararen agerpenaren parekotasuna lortzea izanik, euskal prentsaren aldeko sustapen-politika desorekatua (baina mesedegarria aldi berean) jarri beharko luke martxan.

Bestetik: botere publikoei helburu hori lor dezatela agintzen zaie; baina botere publikoek beren gain hartu behar duten sustapen-politika zein behar duen izan ez da zehazten, ez da eperik ezta betebeharrak espresurik agintzen; gainera, progresibitatearen elementu distorsionatzaileak eraginda, euskaraz informatua izateko eskubidea bera, baldintzatua agertzen da. Bi hitzetan, botere publikoek euskararen aldeko sustapen-politika eraginkor bat burutu behar badute ere, legeak ez du mekanismo loteslerik arautu, beraz, unean uneko borondate politikoak sustapen-politikaren ildoak ezarriko ditu.

Euskararen Legea onartua izan zenetik laster hamabost urte igaroko diren honetan, praxiak erakusten digu legean agertzen den helburua eta gaur egungo egoeraren artean alde handia, handiegia ene ustez, dagoela.

Nafarroan, gauzak askoz ere atzeragotik aurrera ikusi behar dira. Nafarroako babes estandarra askoz ere eskasagoa da. 18/1986 Foru Legeak —euskarari buruzkoa—, 27. artikuluan, honako normalkuntza-helburu hau zehaztu du: «*que los medios de comunicación empleen el vascuence de forma habitual y progresiva*». Legeak progresibitatea helburutzat jo du, normalkuntza-bidetzat jo beharrean; hori, besterik gabe, Nafarroako hizkuntz politikaren adierazle garbia dugu⁶.

EUSKARAZ INFORMATUA IZATEKO ESKUBIDEA ETA BOTERE PUBLIKOEN INFORMATZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Lasagabaster-ek azaldu duenez, informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea, izaera subsidiariodun eskubide prestazionala da⁷. Horrek esan nahi du, Gobernuari dagokiola eskubide hori eraginkorra bihur dadin bitartekoak ezartzea; baina eskubidea, prestazionala izateaz gain, subsidiarioa ere bada, beraz, gizarteak berak eskubide hori bermatua izateko bitarteko edo lanabesak antola (autoantola) ditzake⁸. Prentsa idatziaren kasuan, euskaraz informatua izateko eskubidearen subsidiariotasunak eragin osoak bete ditzake. Horixe dugu *Euskaldunon Egunkaria*-ren kasua, bat aipatzearen.

Esan bezala, euskal gizarte-mugimenduak, prentsa idatzi bidez, euskaraz informatua izateko eskubidea bermatu dezake. Hori horrela izanik, aipa dezagun botere-publikoen *rola* prentsa idatzi bidez euskaraz informatua izateko eskubideari dagokionean. Printzipioz hiru jarduera-esparru desberdin ageri zaizkigu: lehenbizikoa sustapen-jardueraren bidetik letorke, bigarrena informazioa ematearen bidetik eta, hirugarrena publizitate ofizialaren eskutik.

EUSKARAREN ALDEKO SUSTAPEN-JARDUERA

Botere-publikoek, 10/1982 Euskararen Legearen aginduz, euskal komunikabide idatziak sustatu behar dituzte «*a fin de garantizar la equiparación de ambas lenguas*». Komunikabideetan hizkuntza bien erabilpenaren parekotasuna agertzen da sustapen-politikaren ardatz eta helmuga gisa. Baina, informazioaren merkatuaren hizkuntz izaerari begira «parekotasuna» nola identifika daiteke?

Gorago aurreratu den bezala, Euskararen Legeak oinarriko hizkuntz eskubideak zerrendatzen dituenean bi hizkuntza ofizialak kontuan hartzen ditu; adibidez, legeak aitortzen du Administrazioarekin hizkuntza batean edo bestean harremanak izateko eskubidea, baita hizkuntza bietan irakaskuntza jasotzeko eskubidea... bi hizkuntzen arteko simetria⁹ hori ez da ageri euskarazko komunikabideak jasotzeko eskubidea aitortzen denean, 5.2.c artikuluan¹⁰. Horren arrazoia argia da. Informazioa ez da Euskal Herriko komunikabideetatik bakarrik jasotzen; Estatuko komunikabideek ere informazioa igortzen dute, Euskal Herriko gehienak bezala gazteleraz. Hori horrela, ezin pareka daitezke euskaraz eta gazteleraz informatuak izateko eskubideak, eskubide simetrikoak bailiran, ez baitira. Gazteleraz informatua izateko eskubidea bide desberdinetatik bermatua dago; eta gazteleraren erabilpenaren erreferentzia horrek, zabaltasunez interpretatua izan behar dena (gazteleraz mezu informatiboak igortzen dituzten EAEko zein Estatuko komunikabideen erabilpena) euskararen aldeko sustapen-politikaren parametro gisa funtzionatu behar du¹¹. Bi

hitzetan; informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea eskubide asimetrikoa izanik, botere publikoek aurrera eraman beharko luketen sustapen-politikak euskararen aldeko desoreka nabarrena agertu beharko luke. Besterik da, baina, gaur egungo praxia.

INFORMAZIOA IGORTZEA

Botere publikoei informazioa ematea galdatzen zaie.

Betebehar hori arautzen duen xedapena, 14/1966 Legea, martxoaren 18koa, Prentsa eta Inprentari buruzkoa dugu; konkretuki bere 7.1 artikulua, non honakoa ezartzen baitzen:

El Gobierno, la Administración y las Entidades públicas deberán facilitar información sobre sus actos a todas las publicaciones periódicas y agencias informativas en la forma en que legal o reglamentariamente se determine.

Hori arau nagusia da baina arau nagusi horri salbuespenak ezarri zaizkio, bi hain zuzen ere: sekretu ofizial gisa sailkatutako arloak batetik eta, sekretu judizial gisa sailkatutakoak bestetik.

Administrazioari ezarritako betebehar orokor horren arabera, euskal prentsa idatziak informazioak jasotzeko eskubidea du, arau orokorrek ezarritako mugez gain bestelakorik ezin ezar dakizkielarik. Botere publikoek, informazioa ematera beharturik izateaz aparte, batzuetan komunikabideetan iragarkiak sarrarazi ditzakete¹².

PUBLIZITATE OFIZIALA

Botere publikoek komunikabideetan, diru baten trukean, eransten dituzten iragarkiei publizitate ofiziala edo instituzionala deitzen zaie¹³. Administrazioa, beraz, iragarle gisa agertzen da komunikabidearekin kontratu bat sinatu behar baitu eta komunikabideak zehazten duen tarifa bati lotu. Hori horrela izanik, publizitate ofiziala komunikabideen sustapenezko ele-

mentua dela esan daiteke: baina aldiz, arrazoi horren beror-
r rengatik, diskriminaziorako elementua ere bada, publizitatea
medio batzuei bidali eta besteei bidaltzen ez zaien neurrian.

A rgitu beharrekoa dakusat Administrazioak ez duela nore-
kin kontratatu behar duen erabakitze erabateko askatasu-
nik. Zuzeneko kontratazioaren kasuetan ere, hiru printzipio ber-
matu behar dira: lehen, hiritarrok onura publikoak jasotze-
ko dugun printzipiozko berdintasuna; bigarrena, eraginkorta-
suna eta, hirugarrena, objetibotasuna.

Publizitate ofizialak euskal medioetan duen agerpena zen-
bait faktorengatik delimitaturik ageri zaigu. Euskal medioe-
tan agerpen horri dagokionez, ene ustez, alde handia dago le-
gearen interpretazio logikoak eman beharko lukeen emaitzetatik
egungo praxia bitartekoan. Izan ere publizitate ofiziala bidalt-
zeko arloan botere publikoek erabiltzen dituzten irizpideak ez
dute zer ikusirik hizkuntz araubidearen ezarpenekin. Esan
nahi dena da, botere publikoek ez dutela euskararen sustapena
kontuan hartzen publizitate ofiziala kontratatzeke. Euskararen
eta euskal medioen sustapenaren beharrak legean aitorten
e s p resua badu ere, botere politikoek ez dute irizpide hori kon-
tuan hartzen publizitatea kontratatzeke; horren arrazoi na-
gusia borondate politikoa delarik.

Zenbaitetan publizitate ofiziala ez bidaltzeagatik sortu diren
diskriminazioak Auzitegien aurrera eramán dira. Baina, behin
bakarrik agertu da euskara zuzenbide-oinarri bezala. Azter
ditzagun, lehenbizi, euskararekin zerikusirik ez dutenak; on-
doren, erabiltzen diren irizpideak euskara tartean denean apli-
katuak izan direla ager dezagun. Publizitate ofiziala ez bidalt-
zeagatik diskriminazioa alegatua izan zen Auzitegi Gorenaren
lehenbiziko epaia honako hau dugu: Auzitegi Gore n a ren Epaia
1987ko uztailaren 8koa, zeinaren arabera Andaluziako Juntari
galdatu zitzaion publizitate kanpainia bat Sevillako ABC egun-
kariarekin kontratatzerá, aipatuz:

La desigualdad de hecho tiene relevancia jurídica, habida cuenta,
no obstante la falta de regulación legal, de que existe el principio
del que se deriva la necesidad de igualdad de trato... proscribiendo

do el artículo 14 de la Constitución Española toda discriminación por razón, entre otros varios supuestos, de opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social, sin que la excepción producida tenga justificación razonable, es por lo que resulta evidente la consecuencia de la discriminación apreciada. (7. Z.O.)

Euskal Autonomi Elkarteko Auzitegi Nagusiak ere, behin baino gehiagotan publizitate instituzionala medio batzuetara bakarrik bidaltzeari buruzko arazoak aztertu ditu; horien artean 1990ko otsailaren 25eko Epaia dugu, zeinetan gaiari buruzko doktrina generala ezarria izan baitzen:

..no es ésta (Administrazioaz dihardu) libre en la elección de los medios de publicidad con los que, en definitiva, contrate, pues su decisión deberá ser conforme a esos criterios de eficacia y objetividad y respetuoso de aquel principio de igualdad ante los beneficios públicos. Resultando fácil deducir de todo ello, como norma que el Ordenamiento jurídico impone a la Administración en supuestos como el enjuiciado, aquella según la cual la no contratación de un medio que en sus características técnicas se presenta como homogéneo a otros sí contratados exigirá, como requisito preciso para que el derecho a la igualdad en la aplicación de la norma no resulte vulnerado, que la exclusión obedezca a una justificación que se muestre como objetiva y razonable. (3. Z.O.)

Argi dago, publizitate ofiziala medio batzuetara bakarrik bidaltzea diskriminatorioa dela; eta, argi dago, ere, epai horien arabera publizitate-kontratu horiek zuzenbidearen arabera-koak izan daitezen, datu objetiboetan oinarritutakoak izan behar direla. Datu objetibotzat bakarrik «tiradaren kopurua», «zabalkundea maximizatzea»... hartu dira kontuan.

Euskaldunon Egunkaria-k publizitate ofiziala ez jasotzeagatik diskriminazioa alegatu zuenean, Auzitegi Nagusiari aukera zabaldu zitzaion «euskararen» elementua datu objetibo legez baloratzeko, baina hori egin gabe, *Egunkaria*-ren eta gainerrako egunkarien tirada alderatu ondoren, honakoa aipatu zuen:

Debe, por tanto, concluirse que el trato diferenciado que supone la no contratación de publicidad institucional por parte de la Ad-

ministración Autónoma de P.V. con el diario *Euskaldunon Egunkaria*, en este caso, tiene su fundamento en la aplicación de un criterio objetivo que constituye elemento de razonabilidad suficiente y aparta, en consecuencia, dicha actuación de la consideración de discriminatoria y vulneradora del artículo 14 de la Constitución.

Euskararen normalkuntzarenikuspegitik abiatuz, egin daitezkeen balorazio guztiak ezin daitezke ezkorragoak izan. Informazioa euskaraz jasotzeko ikuspegitik abiatuz ere, lege-indarrez aitortua dugun eskubide hori kaltetua agertzen da. Eta hori horrela da nahiz eta erdal medio batzuetan sartzen den publizitate ofiziala bi zutabetan, era elebidunez agertu, izan ere erdal medioetako irakurle goaren artean euskaldunak badira ere, euskal medioetako irakurleei (guztiak euskaldunak, noski) eskubide hori ez baitzaie bermatzen.

Bestalde, komunikabideetan euskararen presentzia areagotzeko botere-publikoei ezarri zaien beharra ere eraginik gabe geratzen da, 10/1982 ENLko helburuak paper errean geratuz.

EUSKAL MEDIOETAN PUBLIZITATE OFIZIALA AGER / EZ AGER DADIN ERAGITEN DUTEN FAKTOREAK

Euskaraz informatua izateko eskubidearen eta euskal komunikabideen alde izan beharko litzatekeen sustapen-politikaren arabera, publizitate ofizialak euskal medioetan agerpen handiagoa izan beharko luke. Azter dezagun zein faktorek duen zerikusirik errealtatezko agerpenean.

AUZITEGI KONSTITUZIONALA

Auzitegi Konstituzionalaren hizkuntzari buruzko azken epaiak sendotzen ari diren doktrina, oinarritzko eskubideei edukin linguistiko eskasa ematea dugu¹⁴. Doktrina horren funtsa Kataluniatik datozkigun errekurtsioak dira. Kataluniako hizkuntz politika dinamikoa da; eta dinamizitate hori batez

ere arau dinamikoak diren administrazio-erreglamentuen bitartez lortzen da.

Katalunian normalkuntza-legeak zehaztu gabe utzi dituen aspektuak erreglamentuz arautu dira hizkuntz eskubide eta betebeharrak ezarriz (hezkontza-arloan, adibidez, erreglamentuz ezarri da zein izan behar den katalanaren eta gaztelararen erabilpen eskolarra).

Kataluniako hizkuntz politika Auzitegi Konstituzionalaren aurrean errekurritu denean oinarrizko eskubideren bat kalte-tua izan dela argudiatuz, Auzitegia saiatu da oinarrizko eskubideari edukin linguistiko eskasa ematen Kataluniako hizkuntz politika atzera bota gabe. Gogora dezagun elementu politikoak Auzitegi Konstituzionalaren osaketan txokoa duela (Konstituzioak aniztasun politikoa ezarri baitu Auzitegian).

Hori horrela izanik, Auzitegi Konstituzionalak informatua izateko oinarrizko eskubidearen edukin linguistikoaz jardun ez bada ere, ez dut uste euskaraz informatua ez izateagatik anparor-errekurtsoak emaitza onik aterako lukeenik.

Horrenbestez, publizitatea euskal medioetan ez sartzeak ez du Konstituzioak oinarrizko eskubide legez aitortu duen informatua izateko eskubidea kaltetzen.

Eta ondorio hori sendotua geratzen da Auzitegi Konstituzionalak informazio-eskubidea (hizkuntzari erreferentziarik egin gabe) eta botere publikoetatik dirua jasotzeko eskubidea lotu ez dituelarik:

La libertad de los medios de comunicación, sin la cual no sería posible el ejercicio eficaz de los derechos fundamentales que el art.20 de la Constitución enuncia, entraña seguramente la necesidad de que los poderes públicos, además de no estorbarla, adopten las medidas que estimen necesarias para remover los obstáculos que el libre juego de las fuerzas sociales pudieran oponerle. La cláusula del Estado Social (art. 1.1) y, en conexión con ella, el mandato genérico contenido en el art. 9.2 imponen sin duda actuaciones positivas de éste género. No cabe derivar, sin embargo, de esta obligación, el derecho a exigir el apoyo con fondos públicos a determinados medios privados de comunicación social o la crea-

ción o el sostenimiento de un determinado medio del mismo género de carácter público. (5. Z.O. AKE 1981ko martxoaren 16koa)

PUBLIZITATE OFIZIALAK SORTZEN DITUEN MEDIOEN ARTEKO DISKRIMINAZIOAK EPAITZEKO JOERA. IRIZPIDE «OBJETIBOAK»

Publizitate ofiziala medio batzuetan bakarrik sartzeak sortzen dituen diskriminazioak epaitzerakoan Auzitegi arruntek joera argi bat agertu dute.

Diskriminazio hori Konstituzioaren bateragarria ote den epaitzeko medioen artean dauden desberdintasunak kontuan hartu dituzte. Desberdintasun objetiboak hain zuzen ere, baina ez hizkuntzarekin lotuak. Erabili den irizpide nagusia medio bakoitzak duen tirada izan da. Hori horrela, medioak tirada handia badu publizitate ofizial gehiago jaso dezake, Administrazioaren eraginkortasun-printzipioak irizpide horretan funtsaturiko diskriminazioa babesten duelakoan.

Esan bezala, medioaren hizkuntza, irizpide objetiboa izanik, ez da kontuan hartu diskriminazioa juzgatzeko. Eta ez da erabili, nahiz eta Auzitegiari aukerarik falta ez zaion.

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEAN ELEBITASUNA ULERTZEKO MODUA

Euskal Autonomi Elkartean elebitasun simetrikoa estandarizatu da. Elebitasun mota desberdinak badaude ere¹⁵, EAEkoak bi zutabetan gartzeleraz eta euskarazko bertsioak jasotzen ditu, mezu informatiboak diren kasuetan. Formulazio horrek irakurle goaren hizkuntz eskubideak errespetatzen ditu, izan ere bi hizkuntzetako bertsioak aldamenean izanez gero, irakurle goak mezua hizkuntza batean edo bestean jaso baitezake.

Publizitate ofizialari dagokionez, mezu publikoak bi hizkuntzetan idazteak ekartzen duen ondorioa da, medio batera edo bestera bidaliz gero, medio horren hartzailego elebidunari bere hizkuntz eskubideak bermatzen zaizkiola. Baina noski, bakarrik medio horretako hartzailego elebidunari.

Formulazio hori erabat koherentea izango litzateke medio guztietako irakurlego erreala, elebiduna izango balitz. Baina gaur egungo errealtateak erakusten digu hori horrela ez dela. Euskal medioetako hartzailegoa bada elebiduna baina, erdal medioetakoa ez guztia.

Gauzak horrela, euskaldunak dugun informazioa euskaraz jasotzeko eskubidearekin bat etorriko litzatekeen interpretazio bat egin beharko litzateke. Eta horren arabera, publizitatea zein mediora bidali erabakitzeke erabili behar diren datu objektiboen artean, euskal medioetako hartzailegoa (Konstituzio aginduz, elebiduna dena) euskarazko mezu publizitarioen hartzaileak direla kontuan hartu beharko litzateke.

Jarduera administratiboan oinarritzko irizpidea izan behar den eraginkortasunarekin ez da oso koherentea tirada handiko erdal medioetara publizitate elebiduna bidaltzea. Bada koherentea, ordea, euskal medioetara euskarazko (eta, nahi bada, erdarazko) publizitatea bidaltzea.

ADMINISTRAZIO-ANIZTASUNA

Euskal medioetan publizitate ofiziala sartzea baldintzatzen duen bestelako faktore bat, Administrazio desberdinek eta baita Administrazio barneko sailek politika propioa eta irizpide propioak erabiltzen dituztela dugu.

Administrazioen politikak alderatuz gero atera daitekeen ondorioz garbiena, bere aniztasuna da. Gutxi dira publizitate ofiziala arautzeari ekin diotenak. Kasu isolatu gisa Gipuzkoako Diputazioko araua eta Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko Udalen euskara-ordenantzak ditugu. Bestelakorik egon daitezkeen arren, ez ditut ezagutzen.

Hori horrela, ez dago publizitate ofiziala zein mediotara bidali behar den irizpideei buruzko batasunik; ezta ere euskal medioak bultzatzearen aldeko politika bateraturik. Bakoitzak, beren irizpide eta borondate politikoaren arabera medio batera edo bestera bidaltzen dute publizitate ofiziala, hori bai, era elebidunez nagusiki.

Euskararen normalkuntzari mesedegarri izango litzaioke, euskal medioetako hartzailegoa den euskaldungoaren hizkuntz eskubideekin errespetagarria izango litzatekeen politika bateratua. Gainera, eraginkortasun-printzipioak ere asko irabaziko luke. Britainia Handiko praxiari jarraitzea egokia litzateke; izan ere, Britainia Handian organismo bakar bat arduratzen da Estatuko Administrazioko organo desberdinetako publizitate--kanpainiak bideratzen, bitarteko urriak optimizatuz.

BORONDATE POLITIKOA

Borondate politikoa lan honetako atal desberdinetan aipatu dugu; halaberharrez aipatu ere. Gaur egun dugun esperientziak erakusten digunez, borondate politikoak berebiziko garrantzia du publizitate ofiziala euskal medioetara bideratzearen *affaire* honetan, eta garrantzirik badu, publizitatea nora bidali behar den erabakitzean elementu diskrezionalek tarterik badutelako; hots, «borondatea» ahalmena dagoenean bakarrik ager daiteke.

Gaur egun ondoriozta daiteke botere publikoek, orokorrean, ez dutela euskal medioak bultzatzearen alde borondate nabarmenik agertu, nahiz eta legea interpretuz bestelako politika bat gailendu beharko litzatekeen. Eta hori horrela den bitartean, hots, borondate politikoa agertzen ez den bitartean, bertan euskararen eta informazio-eskubidearen arteko uztarduraren gainean egin daitezkeen lege-interpretazio eta abarrak paper errean geratuko dira.

Gauza bat legearen interpretazio logikoa da, eta besterik botere publikoek agertu duten praxia.

ETORKIZUNARI BEGIRA: PRENTSA IDATZIAN EUSKARAREN ERABILPENARI BURUZKO BALIZKO ARAUBIDEA

Gauzak horrela, proposa ditzagun etorkizunari begira euskaraz informatua izateko eskubidea eraginkorra bihur lezaketen neurri batzuk.

Lan honetan, aski argi geratu da euskaraz informatua izateko eskubidea desorekatzen duen faktorerik nagusia botere publikoen borondate eza dela. Hori berriz ere, azpimarratzekoa dakusat. Beraz, ezin esan daiteke Legeak euskaraz informatua izateko eskubidearen gauzatze eraginkorrari oztopoak ezartzen dizkionik, nahiz eta denbora aurrera joan ahala gero eta sendotuagoa dugun «progresibitatea» elementu distorsionatzaile gisa oraindik ere agertzen den.

Prensa idatziak ikaragarriko eragina du gizarte-iritzia n sorkuntzan, baina hori ezin erabil daiteke oinarritzat jo den hizkuntz eskubide bat baldintzatzeko. Edozelan, hori da ene ustez botere publikoek euskal prentsa artikulo agertu duten axolagabekeriaren arrazoi nagusietarikoa.

Proposamen gisa, hona hemen balizko Euskal Prentsa Idatziari buruzko Arau batek edota Euskararen Normalkuntzarako Plangintza Orokor batek euskararen normalkuntzari begira ezar lezakeena:

Bat.— Euskararen Legeak 15 urtetako ibilbidea izan duen honetan, euskaraz informatua izateko eskubidea baldintzatzen duen progresibitatea Legetik desagertarazi beharko litzateke edo bestelako formulazio zehatzagoa eman. Azken horri helduko baltzaio, Legea baino askoz ere dinamikoagoak diren Dekretuak edo Aginduak erabili beharko lirateke, Katalunian bezala, azken horiek erraz baitira aldatzen.

Bi.— Publizitate instituzionala prentsa idatzia sustatzeko baliogarria den neurrian, euskal medioak sustatzeko (ez dezagun ahanzi hori Legeak botere publikoei galdatzen dien betebeharra dela) baliogarria izango den publizitate instituzionalari buruzko araubidea ezarri beharko litzateke. Adibidez, Administrazio guztiei begira publizitate ofiziala bidaltzeko gutxienezko kuota batzuk ezarriz.

Hiru.— Araubideak Administrazio guztiak behartu litzake, euskaldungoak duen euskaraz informatua izateko eskubidearen oinarrian, publizitate instituzionala euskal medioetan behinik behin sartzera.

Lau—. Administrazioak zehaztu beharko luke era elebidu-
na (bi zutabetan) noiz erabili behar duen. Jakinik erdal me-
dioetako jasotzaileek erdara erabiltzen dutela eta Administra-
zio jarduera irizpidea den «eraginkortasun printzipioari» jarrai-
ki, eta baita euskal medioen aldeko sustapen-politikari jarraiki
ere, erdal medioetan erdal bertsioak besterik ez sartzearen al-
de ager daiteke. Interpretazio hori zuzenbidearen arabera
dela dakusat.

1. Estatu espainiarrean, 1978ko Konstituzioak, bere 20.1.d artikuluan informazioa jasotzeko eskubi-
dea era espresuan jaso du.

Estatu frantziarrean, ez da informazioa jasotzeko eskubidea espreski arautu, ezta kazetariak beha-
rrezkoa duen informazioa jasotzeko eskubidea ere. Edozelan, doktrina administratibista frantziarrak,
eskubide berri horren agerpenaz jardun du, prentsa-askatasunari erantsitako dimentsio berri bat le-
gez. Ikus CHINCHILLA MARIN, C., *La radiotelevisión como servicio público esencial*. Tecnos, Madril,
1988, 60. or. Adierazpen askatasunaren hizkuntz edukinaz ikus WOEHRLING, J., «La réglementation
linguistique de l'affichage public et liberté d'expression: P.G. Québec c. Chaussure Brown's Inc. *McGill
Law Journal*, 1987, 878-886 or. bit.

2. Gogora dezagun, Europari bagagozki, Estatu guztiek, bi ezik (Luxenburgo eta Portugal), hizkuntz ela-
karte desberdinak jasotzen dituztela bere baitan. Hizkuntz eskubideei buruzko xedapenetako ikuspegi
konparatuz jabetzeko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S., *Las minorías lingüísticas de Europa occidental:
documentos (1492-1989)*, 1. lib., Euskal Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz, 1990; eta ikuspegi zabalagoaz,
CENTRE INTERNATIONAL DE RECHERCHE SUR LE BILINGUISME, *Minorités linguistiques et inter-
ventions. Essai de typologie*, Press de l'Ybiversuté Laval, Québec, 1978.

3. Konstituzio espainiarrak 20.3 artikuluan honakoa dio: *La ley regulará la organización y el control par-
lamentario de los medios de comunicación social dependientes del estado o de cualquier ente público y ga-
rantizará el acceso a dichos medios de los grupos sociales y políticos significativos, respetando el plura-
lismo de la sociedad y de las diversas lenguas de España*. Beraz, bere aginte-eremua kominikabide
publikoetara mugatzen da eta, bere edukin linguistikoari bagagozki agindu minimoak ezartzen ditue-
la esanenezake («*respeto a la diversidad lingüística*»); hau honela, Konstituzioaz geroko legeek kanti-
tatea eta kualitatea zehaztu dezaketela uler daiteke; artikulua hori hizkuntzen erabilpenaren ikuspegi-
tik ez da muga gisa agertzen. Ikus COBREROS MENDAZONA, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del
euskera*. HAEE-IVAP, Oñati, 1989.52. or., eta URRUTIA LIBARONA, I., «Euskaraz informatua izateko esk-
ubidea» INIGO, J.J. ed. *Publizkuntza*, Donostia, 1992,121.or.

4. Itzulpena, nirea.

5. Hori horrela ulertuko ez balitz, bidegabeko ondorioei atea zabalduko litzaizkieke; adibidez, euska-
razko argitalpenek ez lukete subentziorik jasotzeko eskubiderik izango, gaztelerazkoak izango luketen
neurrian, edo euskarazko argitalpenak zentsuratuak izan litezke.

6. Hona hemen abenduaren 15eko 18/1986 Legeko 27. eta 28. artikulua:

27.1.— *Las Administraciones Públicas promoverán la progresiva presencia del vascuence en los medios
de comunicación social públicos y privados.*

*A tal fin, el Gobierno de Navarra elaborará planes de apoyo económico y material para que los medios de
comunicación empleen el vascuence de forma habitual y progresiva.*

2.— *En las emisoras de televisión y radio y en los demás medios de comunicación gestionados por la Co-
munidad Foral, el Gobierno de Navarra velará por la adecuada presencia del vascuence.*

28.— *Las Administraciones Públicas de Navarra protegerán las manifestaciones culturales y artísticas,
la edición de libros, la producción audiovisual y cualesquiera otras actividades que se realicen en vascuence.*

Deigarria da Nafarroako normalkuntza-legea proiektua izan zenean, 28. artikuluari eman zitzaion lehenbiziko idazkerak «*Las Administraciones públicas de Navarra formentarán...*» jaso zuela, eta Legea onartua izan zenean «*fomentarán*» terminoa «*protegerán*» terminoaren bitartez aldatua izan zela. Beraz, sustapen-politikak mugatzeko baliogarria izan zen aldaketa.

7. LASAGABASTER HERRARTE, I., «El euskera y los medios de comunicación en la Comunidad Autónoma del País Vasco», COBREROS (Bat.), *Euskararen Lege-antubideari buruzko Jardunaldiak/Jornadas sobre el régimen Jurídico del euskera*, HAAE-IVAP, Oñati, 1990, 214. or..

8. «*Se entiende que si la sociedad autónomamente satisface ese derecho entonces no es necesaria la intervención pública*». LASAGABASTER aur. aip. 224.or..

9. Besteak-beste, OTTO Y PARDO, I. de; *Estudios sobre derecho Estatal y Autonómico*. Tecnos, Madrid, 1986, 210. or.

10. Besterik da 10/1982 ENLko 22.1 artikuluaen edukina. Bertan hizkuntzen arteko simetria ageri zaigu. LASAGABASTERek 5.2.c artikulua eta 22.1 artikuluaen arteko desberdintasuna azaltzerakoan, 22.1 artikuluaen kalitate eskasa azpimarratu zuen, 22.1 artikuluaen literaltasunak zentzugabekeria darrrela azpimarratuz. LASAGABASTER aur. aip. 223. or.

11. LASAGABASTER aur. aip. 223. or..

12. 14/1966 Legea, martxoaren 18koa, Prentsa eta Inprentari buruzkoa, 6.1 art. *Las publicaciones periódicas deberán insertar y las agencias informativas distribuir, con indicación de su procedencia, las notas, comunicaciones y noticias de interés general que la Administración y las entidades públicas consideran necesario divulgar y sean enviadas a través de la Dirección General de Prensa, que las cursará cuando lo estime procedente para su inserción con la extensión adecuada. 2. Tales informaciones serán remitidas sin discriminación entre publicaciones análogas, sujetándose a las normas que reglamentariamente se determinen.*

13. BEL MALLÉN, I., CORREDOIRA Y ALFONSO, L., eta COUSIDO, P., *Derecho de la información. Sujetos y medios*. 1.lib., Colex, Madrid, 1992, 341. or.

14. Ikus bereziki, AKE, 337/1994, abenduaren 23koa. Baita ere AKE, 46/1991, otsailaren 28koa. Ikus ere BAÑO LEON, J.M. «¿Igualdad contra Autonomía?», *Autonomías*, 20, 1995, 99. or..

15. Elebitasunari buruz bibliografia ugaria da. Hona hemen erreferentzia modura idazlan interesgarri batzuk. HAMERS, J., BLANC, M., *Bilingüité et bilinguisme*, Pier Mardaga edit., Bruxelles, 1983. MACKEY, W.F., *Bilingüisme et contact des langues*. Klincksieck, Paris, 1976. KELLY L.C., *Description and measurement of bilingualism*, Toronto University Press, Toronto, 1969. BOURHIS, R.Y., *Social and individual factors in language acquisition. Some models of bilingual proficiency*. OISE. Toronto, 1987.

PRENTSA JARDUNALDIETAKO ONDORIOAK

EUSKALKOM

Euskalkom-ek antolatutako Prentsa Jardunaldietan parte hartu zutenek ondoko zortzi puntuetan laburbiltzen diren ondorioak plazaratu zituzten Jardunaldien bukaeran, Donostian, 1996ko ekainaren 1ean.

1.— Euskarazko prentsak funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntz komunitatean. Euskal Herri mailako lotura mantenduz, hizkuntza komunitatea trinkotzen duen elementu apurretako bat da. Bestetik, euskaraz bizitzeko ezinbesteko elementua da.

2.— Irauteari begira jarrita daude energiarik gehienak. Irautearekin eta produktu horretarako egokitze eta hobetzearekin

asko egiten du euskal prentsak. Eta hori egiteko ere estua-
sun handiak ditu.

3.— Pauso kualitatiboak emateko, azpiegitura indartzeko, gizarteko presentzia soziala benetan hazteko biderik ez du. Hazi nahi, hazi behar eta hazi ezina. Izan litekeenera iritsi ezina da egoeraren laburpena.

4.— Euskal prentsa idatziko langileak lan-baldintza eska-
setan daude halaberrez. Amildegia dago ikusentzunezko proiektu publikoetako lan-baldintzen aurrean, eta amildegi hori kaltegarri eta eutsiezina da.

5.— Merkatua osatzeko pausoak ematea lehentasunezkoa da. Irakurketa bultzatzeko modua eratu behar da, irakurle berriak, batez ere gazte-belaunaldiak euskal prentsara sartze-
ko. Honek sustapen ahalegin handia eskatzen du. Bere lehen-
tasuna azpiegitura eta enpresa-ikuspegia indartzea da.

6.— Lehentasun horietan prentsagileei dagozkien zeregi-
nak dira:

- Elkartzea, ikuspegia lantzeko.
- Elkarlan-bideak urratzea. Bereziki publizitatean enpresa handietara iristeko masa kritikoa lortzeko, sustapenerako, horniketarako eta hainbat arlotarako.
- Enpresa-ikuspegia lantzea, lan komertzialean energia gehiago jartzea.

7.— Gizartea sektorearen egoera zailaz eta euskal prentsa-
ren estrategikotasunaz jabetzeko ahaleginak egin behar ditu-
gu.

8.— Erakunde publikoei politikan aldaketa sakona eskat-
zen diegu. Apustu instituzionalik eta kultur politika egokirik ez
dago alor honetan.

Orain arteko laguntzak hiru ezaugarri ditu: eskasa, uneoro-
ko borondateari atxekia, gutxi arautua eta arlo giltzarri batzuk
ahaztu dituen. Aspektu negatibo horiek aldatu behar dira,
aldaketa sakona eginez:

- Sektorea ren garrantzi eta desafioei egokitutako laguntza.
- Laguntza arautua, jokuko arauak finkatu eta optimizazioa bultzatuko duena.
- Azpiegitura indartzeko inbertsiotarako, sustapenerako, eta merkaturatze/banaketarako laguntza, enpresak etorkizunear burujabeago izan daitezen.
- Publizitate-politika egokia. Euskaraz informatua izateko eskubidetik abiatuta euskararen esparrurako publizitate instituzionalari buruzko araubide bat martxan jarri behar da lehenbailehen.

GUNEN GURPILEAN

JOXERRA GARZIA

ARTE GARESTIA
KOMATXO ARTEAN
GALEUZKA ANDORRAN
WISLAWA SZIMBORSKA VS BOB DYLAN
OPERA
ZAUNKAK
OTEIZA BERTSOZALE

IÑIGO ARANBARRI

FUSIL BEGIAK BEHA
GEURETU EZINAK
ETA GEURETZEN DITUGUNAK

IMANOL AGIRRE

U HOLDE HANDIA
IKUSKARIEN COSA NOSTRA
EUSKAL SHOWMEN
WOODSTOCK SINDROMEA
WOLFSTONE
ARRIAGAREN EZUSTEKOA
ZILAR ZERUAK
AZKEN HATSA OHOLTZAN

LONTXO OIHARTZABAL

IKERLARI ONAK ETXEAN
IKERLARI GAZTEEI LAGUNDU BEHARRA
IKERKUNTZA ETA ETXE-BARRUKO KONTRAESANAK

KIKE AMONARRIZ

GAZTELANIA MUNDUAREN AURREAN
BIHARKO EUSKAL KOMUNIKABIDEAK
HIL ARTE EUSKARAZ BIZI
EMAKUMEAK ETA EUSKARA

KULTURA
LITERATURA
IKUSKIZUNAK
UNIBERTSITATEA
SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

JOXERRA GARZIA

«Euskal Autonomia Elkartean eta Nafarroako Foru-Komunitatean urtez urte egin izan diren kudeaketek ez dituzte oso arin baino lagundu, herri honen kultura-premiak asetzen. Umorermerkea edo arte garestia, ez dirudi beste aukerarik eskaintzen digutenik. Kulturak, ordea, herriaren protagonismoa du oinarri» (*EKBren «Eman euskarari berea/Justicia para el euskara» kanpainaren eskuorritik*).

ARTE GARESTIA

Donostiako Zinemaldiaren argiak itzali berri dira lerrook idazten ari naizelarik. Miarritzen, berriz, oraintxe hasi dira

pizten. Jendearen harrerari erreparaturik, berealdiko arrakasta izan du aurtengo edizioak Donostian. Eskaintza egokia izan da, ongi aukeratua, interesgarria, askotarikoa.

Kanpotik ere jende mordoa etorri da, ohi bezala. Oherik harapatzerik ez omen zegoen inguru guztian. Kulturarako diru-eskasia hitzetik hortzera dabilen honetan, ordea, baliatu al du Zinemaldiak bere sona finantziatzaileen —gu guztion— nortasunaren berri emateko?

Kultur arduradun bat baino gehiago agertu izan zait kexu, Zinemaldiak zurrupatzen duen dirua dela eta ez dela. Non galtzen dira gero kexu horiek? Ala kontzientzia zuritzeko ote dira soilik?

Zinemalдитik irten gabe, euskal zinemaren festa moduko bat antolatu zen Gipuzkoako Foru-Aldundian. Gomitea jaso arren, joateko gogo handirik ez neukan. Asmatuko nukeela uste dut, *lunch* hartan gastaturiko dirua hobekiago enplegatzen. Hala ere, elkarte baten ordezkari izateak joatera bultzatzen ninduen. Eskerrak gomite-txartelean bertan aurkitu nuen koartada: «Gizonezkoak traje ilunez». Ez dakit protokoloa zen, ala potrokoloa. Eta emakumeak, berriz, libre, nahi zuten koloreko. Diskriminatua sentitu nintzen.

Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldia, berriz, uztailetik urrira pasa da, udatik udazkenera, eta hil honetan egingo da Zarautzen. Zinemaldi egin egiten dira. Beste batzuek, berriz, ospatu. □

KOMATXO ARTEAN

Gipuzkoako Foru-Aldundia aipatu dudanez, esan dezadan hortixe etorri zaizkigula azken aspaldion berririk pozgarrienak. Donostiako Herri Irratia, Gipuzkoako Foru-Aldundiko Kultura Saila eta Euskal Idazleen Elkartearen arteko akordioari esker, literatur programa bat emitituko baita asteazkenero aipatu emisoran, gaueko hamar t'erdietatik aurrera.

«Komatxo artean» izenez aireratzen hasia den programa horren asmoa, literaturzaletasuna suspertzea da. Agian hori ere

ez. Literaturzaleari bere bazka —gaur gaurkoz gainerako he-
dabide gehienetan ukatzen zaiona— emanik ere bere helburua
betetzat joko bailuke.

Gipuzkoarako bakarrik emitituko da programa, eta akaso ez
zuen hemen aipatzeak merezi izango, herri-ekimenerako bide
berri bat zabaltzen duela uste izango ez banu. Alde horretatik,
txalogarria da guztiz Diputazioko kultur arduradunek azaldu
duten malgutasuna eta borondate borondatetsua. □

GALEUZKA ANDORRAN

Aurtengo Galeuzka, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko
idazleen 13. topaketa, Andorran izango da. Gaia, XX. mende
hondarrean idaztea. Gai nagusi hori hirutan banatuko da: Li-
teratura kybernetikaren aroan, publiko eta euskarri berriak eta
ahozko transmisioetik teknologia berrietara.

Lehen gaiari dagokionean, Laura Mintegiren eta Luis Fernan-
dezen txostenak izango dira euskaldunon ordezkari. Bigarre-
nean, publiko eta euskarri berrienean, Iñaki Zabaleta. Ahozko-
tasunetik teknologia berrietarako jauziaz hiru txosten izango
dira. Nagusia, Txema Larrearen esku izanen da. Beste biak, Lu-
zien Etxezarreta eta Xabier Kaltzakortaren kontura.

Horrez gainera, Edorta Gimenez, Mariasun Landa, Iñaki
Zubeldia, Patxi Zubizarreta, Itxaro Borda, Andolin Eguzkitza,
Maite Gonzalez eta ni neu ere han izango gara, hizkuntza ofi-
zial bakartzat katalanera duen munduko estatu bakarrean.

Teknologia berriez hitz egitera bagoaz ere, bidaia mikrobu-
sez egingo dugu, merke beharrez. Ez dio axolarik: agian horre-
tara ahozko-tasuna lantzeko parada izanen dugu, hegazkina
baino berrietarako, kantu eta konturako askoz aproposago bai-
ta autobusa. Nork ez ditu gogoan gaztetako ibiladiak, gogo-jar-
dunetarako txangoak? Larri ibili, oroitzapen horiek gogoan, gaz-
teturik etortzea bat baino gehiago.

Informazio gehiago, itzultitakoan. □

WISLAWA SZYMBORSKA VS BOB DYLAN

Literatur nobel sariari esker, beste poeta baten berri jakin dugu gehienok. Poloniarra, emakumea, 73 urte. Hedabideek, gainerakoan literaturaz hain axolagabe, behin eta berriz errepikatu dituzte agentzietako datuak. Baita poemaren bat edo beste irakurri ere. Ez, noski, poesiaren maitez, primiziaren grina gaiztoz baizik. Biharamunean akabo Szymborska eta akabo poesia... hurrengo sarira arte.

Baina aurtengo Nobelak izan du, irabazleez gainera beste protagonistarik ere. Alde batetik, portugaldarrek kexu dira inoiz ez delako portugesez idazten duen idazlerik saritu izan. Aurten bazuten esperantza adina merezimentu, Saramago eta Lobo Antuneseekin.

Bob Dylanen izendapena, berriz, ustekabekoa gertatu da gehienontzat. Ahozkotasanari euskarri modernoa eman izanagatik izendatu omen dute, besteak beste, eta mundu-mailako erreferentzia bihurtu direlako haren kantik. Andorrara gonbidatu behar ote genuke Dylan? Nik egina dut nire inkestatxo propioa. Gehienak alde atera zaizkit, zergatik ez, euskarri berri bide egin behar zaie, oso ondo dago.

Pentsatzen hasita, gurean ere badugu beste horrenbeste egindakorik. Euskararen eskalara ekarririk, Xabier Lete izendatuko nuke nik hurrengo Nobel sarirako. □

OPERA

Euskarazkorik ezean, gazteleraz entzun ohi dut, Espainiako Radio Nacional delakoan, *El ojo crítico*, kulturaren inguruko irratsaio egunerokoa. Zaharberriturik agertzen da orain, Eduardo Sotillosen gidaritzapean, txukun, arin, interesgarri. Noizko horrelakorik euskaraz?

Aurreko batean, Bilboko operazaleak zituen Sotillos jaunak aipagai. Kideetako bat elkarrizketatu zuen zuzenean. Hango Sotillosen Bilbo laudatu eta goretsi beharra! Espainiako opera-eskaintzarik onena, dudarik gabe, Bilbo. Operazale bil-

botarra, zer esanik ez, adurra zeriola, baietz eta baietz, baina ondo kostata lortua zutela hori guztia.

Bai, kuantu! 200 milioiko dirusail batean 90 milioi eraman ditu Bilboko operazaleen elkarteak. Euskal kulturarako dirua nahi duenak badaki zer egin behar duen: Espainiari begira jarri, Espainiarako eta Espainia-mailan lan egin. Berehala deituko dio Sotillosek.□

ZAUNKAK

Kronikatxo hau egiten hasi nintzenetik zaunka besterik ez dudala egin esan zidan lehengoan lagun batek. Baliteke, baina zakur goseak ez dakit besterik zer egin dezakeen, hori baino hoberik.

Rafael Argullol filosofoak dioenez, errealitatearen erreprezentazio sinple eta hutsalaren aurkako borroka da kultura. Arrazoi Bakarraren diskurtsua baikorra da, eufemistikoa, esaltzailea. Sasi errealitate horren azalpean, errealitatea gatazkatsua eta gordina dela salatzea dagokio kulturari. Kultura beti da inpertinentea. Horri zaunka egitea esaten bazaio, zaunka segitu beharko dugu oraindik puska batean: behar den tokian hitz egiten uzten ez diguten bitartean.

Zaunka egiteari utzi eta ugazabaren esanari ahotsa emateak etekin hobe duela? Bai, noski. Baina nor da zakurrago, gose delako zaunka ari dena, ala ogi koskor bat lortzearen nagusiaren esaneko leial egiten dena?□

OTEIZA BERTSOZALE

Bertsolari Elkarte zena Bertsozale Ekarte bihurtu zaigu. Ez da izen-aldaketa hutsa. Dirulaguntzen iturria gero eta agorrago dagoenez, eta telebistako ateak oso goitik itxirik, orain arte ez bezalako elkarte-eraketa osatu nahi luke. Lehenik eta behin, zabaldu beharra dauka. Jende askok uste bide du derrigorrez bertsolari izan beharra dagoela Elkarteko bazkide

izateko. Ez da horrela. Inoiz ez da horrela izan, eta izen-aldaketa betiko izanera egokitzera baizik ez dator.

Baina Elkartearen biziraupena baino areago dago jokoan. EKBkoen aldarriak dioen bezala, «Kulturak, ordea, herriaren protagonismoa du oinarri». Ez dirudi hori denik diru-banatzaileren ikuspegia. EKBren kanpainia bera, Euskararen Unibertsorearen inguruan sortu den mogimentua... kronika hauetan hasiera-hasieratik salaturiko ezinegonaren sintoma garbiak dira. Bertsozale Elkartea bezalako erakundeak ez dira bertsolaritzaren osasunerako bakarrik komenigarri. Kulturak berak behar ditu horrelakoak, biziko bada. Eta, egia esan, «umore merkearen» eta «arte garestiaren» artean miseria handia dago.

Gezurra baita, gezur interesatua gainera, bertsolaritzaren inguruan dirua barra-barra mugitzen delako hori. Nik ez dut egundo ezagutu artistarik, bertsolaria bezain auzolanean murgildutakorik. Urte guztiko plaza guztiak kontuan harturik ere, diru-kopuru barregarria da bertsolaritzaren inguruan mugitzen dena. Arte merkea eta umore garestia da bertsolariena, zentzu horretan. Operarekin alderatu baino ez dago.

Zaharberriturik agertuko zaigu, beraz, Bertsozale Elkartea. Izenaren eta izanaren arteko zubi den logotipoa ere berria izango omen du. Apaingarri huts izan ez dadin, izena eta izanaren lotura benetakoa izan dadin, Oteizari eskatu zaio logotipoaren diseinua. Nekez asma zitekeela uste dut egokiagorik. Batetik, Oteizaren bertsolaritzarekiko atxikimendua ez baita atzo goizekoa, *Quousque tandem*-eko intuizioak lekuko. Bestetik, euskarazko kulturaren alorrak gaur egun bizi duen ezinegona ondo baino hobeto sinbolizatzen baitu eskultore eta pentsalari oriotarrak: *Quousque tandem? Noiz arte?* □

LITERATURA

IÑIGO ARANBARRI

FUSIL BEGIAK BEHA

Aspaldiko irudi beldurgarriak berritu dizkit udak: etorkizunearn fusilek zainduko dituzte liburuak. Mexikon ikusia da, hiriburuan. Euskaldunontzat liburugintzan hiri esanguratsuetan esanguratsuen, nonbait bada. Durangoko euskaldun batek eroan zuen han ezagutu zen lehendabiziko inprenta. Bergarako euskaldun batek bertan eman zuen 36ko gerra ostean idatzi zen lehen liburua. Bizitzaren mutur biak, boterea eta ihesa, euskaldun bezainbestean urrutiko. Eman dezagun irudi plastiko eran: Fray Juan de Zumarragaren tortura ziegetan idatzi ziren Monzonen gudarien eginak.

Eta jo ezazu Zocalo-tik aurrera, katedralea eskubian duzula beti, liburudenden karrika den 5 de Mayo-n barrena. Han dituzu Manuel Porrúa-ren denda zaharra, klasiko bat, Sanborn's kateakoa harantzago, Mexiko D.F.ko liburudendarik onenak, lau, bost, dozena erdi bat ber-bertan. Eta sar zaitez edozeinetan, eta batean baino gehiagotan aurkituko duzu izua. Mahai handi batek itxiko dizu apalategietarako bidea. Dendariak zer nahi duzun galdetuko dizu, eta botika batean balego bezala aterako eskatutakoa mahai atzean diren zinpeko zaindarien fusil handien begiradapean. Honela da, dendari bat eta armatu bi. Esan dizuet. Fusilen begiek zaintzen dituzte liburuak ebasleengandik. Ez da izenburu txarra filme txar batentzat.

Exageratua haiz bada txikito! Dudarik gabe. Hango kontuak. Hemen ez da horrelakorik. Eta poztu ere egiten da bat hemen liburudenda batean erositako liburuek beste bateko alarman sistema guztiak piztu eta tiro egiten ez dizutenean. Aurreko dendariari poltsan dituzunak desaktibatzea ahaztu, edonori gerta dakiok. Eta bai. Nork edo nork besotik heldu eta bulegora sartzen zaituenean ez duzu zeure burua literaturatik hain gertu inoiz sentitu. Dostoievski-ren nekazaririk izutuena

zara, krimenik beltzenaren aita. Erru ustelak, mehatxuaren itzala, eta azkenean, okerra zuzenduta, barkamena. Galdetu Fray Juani non paratu zuen Mexikora eroan zuen lehen inprenta hura: Netzahualcoyotl-en biloba errearazi zuen ziegan bertan!

Adibide biak ez dira eguneroko, baina irakurzalea liburudendetatik izutzeko ez da ezer hoberik. Eta badator hona ere.

Azken urteotan, urrats handiak eman dira irakurlea eta liburu saltzailearen arteko harremanak zuztar-zuztarretik erauzteko. Azalera handiko lokaletan dela, *hiperlibertan* dela, liburuak utzi dio transmisore kultural izateari. Saltzaileak nekez hitz egingo dizu produktuaz, egileaz, liburua esku artean duzuna baino ez da. Galzorian dira betirako aholkulariak, saltzaile-saltzaileak, *ez daukagu baina ekarriko dizugu, emaidazu izena* ziotenak. Esan dezagun honela, liburua, azken kontsumo-produktu erromantikoa, logika zuriaren arrastoan sartu da.

Honek esan nahi du erakusleihoak gehien ordaintzen duten argitaletxeen aholkuz janzten direla, eskaintza-irizpideak ez direla liburuak berak eskain ditzakeenak, liburuek bizitza laburragoa dutela eta diskriminazio positiboa —euskal liburuak badaki honezaz— ez dela itzal zahar baino. Merkatu librearen legeak dira. Bizitza horrela badoa, zergatik izan behar du diferente liburuekin? Eta egia da. Igualitarismoaren alde egon garenean beti. Orain ulertzen dut fusilak erosleari beha jartzearena. Horrelaxe jarriko nituzke neuk ere. □

GEURETU EZINAK

Eta eman dezagun hala eta guztiz ere fusilen begiei aurre egin, erosle-duintasuna poltsikoan gorde eta liburu batekin irteten duzula besapean, modernitatearen seme-alaba baika-ra azken beltzean.

Oraindik orain eman ditu argitara Euskaltzaindiak BBK Fundazioaren laguntzaz —zer genioen merkatu libreaz?— urteoro antolatu ohi dituen literatura-sarien 1995eko lan ira-

bazleak: Jose Felix Azkona poesian, Juanjo Olasagarre antzerkian, Luis Mari Mujika eleberrian eta Pako Sudupe saioan.

Suduperenak eman dit gogoetarako bidea, badu eta, liburuak berak baino, erabili diren asmoak eta bideak direla-eta nondik heldu.

Ikerketa lan serioa da Pako Sudupek herrikide duen Nemesio Etxaniz «poliedrikoaren» bizitzaz eta ideologiaz burutu duena. Orain arte susmoz eta orri tarratadetan hartutako izaera puskak —Nemesio errenazentista, Nemesio gazte-aldekoa, Nemesio polemikoa, Nemesio erresistentea...— era batu, kontrastatu eta dokumentatuan jasotzeko aukera du euskal irakurleak Suduperen liburuarekin. Bere garaian ondo kokatua ikusiko du Nemesioren sotana luzea, kontestualizazioa egin beharreko lana da. Baina tira dezagun begi-bistara ageri diren harrietatik.

Pako Suduperen lana Nemesioz prestatzen ari den doktoregotesiaren atal bat baino ez da. Unibertsitatetik bideraturikoa beraz. Eta sariketa baten bidez eta esponsorizazio pribatuaz eman dena argitara. Euskaltzaindiaren lehiaketara aurkeztu —eta irabazi— izan ez balu nekez zukeen Nemesioren biografiak argia ikusiko. Arrazoa? Liburudendetan fusilak sartzearen berbera. Nork erosiko du Bigarren Dibisioko futbolari bati buruzko detektibe txostena dendariak behartu gabe? Argitaletxeek gero eta zaletasun txikiagoa dute menturetako. Eta ulertzekoa da. Fusilaren begia dute beha.

Era puztuan jardute honetan Pako Sudupek ulertuko ote dit behintzat Bigarren Dibisiokoarena, hain naiz aldrebesa futbol-kontuak azaltzen. Baina Sudupek herri honek bere memoria osatzeko dituen zailtasunak erakusten dizkigu. Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Aitzol eta enparauak ikertu eta berrargitatu ostean, asko dira euskal ikerlariak berreskuratu eta irakurlearen begietara eman behar dituen on nemesioak. Egiteko dagoen lana da herri izango bagara. Berdin Bigarrenekoak Lehen Dibisiora pasatzearena. Baina hitz egin ere hitz egin beharko da zein den lan hauek zirkulazioan jartzeko biderik egokiena. Plangintza-falta fusilaren begia bezain beldurgarria egingen zait. □

ETA GEURETZEN DITUGUNAK

Eta egunen gurpileak Mexikoko liburudendak bezala, itzal gaiztoak piztu dituzten omenaldiak ere ekarri ditu azkenaldian. Zestoan Pio Baroja omendu zen, bertsoz —euskal bertsoz, orain esan beharra dago— omendu ere Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan. Herriko karrika kantoietan ibilarazi zuten mediku gazteari Xabier Euskitzeren soina eta ahotsa eman zitzaion, Gorrotxategirena aguazilari eta Sebastian Lizasorena Barojarekin konturen bat edo beste konpondu behar izan zuen orori. Segizioak garaiko Zestoarik zestoarena iradokitzen zuen. Eguna, ohartarazi zuen prentsak hurrengo egunetan, hunkigarria eta baketsua gertatu zen.

Egoera, bai egun zoragarriaren bezperetan, egunean bertan edo orain, surrealismoaren mugetan ikusi nahi nuke, eskaintzen duen beste irakurketa —gaiztoa— askoz ere tristeagoa ateratzen baitzait inondik ere. Nork euskaldundu nahi duen Baroja eta zergatik orain arte inork argitu ez duen puntua da. Eta ez euskaltasuna eksklusibista delako, ausaz oker nabil honetan ere, euskaltasuna hizkuntza berak definitzen duelako, eta nekez har daitekeelako euskalduntzat, guretzat, alde horretatik, Barojaren lana. Mende aldaketako Euskal Herriaren estampa zoragarriak eskaintzen dituela, eta horrekin zorretan? Ur handitan sartzekotan sar gaitezen belaunetik gora, eta esan zer euskaldun txapelekoa den Barojaren obran agertzen dena. Hitz egin dezatela feriara eramandako haiek.

Baroja hain era sinpatikoan, etxekotuan eman izanak kezkatzen nau. Zer behar dago Baroja —Pio, ez bere lana— euskalduntzeko? Galdera beste galdera batez ordezkaturia irakurri dut nonbaiten. Idazle euskaldunok nolako harremanak behar ditugu izan Euskal Herriko idazle erdaldunekin? Askozaz galdera interesgarriagoa da hagitzez, dudarik gabe. Orain, horren erantzuna Zestoan transmititu zena baldin bada, ulertzen hasia naizen seinale, uste dut. Zestoan probintzialismorik itzuenetik aurkeztu nahi izan da Barojaren euskaltasuna. Tipismoa, jatoritasuna, «Zestoan ohartu nintzen euskal herritarra nintzela». Gipuzkoan, ingururik euskaldunaren beroa erdal idazle euskal herritarrarentzat. Gutasuna ez dago hizkun-

tzan. Alferrikako ibilia izan da orain arterakoa; tipismoan dago! Gauza bera egingo ote da Ravel-ekin, Unamuno-rekin —irakurri al dituzue honen euskarazko olerkiak?—, Navarro Villoslada-rekin, Samaniego-rekin Ziburun, Bilbon, Bianan, Bias-terin?

Ez dira ordea euskaltasunaren lerroak ahul dabiltzan bakar-rak. Orain hurrengoan beren artea frankismoaren bandera-pean jarri izan zuten Zuloaga eta Telleria omendu ziren, euskal herritar errekuerable legez, ulertu nuen nik. Laster, lerro hauek idatzi eta argitara atera bitartean, hogeitabost urte bete-ko dira Jose Artetxe —nola da erreakziotik hainbestetan aipatzen den piromanoa eta suhiltzailearen erran zaharra?— hil zela. Egingo da gogoeta saiorik bazterretan. Eta historia go-rirenak absolbatu egingo du.

Zerbait aldatzen ari da. Begirunerik gabeko kultura da az-kenaldian ospakizunen triptikoetatik bultzatzen dena. Ezer gertatu eta gertatzen ari ez balitz bezala jokatzera da arestian planteaturiko galderari ematen zaion erantzun kultural bakarra. *Revival*-ak bizi zirelarik euskal memoriaren (euskara atoa ibili zutenen, esan beharko nuke ausaz) kontra aritutakoak defenditzen ditu garaiotan. Denok gara zuek. Baroja euskalduna da, eta erakutsi da. Zuloaga, Telleria, musikoak izan ziren, pintoreak kolaborazio puntual oren gainetik. Hildakoen be-sarkadaren filosofia hau urrun dago ordea gure Bigarren eta Hirugarren Dibisioa berrikusi eta duintzetik. Eta nire barruen-tzat, esan dut lehen ere, euskal on nemesio larregi dugu hain-beste patrifioren pean itota Zestoara tenplean hurbiltzeko. Ezta gibelerako munduko urik onenak izanda ere. □

IKUSKIZUNAK

IMANOL AGIRRE

U HOLDE HANDIA

Ekaina eta irailaren bitarte horretan ikuskizunen unibertsoa asaldatzen da. Eguzkiaren hurbiltasunaren eraginez edo, ikuskizunen hondarrak gori-gori jarri ohi dira. Bestela, errepara ezazu zenbat ale harrapa dezakegun sarekada azkar batean:

Nafarroako Jaialdiak, Nazioarteko Kale Antzerkialdiak (Lekeitio, Zarautz, Arrigorriaga eta Barakaldo), Jazzaldiak (Getxo, Gasteiz, Donostia eta Baiona), Zuberoako Pastoralak, Jaietako egitarauak, Bizkaiko Musikaldiak, Donostiako Musika Hamabostaldia, Zinemaldiak (Donostia eta Miarritze), Bilbao Tropikal, Aialako Umore Antzerkialdia, Portugaleteko Nazioarteko Dantzaldia, Zirkuak, Udako antzerki programazio komertzialak, Getxoko folk jaialdia...

Udaldia dugu, beraz, ikuskizunen paradisia. Aukera ezin galdu eta aski busti gara urtero ugaltzen den uholde honen indarraz. Kontuan izanik, gure herria ez dela zezen-larru luze eta zabal bat, patrikako mukuzapi eskuragarri bat baizik, ikuskizun guzti-guztiak eskura izaten dira. Bilbotik Maulera kotxez heltzeko behar dugun denbora bera dugu New York-eko metroan bazter batetik bestera bidaiatzeko.

Gainera, sasoi honetan nazioarteko erakusleihoa zabaldu egi da. Badugu hor zer ikusi eta zer ikasi.□

IKUSKARIEN COSA NOSTRA

Arestian ikusi dugun legez eskaintza ez da makala beroaldian eta horregatik, xahutzen diren diru-kopuruak ere ez dira nolanhikoak. Mila milioitik gora mugitzen dira aipatu ikus-

kizun handien antolamenduetan. Gehienak erakunde publikoen esku zabalak jarrita. Jaurlaritza, aldundiak eta udalak buru-belarri bustitzen dira.

Pentsa dezakegu gehienetan ez dela gertatzen baina badira hainbat datu kezagarri eta salatu beharrekoak. Nire zalantza guztiek Bilbao Tropikal jarri dute ikusmiran.

Ekimen berriaren albistea zabaldu zenetik nahiko kafe-eztabaida biztu ziren hirian barna. Zer ikusia zuten Karibeak eta Bilbo post-industrialak? Zergatik hainbat egitasmo ezberdinen artean Udalak aukeratua zuen uztaileko musikaldi hau? Zein usadiotan oinarritzen zen ikuskizun-mordo hau plaza-ratzeko? Galderak kafe beroaren keak eraman zituen eta Bilbok bere kaleak palmondoz josita ikusi zituen uztailean.

Egia esan, bederatzi eguneko programazioa erakargarria zen (Los Van Van, Albita, Lucrecia, Papa Wemba...) eta bertokoak ahantzi barik (Tumbaito, Ke no falte, Potato, Kepa Junkera...). Ulertezina, aitzitik, musikaldiaren estreinako emanaldia Azucar Morenoren eskutik izatea.

Baina Udalak xahutu nahi zuen dirutza izan genuen hizpide. Murrizketen kulturaren murgildurik hainbat eta hainbat urteren buruan, orain ez zen oztoporik Bilbao Tropikal bilakatzeko. Prezioa ez da beherapenetan aurkitzen. 100 milioi inbertitu da. Iturri ofizialek gutxiago aitortu arren kultur sailaren barneko profesional batek berretsi digu diru-kopuru hau.

Hala ere, istorio honen amaiera da harrigarriena. Jakin dugu 100 milioi horietatik 30 baino ez direla gastatu kontzertuetan. Non ote daude falta diren 70 milioiak? Agian, galderaren erantzuna Radio Nervionek edota TeleBilbaok eman beharko zuten udaletxerekin batera egitasmo honen atzetik ibili baitira. Honez gain, ikusle-kopuru urria nabaria izan zen.

Nola eta zergatik diseinatzen da zenbait ikuskizun?□

EUSKAL SHOWMEN

Euskaldunon ikuskarietan den-dena asmatu behar izan dugu azken hamabost urte hauetan. Ezer ezetik hasi ginen eta oraindik sormen-lan iraunkor horretan murgildurik gaude. Hau dela eta, izar berri bat bizten den unean espazioak nola-baiteko zirrara jasaten du. Eta niretzat Klaudio Landak lurrikara tippi bat ekarri du ikuskizunon lur emankorretara.

Talk-radio-aren esparrura heldu zen, *Aizu!* aldizkarian eta Euskadi Irratiko udako informatiboetan hamaika urte bete ondoren. Baina harik eta Euskadi Gaztearen asteburuko arratsaldeak irauli zituen arte ez zuen ETBra jauzia egin. *Arralde*-n hitzontziaren papera bete du aurkezlearen itzala ezabatuz. Udan *Hau da Marka* lehiaketaren gidarietako bat izan da, Ane Igarbururkin (hastapeneko xamurtasuna Madrilen galdu omen zuen euskal *showman*-a) batera. Gaur *Kale gorrian* dabil landalan. Klaudio Landak gaurko euskal *showman*-aren eredu berri bat zabaldu duelakoan nago.

Euskal *showman*-en katalogoa aski luzea da dagoeneko. Indarrean badago liburutegiko arratoiaren jitea hartzen duena: Kike Amonarriz. Eskolatu-izaera honek ez ditu galerazten noizean behin ondo neurtutako ateraldiak. Kantuetan ez du gehiegi desafinatzen, primeran ehuntzen du gure hizkuntza eta zintzo-aurpegi horrek ikuslego zabala bereganatzen du.

Kikerentzat betaurrekoak diren moduan Klaudioarentzat mihia da arma. Isilik izatea ozta-ozta daki zer den. Zorion beti zorion. Aldarte bikain horretan oinarritzen baitu bere lana. Txantxa du lanabes eta Euskal Herri alai eta zorientzua islatzen du, eguneroko oinaze eta negarra zokoratuz. Telebista-izar dizdiratsu guztiek bezalaxe, Klaudiok baditu aldeko jarraitzaile maiteminduak eta amorru biziz jasaten ez dutenak ere.

Kike eta Klaudio pil-pilean dauden bitartean, Aitor Mazok ETBri leporatzen dio bere burua euskal pantailan zentsuratua izatea. Aitor Mazo izan liteke *showman* kementsuaren eredu. Soina bezain indartsua da bere aktore izaera. Erasokorra eta bide batez malgua. Oraindik ikusteke dago noraino hel daitekeen bilbotar honen indarra.

Telebistan ez dira maizegi aritu eta horregatik antzerkizaleok baino ez ditugu ongi ezagutzen. Patxo Telleria eta Mikel Martinez monstro sakratuak dira. Aktoreen gerrikoa gehiegi estuturik dute eta bapatekotasuna falta zaie *showman* biribilak izateko. Oskorrirekin burututako ezohiko aurkezleen lana bide zabal bat da. Horra hor bikote baliotsua.

Josu Bilbao, labetik atera berria den euskalduna da. Euskarazko berbekin trakets ibili arren, clown-teknikaz baliatuz, komunikazio ezin hobea erdiesten du. Clown garaikideen ildotik abiatu da. Jango Edwards, Les Funambules, Johnny Melville... mimo-clownek zabalduriko bidea, hain zuzen. Umore hutsa, kutsaduratik gabe. Josu Bilbao da deskubritu dudaren *showman*-a. □

WOODSTOCK SINDROMEA

Jende-multzo erraldoien elkarguneei muzin egiten dien lagun franko bada. Estu eta larri ibiltzen omen dira hainbat jendez inguraturik. Nik, aitzitik, gustoko dut aldameneko izerdia, ospakizunaren arimak bat egiten gaituenean. *Hippie* zahar samarra naizela leporatuko didazuela badakit, baina, ez dut us-te hain modaz kanpo nagoenik. Hogeita hamar urteren buruan Woodstock eredu itzuli da.

Euskal Herria Zuzenean hartu zuen izen euskal Woodstock-ak Nafarroa Beherean uda-hasieran. Gero, Pirinioetara abiatu zen eta Dr. Music Festival Escalarreko larretan landatu. Eta amaitzeko Benicassim 96 izeneko jaialdiak oihal-etxeak bereganatu zituen. Hiru jaialdi (gehiago ere izan dira Galizian eta), hiru eguneko bakoitza, hiru musika-eredu.

Arrosako (lore izen hau ezin aproposagoa) esperientzia arras ederra izan zen. Lasaitasuna nagusitu zen, Iparraldeko bakea eta barealdiaren lekuko. Bospasei mila ikusle bildu ziren eta nazioarteko zenbait gonbidatu izan arren Euskal Herriko estilo ugarien ispilua izan nahi izan zuen.

Euskal Herriko jaialdi erraldoien historia ez da atzo goizekoa. Donostiako Herri Irratiak antolatutako 24 ordu famatu haiek (1976an, 11.000 ikusle) batzuen oroimenean gordetzen dira maitekiro. Geroago, Bai Euskarari jaialdiak (1978), inoiz izan den handiena, Santimamiñe futbol zelaia leporaino bete zuen. Hunkidura kuttunak. Beranduago gertatu zen nik bereziki bihotzean gordetzen dudan jaialdi erraldoia. Bilbon izan zen EUSK (1991) ekitaldian Kubatik etorri berria zen euskal enbajada kulturala plazaratu zen.

Bigarrenbelaunaldiak oihal-etxola erraldoietan aurkitu du aterpea. Adierazpen askatasunaren aldeko Hitz Egin jaialdiak eredu bat ireki berri du. Jarraian Bilboko Etxebarria parkean Egin Txotx eta Zaldibiako Gazte Topaketak. Azkenik, udan, aipaturiko Euskal Herria Zuzenean iparraldeko landetan. Horra hor kanpinga eta ikuskizuna, bi lagun zahar.

Gure larreetatik at, Dr. Music Festivalek, behi xeble baten irudiaren inguruan 30.000 lagun bildu zuen. Euskaldun asko zelaietan eta Nacion Reixa, El Inquilino Comunista eta Anestesia eszenatokian (Lou Reed, Iggy Pop eta David Bowie-rekin batera). «Makro-ikuskari» honek gainezka egin zuen eta ekologisten salaketekin egin zuten topo, larrosak ere arantzak dituela erakutsiz. Harridura sobera behi haren memorietan idazteko.

Menditik Mediterraneora abiatu ziren musikazaleak. Benicassim 96k bide alternatiboa erakutsi nahi zigun (hau da, irratiformulan erraz aurkitzen ez dena). 9.000 lagun bildu ziren hondartza eta eszenatokiaren artean. Baina kronistek ez zuten begi onez ikusi alternatibo delako horren kalitatea eta adierazitakoaren arabera makal dabil berriztatzailea.□

WOLFSTONE

Otsoaren harria (Wolfstone) ekarri zuten gurera eta Bilboko Kafe Antzokia aukeratu zuten Euskal Herrian emateko es-treineko eta orain arteko kontzertu bakarra. Eskoziako banda honek sei urte darama munduan zehar zelden folk-rocken adie-

razpenik harrigarriena erakusten. Funtsean mestizaiarik ederrena: aitzin-aitzineko doinuak, XX. mende amaierako hotsez nahasturik.

Zain neraman denbora luzez eta zuzenean ez zidaten kale egin. Jotzen duten azkenengo aldia izango balitz bezala, ezkoziar adorea ren mito zaharra errespetatuz. Eszenan duten jarrera miresgarria da. Ikusleak berehala barneratzen dituzte ikuskarian. Kafe Antzokiko aurkezleak emanaldia agurtzeko esan zuen bezala, «asko dugu ikasteko». Gure erroak nola nahasi eta nola plazaratu. Hor dago Wolfstoneren ikasgaia.

Zeltiarmitzulera antzeman daiteke. 1975–85. urteetan sekulako inbasioa izan genuen. Folkak eta batik bat zeltiarrak goia jo zuen. Alan Stivell-ek bereganatu zuen mugimendu honen lema eta artean gogora etortzen zaizkit Bilboko eta Donostiako kirdedgiak leporaino, zelten doinuen deiari erantzunez. Bertan ere ikusi genuen zeltiarren folk-rock aitzindaria, Stivell-ek baldu baitzuen Wolfstonek egun biribiltzen duena.

Baina denboraren poderioz suaren garra galduz joan zen. Gaurko euskaldunok ahaztu bide dugu kultur adierazpen hurbila. Kafe Antzokian ez ginen 200 musikazale bildu. «Non daude lehengo zeltiarzale euskaldunak?» itauntzen zuen goibel antolatzaileetako batek. Asturiasen, Galizian, Gaztelan... Europan ere berbiztu da. Euskal Herrian, aldiz, itsasorratzak beste norabide bat ematen du. Zeltiar herriek kresalezko mugak omen dituzte itsasoari begira baitaude. Mugak gainditu dituzte baina gure hondartzetan ez dira lurreratu oraindik. Haize bo-ladaren aldaketaren zain.□

ARRIAGAREN EZUSTEKOA

Udako beroaldian antzerki-esparrua erotu samar ohi dabil. Hiriburuetan antzerki komertzialak (honela deitzera kondeturik gaude) hankaz gora jartzen du ikuskizunen ohiko patxada. Espainiako konpainiak egundoko burruka latzean aritzen dira antzerkizale kopururik handiena bereganatzeko. Ja-

kin badakite *abuztua* egin dezaketela eta zenbait kasutan sekulako dirutza egiten dutela seguru gaude.

Donostiara Bartzelonako *Molinoa* heldu zen, *revista* delako jenero zimelak oraindik birizik dirauela gogoratzeko. Ezus-tea bai baina ezer berririk ere ez. Niretzat ezusterik ikusgarriena Bilboko Arriagak oparitu digu.

Nekez gogoratzen dugu zein izan zen euskal antzerki independentearen azken emanaldia Bilboko Antzoki panpoxean. Hau dela eta, abuztuan eta antzerki komertzialarekin lehia bizian, Tanttaka taldea aurkitzea ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula.

Inork ez dio ezer saltzen Arriagari. Arriagak aukeratzen du. Eta oraingoan aukeraketa gorai patu beharrean gaude. Tanttakaren *El florido pensil* ikuskizun ederra baino ederragoa da. Diktaduraren oroimen zuri-beltza altxatu eta etor daitekeenaren deia zabaltzen du.

Fernando Bernues dugu arrakasta honen errudunetako bat. Esperientzia handikoa, zalantzarik ez. Bekereke, Maskarada, Tanttaka, Arteszena... Euskal antzerkigile zorrotz eta eraginkorra. Berarekin batera, Mireia Gabilondo Tanttakaren arima. Biek ondo ederto asmatu dute antzerkiaren magia zertan datzan. □

ZILAR ZERUAK

Kronika honen gailurra Oskorrik eman du 25 urteko ikuskizunean. Euskal lurretan eskarmentu franko daukagunontzat Faturako hotsak aspaldian sentitzen ez ziren zirrarak sakonenak izan dira. Musika-talde baten festa bat baino gehiago. Bizitzaren soinu-bandaren atal maitagarri bat. Hurrengo batean aztertu behar izango dugu Oskorriren azken ikuskizun mundiala. □

AZKEN HATSA OHOLTZAN

Lerro hauek ezin dira amaitu aurtengo pastoralean galdu genuen partaidea aipatu barik. Pipo Etxebarrek eman zuen azken hatsa taulen gainean. Dena eman zuen. Kulturzale ezagun honek azken urratsa herri-antzerkian eman zuen, antzerki esparru hau inoiz baino bizkorrago dagoela erakutsiz. Pastoralak, gure ikuskizunik zaharrena, herri honek duen indarraren adierazlerik ederrena da. Ohorerik handiena Pipo Etxebarreri eta herri-antzerkia bultzatzen duen orori. □

UNIBERTSITATEA

LONTXO OIHARTZABAL

IKERLARI ONAK ETXEAN

Lehenik eta behin berri pozgarriak izan ditugu azkenaldi honetan. Ikerkuntzarako lehenengo Euskadi Saria Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle/ikerlari bati eskuratu diote eginkizun horretarako izendatutako epaimahaikoek. Pedro Miguel Etxenike nafar euskaldunak izan du zori hori lehenengo honetan. Zorionak berari dagokionagatik. Gertakari honi esker jakin dute euskaldun askok mundu-mailan punta-puntako ikerlaria dugula etxean. Baina ez da horretara mugatu berria. Egunkarietan irakurri eta telebista-irratietan entzun ahal izan dugunez, ikerketara emaniko talde ugari dabil gure unibertsitatean emaitza garrantzitsuak lortuz eta bertako ikas-fakultateen izen ona mundura zabalduz.

Honen guztiaren froga baino ez da, sarirako azkenaurreko erabakira iritsi zirenetako hogeitabi ikerlarietatik gehiengo handi bat Euskal Herriko Unibertsitate honetako irakasle-ikerlariz osaturik zegoela. Ez da gutxi. Zorionak, beraz, unibertsitateari ere berari dagokionean!

Gogoan hartzekoa da, gainera, Etxenike irakasleak berak azken aldi honetan, behin eta birritan, errepikatu duena. Denbora asko eta luzea eskatzen duen lana dela ikerketarena. Eta ezagutzaren eraikuntzan benetan aurreratu nahi bada, ezinbestekoa gertatzen dela epe luzerako planteatu behar den lan hori sustatzea eta eragitea. Ikerkuntzarako dirulaguntzak eskaintzen dituztenei eginiko oharra da hori. Dirua jartzen dutenek, izan ere, berehalakoan nahi lituzkete ikerlanaren emaitzak, diruari berehalako etekina atera nahira jarriak baikaude gaur egungo presazko gizarte honetan. Gure ikerlariak gogoratzen digunez, ordea, zeharbide ugari egin beharrean eta gora-behera handiekin egiten du topo, bere lanean, oinarritzko ikerkuntzan saiatzen ari den edozein ikerlarik. Eta aurreratzekotan, oztopo horiek gaudituz bakarrik egin dezake aurrera jakintzak, eta jakintzarekin batera gizarte osoaren ongizate orokorrak; jakintza-arloko aurrerapenik gabe ez baitago benetako aurrerapenik teknologiaren eremuetan; eta teknologian aurreratzen ez bada, akabo gure ongizate guztia. Ikerkuntzarako denborak, bistan denez, dirua eskatzen die gizarte-erakundeei eta industria-munduko enpresei. Dagokienez hori guztia ulertu beharko lukete, Euskal Herrian benetako ikerkuntza gauzatu dadila nahi badute behintzat.

BBV fundazioaren dirulaguntzaz Pardo-k burutu duen ikerlan interesgarri batek adierazten duenez, ikerkuntzan alde agertzen da herri honetako biztanlegoaren gehiengo nabarmena. Ikertzen dena baino dexentez gehiago ikertu beharko litza-tekeela, diote galdetu zaien gehienek. Eta hori, nahiz eta ikerkuntzaren bidez egin diren ezagutza-aurrerapenen berri eskasa, oso eskasa, dutela adierazi aldi berean. Biztanleek aurrerapidea eta ongizatea ikerkuntzaren emaitzei lotzen dizkietela adieraziko luke gertakari horrek.

Herrialde ezberdinetako datuak alderatzen baditugu, europarrok atzera samar gabiltzala erakusten digute azken orduko zehaztapenek. Hona horrelatsuko batzuk:

Mila-miloiko aktibo bakoitzagatik enpresetan lanean diharduten ikerlariak (*DG XII Europako Batzordea, 1996*):

- Europako Elkartean: 2
- Ameriketako Estatu Batuetan: 6
- Japonian: 6

Edonork atera ditzake bere ondorioak datu horietatik.

Dena dela, gatozen orain Euskal Herriko Unibertsitatean ikerkuntzak azken urteotan egin duen aurrerapena aztertzeraz.

Finantzaketa-erakundeen ikerketa-inbertsioaren banaketa globala

	1992	1993	1994	1995
EHUko fondoak	548	595	514	727
Kanpoko fondoak	969,5	1.061	1.233	1.439
MEC	219,5	230	239	322
EJ	262	213	314	376
Kontratuak	488	618	680	741
Guztira	1.517,5	1.656	1.747	2.166

Unibertsitate-Enpresako kontratazioa 1992-95eko aldian

	1992	1993	1994	1995
Berrikuntza transferitzeko bulegoa	249	450	462	535
Unibertsitate-Enpresa Fundazioa	239	168	218	206
Guztira	488	618	680	741

Kopuruak milioi pezetatan.

Iturria: EHU. Oroitidatzia, 1996

Argi dagoenez, aurrerapauso nabarmenak egin dira ikerkuntzarako eskaini izan diren diru-kopuruetan. Joera horrek horrela jarraitu beharko luke, gainera, ikerkuntzaren alorrean aitzindari dabilzan herrialdeetatik atzeraegi egon gaitzela nahi ez bada, behintzat. □

IKERLARI GAZTEEI LAGUNDU BEHARRA

Ikerlariak ez dira bat-batean egiten. Bokazioa behar da, lehenik, ikerlari izateko, oinarrizko ikerkuntzan jarduteko bereziki. Iraupen luzeko andre-gizonak eskatzen ditu era horretako ikerlanak. Hilabete eta urte luzeetan emaitza handiegirik ikusi gabe lanean jardun beharra suposatzen du, askotan,

oinarrizko ikerkuntzaren eremuko azterbideak. Askok eta askok jasan ezin dituen baldintzak.

Hori horrela, mundu horretara sartu nahi duenari baldintza egokiak jarri beharko zaizkio hasieratik; ongi eta egoki hornitutako ikertegiak eta laborategiak, patxadaz eta bake-bakean lan egiteko aukerak eskainiko dituztenak, ezinbesteko baldintza dira, edozein motatako ikerkuntza burutzen delarik ere. Honek guztiak dirua suposatzen du —betiko leloa!—, gizarteko erakunde ezberdinek ikerlarien zerbitzura jarri beharko duten dirua. Kontu izan behar dugu, ezin eskatuko diegula emaitza onik, aurrez baldintza egokiak jartzen ez bazaizkie.

Ikerlariak prestatu egin behar dira. Ikerlari ohituen eta ikasien ondoan bakarrik lor daiteke ikerkuntzarako prestakuntza egokirik. Eta bada unibertsitatean horretarako politikarik. Kezkatzekoa da, ordea, ikerlegai askori gertatutakoa. Badute, bai, ikerlari prestatu baten ondoan lan egiteko aukerarik, baina erabateko morrontza eskatzen zaie: ikerlari-irakaslearen zerbitzura egon behar dute, hau burutzen ari den ikerlanak ezartzen dituen baldintzetara eta eskakizunetara makurturik erabat, erabakietarako eta proposamen autonomoetarako inolako aukerarik gabe. Ikerlegai gazteei lagundu eta bidea egiten erakutsi beharrean, bere interesen zerbitzura jarrarazten ditu aldian aldiko irakasle interesatuak. Amaituko da laguntzaile-aldia eta prestakuntzan askorik aurreratu gabe utzi behar taldea, antzeko beste ikerlan bati ekiteko inolako ilusiorik eta gogorik gabe. Hortxe galduko da, agian, ikerlegai gazte bat baino gehiago betirako.

Arreta bereziz zaindu beharreko kontua da. Ez da nahikoa, beraz, ikerlegai gazteentzako dirulaguntzak eskaintzea eta ematea. Ezinbesteko da, gainera, gazte horiei jarriko zaizkien lan-baldintzak eta izango dituzten eginkizunak eta erantzukizunak argi eta garbi idatziz jartzea; ikerlari-prestatzaileak aurrez eta erabatekotasunez onartu beharko lituzkeen baldintzak eta mugapenak guztiak. Hori guztia gero erabakitakoaren arabera gauza dadin ardura hartuko duenik ere beharko litzateke ikastegi bakoitzean, hitzarmenak eta paperak izenpetzea oso erraza dela irakatsi baitigu historiak.

Aipatu honetan guztian nahiko eskas ote gabiltzan susmoa dut nik. Hainbat eta hainbat ikastegitako bekadunei entzun diedanak jarri nau kezkatu izatera. □

IKERKUNTZA ETA ETXE-BARRUKO KONTRAESANAK

Aurreko gogoetak idazten ari naizela izan dut orain kontatze-
ra (salatzera) noan gertakari lotsagarriaren berri.

Apartekoa behar du izan ikerlegai gazte honek. Halaxe dio Madrildo Unibertsitate Autonomoko katedradunak: «Gaztelaniaz egin den *Opus Postumum*-a ren itzultzaile eta editatzaile naizen aldetik ez dut inolako eragozpenik honako hau adierazteko, aztergai horretaz Espainian dagoen maila akademikotik dexentez gorago daudela X.X. jaunak burutu dituen ikerkuntzen emaitzak». Alemaniako Marburg hiriko unibertsitatean irakasle den Tuschling irakasleak (ikerketa kantiarretan munduko hobere-netakoa, bere kideek diotenez), berriz, beste hau dio gure ikerlegai gazteaz: «X.X. jauna bereziki kualifikaturik dagoelako ez dut inolako zalantzarik eta ziur nago ikerketa kantiarrei bultzada emango dien azterlan bat aurkeztuko duela. Habilitari moduan X.X. jauna nire taldean onartzeko prest nago eta Marburg-en beste bi urte eman ditzan beka bat emateko aholkua damaiot dagokionari». Atzerriko ikasleen artean milatik batek ez du jasoko era horretako eskaintzarik Alemanian. Baditu eskatzaileak horrelatsuko gomendio-gutun gehiago ere.

Baina... Euskal Herrian ukatu egin zaio dirulaguntza hori gazte saiatuari. Hobeto esanda, horretarako izendaturik dagoen komisiok ukatu egin dio. Antza guztien arabera, orain arteko bere lan guztia euskaraz argitaratu izana eta aurrerantzean ere horretan saiatu nahi izatea izan da beka-eskatzailearen erru bakarra. Berak bere alegazioan dioenez «gaiarekiko eztabaidan saiatu zen irakasle bakarrak, Mosterin irakasleak, laister ahaztu zuen hori eta zera esan zuen: nire ikerketa hain interesgarria bazen, kontraesankorra zela euskaraz landu nahi izatea». Etxeko eta kanpoko irakasle ezagun eta prestigiodunek behin eta birritan aitortu didatenez, katalanaren eta euskararen he-

dapenaren aurkaririk nabarmenetakoa eta eroenetakoa (sic) ere bada Mosterin delako irakasle bilbotarra (Bartzelonako Unibertsitatean katedraduna orain artean).

Horren eskuetan egon da mutilari beka eman ala ez erabakitzea. Eta ezezkoa erabaki du.

Epaille inpartzialen esku utzi behar dela horrelako erabakiak hartzea eta epaille horiek ez dutela Euskal Herrikoak izan behar, arrazoizko irizpideak dirudite. Ezin onar daiteke, ordea, aurrez euskararen aurkako prejuizioz beteta dagoen baten esku utzi daitekeenik Euskal Herrian eta euskaraz ikerlana burutu nahian dabilzan laguntza-eskatzaileren lanari buruzko erabakiak ematea. Mosterin jaunak adierazi duen jarrera ez ote da, gainera, Konstituzioak dioenaren aurka doana? Bidezkoa ote da era horretako iritziak dituen eta plazaratu ere egin dituen irakasle bat Eusko Jaurlaritzako komisio bateko buru izatea? Zentzuzkotasunaz jabetuko gara noizpait! Baina ez dadila beranduegi izan, alferrikakoak izanen baitira nigarrak ikerlegai onenak uxatu ondoren. □

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

GAZTELANIA MUNDUAREN AURREAN

José M^a Aznarren gobernua Moncloaratu denez geroztik, ez dira asko izan (nik dakidanez, behinik behin) PPK hizkuntzaren inguruan zabaldutako adierazpen edo eztabaidak.

Katalunian PPK bideratu nahi duen politika berria eta Vidal-Quadrasen kargugabetzea direla medio, ez dirudi gobernu berriak erabat definitu dituenik, gaztelania ez diren estatuko beste hizkuntzen normalizazio-prozesuen aurrean erabiliko dituen irizpideak.

Vidal-Quadrasen afera honetan, bada zer azpimarratua. Nazionalismoaren aurka esandakoak esan arren, A3 telebista katean, katalanez eta erdarara azpitu titulaturatu entzun nituen bereazken hitzak Kataluniako PPko idazkari gisa. Une hartan, katea berean politikari euskaldunik sekula ez nuela euskaraz entzun bururatu zitzaidan berehala, Xalbadorren bertsoak gogoratuz: «Iragan egun batez ostatu batean...».

PPk, CiUekin eta EAJrekin hartu dituen konpromezuen eraginez, hizkuntz normalizazio-prozesuaren inguruko eztabaidak baretu eta bere jarrerak malgutu egin beharko dituela aurriskustera garamatza. Erabateko gehiengorik ez duen bitartean bederen.

Gaztelania dela eta, hala ere, izan da adierazpenik. Batez ere, hedabideetan, berrikuntza teknologikoan, eta iraultza mediatikoan gaztelaniak jokatu behar duen paperaren inguruan.

Komunikaziorako Estatu-Idazkari berri eta gazteak (Aznar presidente bihurtzeko «telegenia» izeneko komunikazio-egitasmoa taxutu eta zuzendu duen 32 urteko «marragoza») oso hitz adierazgarriak plazaratu zituen Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatean burutu zen «Komunikazioaren muga berriak» mintegian, prentsan irakurri ahal izan genuenez:

Duela urte batzuk, gure kultur ondarea eta gure hizkuntza amankomuna patriotismo kontuak ziren; gaur egun ordea, buruargitasunez probetxatu behar dugun negozio izugarri baten oinarri ere badira.

2.010. urterako erdal hiztunak 460 milioi pertsona izango omen dira. Mugarik gabeko bezeria.

Teknologiarik ezean, gaztelera urrea da —zioen—. Espainia, telekomunikazioen etorkizuna lideratzeko baldintzatan dago.

Espainiar gobernu berriko hainbat ministrok baino ahalmen eta botere handiagoa omen duen bozeramaileak serio heldu dio gaiari, eta laister jakin ahal izango dugu, Espainian komunikazio-esparruan gerran dauden enpresa eta talde indartsuen artean zeintzuk nagusitzen diren.

Diru asko jokoan eta erronka berri bat, euskarazko telebistarentzat eta oro har, komunikabide guztientzat. Hizkuntzen negozioa eta negozioen hizkuntza eztabaidagai.

Hizkuntz normalizazio-prozesuan eta euskal naziogintzan, euskarazko komunikazio-esparrua sortzea funtsezkoa eta ezinbestekoa dela sinesten dugunok badugu zer pentsatua, zer eztabaidatua eta zer egina.□

BIHARKO EUSKAL KOMUNIKABIDEAK

Aipatu berri dugun gaiaren inguruan, hausnarketa gutxiegi egin da euskalgintzan dihardugunon artean. Angel Amigori irakurtzen genion:

Euskal ikus-entzunezkoen sektoreko enpresak lanean hasten badira beste hizkuntza batzuetan ari den merkatuan, irauteko gabe arrakasta izateko beste biderik ez dagoelako, jakin bedi egoera protekzionista batetik konkurrentzia libreko beste batera pasatzeko prozesuan ez dela eztabaida kaskar bat bera ere izan.

Gure hizkuntzaren sustapenean komunikabideek jokatu duten, jokatzeko ari diren eta ezinbestean jokatu beharko duten papera erabakiorra izanik, etorkizunari begira indarrak non eta zertan jarri behar diren erabakitzea, hil ala biziko gaia bihur liteke.

Alde horretatik, guztiz interesgarriak iruditu zaizkit Amatiñok aldizkari honen 89. zenbakian eta uda partean «Biharko euskal komunikabideak» izenburupean, *Euskaldunon Egunkaria*-n argitaraturiko artikuluetan azaltzen dituen gogoetak. Batek eman dit atentzioa batez ere:

Euskaldunak urteak daramatza aldarrikatzaile zorrotzarenak egiten, ez dago ordea garbi aldarrikatzaile on bezain kontsumatzaile zintzo denik. (...) Azken urteotan euskaldungoak eskubide mailan oinarritu du bere aldarrikapen-argudioa, gutxieneko dimentsioaren erreferentziarik ez balego bezala.

Euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea dugu. Gure bizitzaren funtzio guztiak euskaraz betetzeko eskubidea. Eta bostere publikoei dagokie, eskubide horiek egia izan daitezen, bi-deak eta baliabideak jartzea.

Eskubideak ordea, norbaitek erabili behar ditu; eta hor sortzen zaigu arazoa. Ale honetan bertan, beste artikulua batean deskribatzen dugun bezala, euskaldunon artean ez gara horrenbeste (askok bere garaian uste baino gehiago izan arren) euskarazko kultur produktuen ohizko kontsumitzaile.

Eta kontsumo minimorik gabe hainbat kultur eskaintza bideragarri ez izateko arriskuan egon liteke, eta gutxieneko kontsumo-indizerik gabe, euskal kulturak subentzionismo gordinenaren estalkitik atera ezinik ibiltzeko arriskua du.

Euskaldunon Egunkaria-ren zutabe batean Nekane Amianok oso modu grafikoan adierazten zuen bezala «biberoiko euskaldunak» ugaltzeaz gain, «takilako euskaldunak» ugaltzea lortu behar dugu: euskarazko liburuak, diskoak, programak, pelikulak, eta CD-ROMak erosiko dituztenak, alegia.

Bide horretan, produktuen egokitasuna aztertu behar da, lehen tasunak markatu, dirulaguntzen baldintzan finkatu, baina ezer baino lehen, euskarazko kultur produktuak, sustatu egin behar dira. Ezagutarazi, erakargarri bilakatu eta behar bezala promozionatu. □

HIL ARTE EUSKARAZ BIZI

«Hil arte bizi» dio esaerak. «Eta euskaraz bizi» erantsiko zuket, herio beti ankerrak joan den udan eraman dituen hiru euskaltzale handi bezain ezezagunek.

Mendiak eraman du Miren Iriondo, errepedeak Xabier Urkola eta gaisotasun batek Jose Luis Gorostidi.

Aretxabaletako «Loramendi» Euskara Elkartean ziharduen Mirenek, ikerkuntzan eta unibertsitatean Xabierrek, «Euska-

raz Bizi» egitasmoaren bidez, irakaskuntzatik euskararen eza-gupena eta erabilpena zabalduz Jose Luisek.

Hirurek euskalgintzaren ezaugarriak aberatsenak biltzen zitu-zen: ilusioa, auzolana, bizipoza, ahalegin isila... Euskal He-rria aberats bihurtzen duten pertsonak.

Hirurak ezagutu izanak pozten nau. Gugan diraute! □

EMAKUMEAK ETA EUSKARA

Hainbat euskaltegi eta *Euskaldunon Egunkaria*-k eskatu-rik, ikerketa zabal bat burutu du partaide nauen ikerketa-tal-deak.

Azterketa horien emaitza nagusiak argitaratu direnez edo ar-gitaratzeko bidea izango dutenez, ez ditut orriotan aipatuko.

Soraluzeko Emakume Taldeak «Euskara eta emakumea» astearen barruan, gai honi buruzko hitzaldia eskatu zidanez or-dea, ikerketa horietan bildutako hainbat datu sexuaren arabera irakurtzeko aukera izan nuen, benetan emaitza interesgarriak lortuz. «Primizia» orri hauen irakurleentzat.

Gaiak tratamendu sakonagoa eskatzen eta izango baldin badu ere, aipa ditzadan irakurketa honen ondoriorik nagusie-nak:

- Emakumezko erdaldun eta ia-euskaldunen artean eus-kaltegiatik pasatakoak askoz ere gehiago dira (% 35) gizo-nezkoen artean baino (% 26).
- Baita euskaldunen artean ere: emakumeen artean euskal-tegiatik noizbait pasatakoak % 48 eta gizonezkoen artean % 37.
- Euskaltegietan matrikulatzeko garaian, lanak eta seme-ala-bek garrantzi handiagoa hartzen dute emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino. Adiskide eta inguruko pertsona eus-kaldunekin hobeto komunikatzeak berriz, garrantzi handia-go hartzen du gizonezkoen artean.

- Lanean ari diren 20-40 urte bitarteko erdaldunen artean irakasleak % 4 diren bitartean, euskaldunen artean % 18 dira eta emakume euskaldunen artean % 26. Kopuru altu hauek, euskaldungoaren barne-osaketa soziologiko bereziaren berri eskaintzen digu, hainbat esparrutan espero beharko genukeen euskarazko kultur produktuen kontsumo-maila baxua agerian utziz.

- Bestalde emakumeen artean oro har, gehiago dira administrazio publikoan lan egiten dutenak gizezkoen artean baino.

- 20-40 urte bitarteko emakume euskaldun eta goimailakoa ia-euskaldunen artean % 27k EGA du. Gizezkoen artean berriz % 18k.

- Oro har, egunean zehar emakumeek euskara gehiago entzuten dute gizezkoek baino.

Badirudi, hizkuntz normalizazio-prozesuak eragin gehien izan duen esparruetan (irakaskuntza eta administrazio publikoa) emakumezkoen presentzia handiagoa dela.

Euskara beraz, beharrezkoagoa izan zaie eta zaie egoera honetan emakumezkoek, gizezkoek baino. Hori dela eta, emakumezkoek, gizezkoek baino ahalegin handiagoa egin behar izan dute beren euskara-maila hobetzeko: euskaltegietan matrikulatuz, EGA lortuz, etab.

Sexuen arteko rol-banaketak beraz, eragin nabarmena du sexu bakoitzak hizkuntzarekiko hartzen dituen jarrera eta portaeretan.□

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1.C
TEL.(943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

